



# EAE-N ENTZUMEN-DESGAITASUNA DUTEN IKASLEENTZAKO HEZKUNTZA-ERANTZUNA



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2020ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
(C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 1010 Vitoria-Gasteiz)

Diseño: ekipoPo

## Egileak

EAEEn entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna berrikusteko batzordea.

EAEko Lurraldeko Koordinazioa:

- **Araba:** Marisol Hornas García
- **Bizkaia:** Kesare Calzacorta Arteta
- **Gipuzkoa:** Guillermo Azkarate Maturana

Berritzegune Nagusia: Carmen Couto Barros

FEVAPAS: Montse Piérola Lete

ASPASOR: Blanca Marquinez López de la Calle

ULERTUZ: Eva Lerena Gutiérrez

ARANSOI: María Asenjo Burinaga

Ikuskaritza: Pedro Antonio Carnicero Ahedo

ISEI-IVEIko ordezkariak

Euskal Gorren ordezkariak

## Eskerrak eman nahi dizkiegu

Mirari Pérez Gaztelu, ARANSOIkko mediku foniatra

Marisol Antolín Herrero, Berritzegune Nagusia



# Aurkibidea

1. Hitzaurrea .....	9
2. Egungo egoera .....	13
3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona.....	17
3.1. Entzumen-desgaitasuna duen pertsonarekiko hurbilpen kontzeptuala.....	17
3.1.1. Alderdi erkideak .....	17
3.1.2. Alderdi heterogeneoak.....	20
3.2. Entzumena galtzearen ondorio orokorrak pertsonaren garapenean.....	37
3.2.1. Entzumena pertsonaren garapenean. Ondorio orokorrak.....	37
3.2.2. Ikusmenak ez du entzumena ordeztzen .....	40
3.2.3. Entzumen-galeraren ondorioak hizkuntza eta inguruko esperientzia bereganatzeko .....	43
3.2.4. Entzumen-galeraren ondorioak gaitasun emozionalen eta sozialen garapenean.....	45
3.3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsonaren arretan inplikaturiko zerbitzuen erantzun integrala eta integratua.....	50

3.3.1. Erantzun integrala eta integratua sostengatzen duten printzipioak .....	50
3.3.2. Zerbitzuak eta esku-hartzeak.....	52
3.3.3. Arreta goiztiarra .....	56
<b>4. Entzumen–desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman .....</b>	<b>61</b>
4.1. Hezkuntza-erantzunaren prozesua .....	61
4.1.1. Eredu terapeutikotik soziokulturalera .....	61
4.1.2. Eredu soziokulturala: aurrerapen teknologikoak gehitzea entzumen- funtzionaltasunaren garapenean.....	63
4.1.3. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleekiko arreta inklusiboaren eredua. Gizarte- planteamenduen eta garapen teknologikoaren inplikazioak.....	66
4.2. Komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunaren garapena ...	67
4.3. Hizkuntza-ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman .....	69
4.3.1. Ahozko hezkuntza-sistema elebiduna: euskara-gaztelania .....	69
4.3.2. Hizkuntza mintzatuen eta zeinu-hizkuntzen arteko elebitasuna .....	70
4.3.3. Atzerriko hizkuntzetarako sarbidea .....	70
4.4. Ezaugarri espezifikoak irakurketa-idazketa bereganatzeko.....	72
4.5. Dibertsitateari erantzuteko neurriak .....	75
<b>5. Entzumen–desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza–erantzuna.....</b>	<b>83</b>
5.1. Hezkuntza-erantzunaren elementu deskribatzaileak ...	83
5.1.1. Tipologiaren arabera taldekatutako ikasleak .....	84
5.1.2. Tipologia bakoitzaren deskribapena .....	84
5.2. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza- erantzunerako neurriak .....	89

5.2.1. Hezkuntza-erantzunerako neurriak ikastetxe mailan .....	90
5.2.2. Hezkuntza-erantzunerako neurriak ikasgela mailan .....	95
5.2.3. Hezkuntza-erantzunerako neurriak norbanako mailan .....	108
5.3. Erantzun aukerak ikastetxean. Eskolatzeko-modalitateak: inklusioa ikastetxe arruntean eta inklusioa taldekatze-zentroan.....	112
5.3.1. Banakako inklusioan eskolatzeko ereduak .....	114
5.3.2. Eskolatzeko ereduak entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzako taldekatze-zentroan .....	117
5.3.3. Profesional espezifikoak Nahitaezko Hezkuntzaren Osteko modalitateetara sarbidea izateko .....	125
5.3.4. Hezkuntza-sistemaren egitura Nahitaezko Hezkuntzaren Ostean .....	126
5.3.5. Beste eskolatzeko-modalitateak eta -programak batzuk .....	127
5.4. Garapen integralerako beharrezkoak .....	131
5.4.1. Komunikazio-gaitzarako prozesuak .....	132
5.4.2. Bitartekaritza, egokitzapena eta irisgarritasuna irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan .....	133
5.4.3. Garapen emozionalaren jarraipen pertsonalizatua .....	134
5.5. Tipologiak - Prozesuak - Baliabideak .....	137
6. Entzumen-desgaitasunarekin lotura duten terminoak .....	149
7. Bibliografia.....	163





# 1. Hitzaurrea

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzako eskolatzemodalitateak ezarri zirenetik (2000-2001) gaur egunera arte, garrantzi handiko aldaketak gertatu dira. Alde batetik, paradigma aldatu da, inklusioa bultzatu baita, EAEko hezkuntza-sistema identifikatzen duen elementu giltzarri gisa. Bestetik, entzumen-desgaitasuna duen ikaslearen hezkuntza-premia berezien azterketak, gaur egun, duela hamarraldi batzuk baino askoz perspektiba zabalagoa eskaintzen du. Azken urteotan, hainbat diziplinan egindako ikerketek eta aurrerapen teknologikoen hausnarketa-elementu berriak ekarri dituzte, eta elementu horiek aldaketa-faktore bihurtu dira entzumen-desgaitasunaren kontzepzio berri batera heltzeko, zeinak, edonola ere, haur gorraren ikuspegi integrala mantendu beharko baitu, haur gorra hizkuntzaren arloan eta arlo sozialean eta kognitiboki eta emozionalki garatu behar duen pertsona den aldetik.

*Entzumen-desgaitasunari ematen zaion hezkuntza-erantzunaren jarraipenerako Batzorde Teknikoak landu du dokumentu hau, entzumen-desgaitasuna (aurrerantzean ED) duten ikasleen ezaugarriei eta premiei eta hezkuntza-erantzunerako planteamenduei buruz orientatzeko xedearekin.*

1. apartatuan, entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzako eskolatzere-ereduak ezarri zirenetik gertatu diren aldaketa garrantzizkoenak planteatzen dira, eta interes-fokuetako aldaketaren azterketa eskematiko bat eskaintzen da (gaur egun, mota guztietako entzumen-galeretara zabaltzen dira planteamenduak, ez soilik gorreria sakonetara; beste egoera bat dago populazio migratzaileari buruz, etab.).
2. apartatuan ED duten ikasleen ezaugarri eta beharrian orokorren aldagarritasun funtzionala deskribatzen da.
3. atalean, berriz, Eskola Inklusiboko dibertsitatearekiko arretaren markoan EDri emandako erantzuna eta komunikazio- eta hizkuntza-garapenaren garrantzia jorratzen dira. Beharrezkoa da ED duten ikasleekiko erantzuna hezkuntza-proposamenen hasierako diseinutik hasi eta ikasle guztiei emandako erantzuna kontuan hartzen duen ikuspegi baten barruan planteatzea. Hezkuntza inklusiboaren oinarrian dago aitortzea hainbat desberdintasun daudela bai ikasteko moduan, informazioa hautemateko eta prozesatzeko eran, bai adierazteko eta ingurunearekin erlazionatzeko moduetan, interes eta lehentasunetan, gizarte-sentimendu eta -trebetasunetan, etab. Horretarako, ezinbestekoa dirudi irakaskuntza ezagutza zientifikoetan oinarritutako ikuspegi batetik planteatzea, ikasle guztiei ikasteko eta parte hartzeko aukera segurtatzearen.
4. apartatuan, ED duten pertsonen heterogeneotasuna azaltzen duten faktore erabakigarriak deskribatzen dira; entzumen-galeraren ezaugarriekin zerikusia duten faktoreak, diagnostikoaren unearekin lotura dutenak, sostengurako produktuak erabiltzearekin edo ez erabiltzearekin, edota esku-hartzearen hasierarekin. Familia- eta ingurune-faktoreak ere (eskola, kultura, gizartea) aintzat hartzekoak dira. Entzumen-desgaitasunari hezkuntza-erantzuna emateko neurriei

## 1. Hitzaurrea

buruzko orientabideak planteatzen dira, hainbat zehaztapen mailatan: ikastetxea, ikasgela, banakakoa; bai eta bi eskolatzemodalitateen ezaugarriei buruz ere: inklusioa ikastetxe arruntan eta inklusioa taldekatze-zentroan. Gainera, hezkuntza-sistemaren barruko hezkuntza-ibilbideei, modalitateei eta eskolatzeprogramei buruzko informazioa ere ematen da.

Azkenik, entzumen-desgaitasunarekin lotura duten terminoak deskribatzen dira, eta intereseko bibliografia gehitu da, aipatutako apartatuen ulermena sakontze aldera.



## 2. Egungo egoera

2000-2001eko eskola-ikasturtean, bi eskolatz-modalitate ezarri ziren ED duten ikasleentzat: banakako inklusioko eskolatzeta eta taldekatze-zentroko eskolatzeta. Eredu horiek ezarri zirenetik, honako hauekin zerikusia duten aldaketak gertatu dira:

- Jaioberrien Entzumen-baheketako Programa jarri zen abian EAEn (2003);
- Populazio xedearen hedapena audiologiaren ikuspuntutik;
- Entzumen-desgaitasuna duen populazioaren hazkundera migratzaileen artean;
- Gorreriarekin batera, beste desgaitasun batzuk dituzten ikasleen hazkundera;
- Hezkuntza-arreta irakaskuntzako etapa guztietara hedatzea: haur-hezkuntza, nahitaezko hezkuntza eta nahitaezkoaren ostekoa;

- Unibertsitate-testuinguruetan gorreria duten ikasleen hazkundea;
- Entzumen-desgaitasuna duten pertsonengan banakako entzumen- eta komunikazio-funtzionaltasuna lortzeko aurrerapen teknologikoen azalpena;
- Komunikazioaren eta informazioaren teknologiek in lotura duten eremuetan izandako aurrerapenak. Ez dago zalantzarik telefonia mugikorrari eta Interneti esker sortutako komunikazio-aukerek erabateko aldaketa ekarri dutela entzumen-desgaitasuna duten pertsonen bizitzan, bai eta hezkuntzaren esparruan ere.

Aurreko egoera (2000–2001)	Gaur egun
Atzerapena hipoakusia hautematean.	Jaioberrien Entzumen-baheketako Programaren hasiera EAEEn (2003). Haur-hipoakusiaren Hautemate Goiztiar Unibertsala .  13/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, EAEko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzkoa <sup>1</sup> .
Entzumen-galera sakonak dituzten biztanleentzat.	Edozein motatako entzumen-galerak dituzten biztanleentzat. Entzumenaren galerarekin lotutako beste desgaitasunbatzuk dituzten ikasleekiko arretaren hazkundea.

... / ...

<sup>1</sup>EAEko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan Arreta Goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko oinarrizko arauak ezartzea bilatzen du, zuzenean inplikaturako osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen sistemetak jarduketak egokiro koordinatuko diren eredu integral eta eraginkor bat bermatzeko helburuarekin.

## 2. Eguno egoera

... /...

Aurreko egoera (2000-2001)	Gaur egun
Batez ere bertako biztanleei zuzenduta. Idatzitako txostenetan, ez zen aurreikusten bertakoa ez zen beste populazio xede baten aukerarik.	Entzumen-desgaitasuna duen biztanleria migratzailearen <sup>2</sup> hazkundera. Beste nazio edo gutxiengo batzuetatik datorren populazioa, beste kultura eta hizkuntza batzuekin (biztanle horien % 13 inguruk gorrieria artatua dute). Hainbat hizkuntza-, kultura- eta gizarte-aldagaik dute eragina gorrieria duten ikasle migratzaileei emandako erantzun globalaren konplexutasunean. Ondorioak eskolatzeko orduan.
Nahitaezko Hezkuntzako etapan zentratuta.	Etapa Infantil. Etapa Obligatoria. Etapa Post-obligatoria. Enseñanzas Superiores. Incorporaciones al sistema educativo a lo largo de la vida.
Entzumen-protesi oinarritzko eta banakako erabiltzaileak.	Teknologia digitaleko azken belaunaldiko sostengu-produktuek entzumen-funtzionaltasun handiagoa ematen diote pertsonari eta entzumen-ikusmen esperientziara iristeko bideen garapen handiagoa errazten dute.

Aldaketa horiek guztiek aholkatzen dute kontuan hartu behar liratekeela inguruabar berriak ED duten ikasleen ezaugarriei eta premiei buruzko orientazioa emateko orduan eta beroriei hezkuntza-erantzuna emateko planteamenduei dagokienez.

<sup>2</sup>««Pertsonak, emigratzean, muga geografikoak ez ezik, muga politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ere zeharkatzen dituzte, eta (informazioaren teknologia berriei esker, neurri batean) erreferentzia-leku bati baino gehiagori dagozkien eguneroko bizitzako hainbat alderdi bizitzen dituzte, aldi berean, eta jatorrizko eta helmugako gizarteetako alderdiak nahasten dituzte, besteak beste. Marko horren barruan, zentzuzkoa da migratzaileez hitz egitea, emigranteak eta, aldi berean, etorkinak baitira, eta nortasun konplexuak garatzen dituzte, askotariko loturekin, ez bakarrik arlo sozialean, ekonomikoan eta abarretan, baita alderdi sinboliko eta emozionalean ere. Horregatik, harremanen eremuan, migratzaileez hitz egiteak zabaltasun handiagoa ematen digu pertsonekin elkar ulertzeko, etorkin gisa soilik hartuta baino. Pertsona horien egoera osoa hartzen baitu barnean, eta etorkin parte testuinguru berri batean txertatzen du, beste emigratzaile partearekin batera, bizitza honetan oso presente baitaude haren historia, familia eta izandako bizimodua.» *In Migraciones y Rigor Terminológico. Consideraciones para un Mejor Uso de los Conceptos que se utilizan en Torno a las Migraciones.* Vitoria-Gasteiz, 2015, 11. or.





## 3. Entzumen–desgaitasuna duen pertsona

### 3.1. Entzumen–desgaitasuna duen pertsonarekiko hurbilpen kontzeptuala

#### 3.1.1. Alderdi erkideak

«Sarbidea hobetzen da, baina bere horretan jarraitzen du entzumen-disfuntzioak»

Bai garatu diren sostengu-teknologiek eta bai kontzeptu-markoetako aldaketek hobekuntza handiak ekarri dituzte pertsona gorrentzat. Hala ere, oraindik existitzen dira entzumen-galeraren ondorioak pertsonaren garapenean.

Gaur egungo sostengu-produktuak erabilera orokorrekoak dira bai norbanakoarentzat –kokleako inplanteak eta audifono digitalak<sup>3</sup> –, eta bai ingurunerako –adibidez, Frekuentzia Modulatuako (FM) irrati-igorgailuak, hezkuntza-esparruan–.

Ulertzekoa da, beraz, nabarmen hobetu dela kalitatea entzumen-inputera iristeko orduan. Baldintza horrek, dena dela, informaziora iristeko beharrezkoa izan arren, ez du bermatzen informazio guztia sistematikoki eta orokorrean ulertzea.

Halaxe da, sostengu-produktuen onurak ez du esan nahi entzumen guztiz berrezartzen denik, baizik eta zentzumen-funtzio hori garatzeko aukera handiagoa ematen duela, eta, ondorioz, hizkuntza-gaitasuna garatzeko ere bai. Aski frogatuta dago mota guztietako emaitzak eta guztiz erritmo desberdinak daudela ahozko hizkuntza ahalbidetuko duten entzumen-trebetasunak bereganatzeko orduan<sup>4</sup>. Aipatutako sostengu-produktuek entzumen-funtzionaltasunari dakarkioten onurei buruzko itxaropenak arrazoiz doitu behar dira.

Laguntza-produktuen entzumen-informaziorako sarbidea hobetzea edo gaitzea, baina horrek ez du esan nahi informazio hori ulertzen denik. Sarrera sentzoriala, lehen esan bezala, ezinbesteko baldintza da, baina ez da nahikoa ulertzeko. Protesiak erabiltzeak, hala nola audifono digitalak, kokleako inplantea (IC), biraketa erradikala dakar ahozko komunikaziorako sarbidean. Hala ere, nahitaez zehaztu behar da ezarritako gizabanako guztientzat ez dela erabatekoa. Eta errealitate horrek ez ditu hizkuntza entzuteko aukerak aldatzen, ezta normalizatzen ere, oro har auresuposatzen den bezala.

---

<sup>3</sup>Azpimarratzekoa da sostengu-produktuekin –audifonoekin, bereziki– lotura duten laguntza ekonomikoek ez dutela inoiz produktu horien kostu osoa estaltzen. Halaber, berorien funtzionamendurako oinarritzko elementuak ere ez daude estalita: konponketak eta bateriak.

<sup>4</sup>Gorope J., Muñoz Navarro, C.: «El implante coclear en el contexto de la atención a la deficiencia auditiva», Osasun-zientzien seriea, *Claves de la Logopedia en el Siglo XXI*, Madril, 2016ko uztaila.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Bestalde, nabarmentzekoa da gortasunak arazoak dakartzala hizkuntza-gaitasunaren<sup>5</sup> garapenean. Eta ez soilik alderdi fonologiko-ortografikoetan, baita gramatikaren gainerako eremuetan ere (morfologia, sintaxia, semantika eta pragmatika).

Esan genezake, hitz egiteko gaitasuna komunikazio-gertaeretan jokoan jartzen diren ezagutza eta trebetasun linguistiko, soziolinguistiko, estrategiko eta diskurtsiboz osatutako multzo bat bezala ulertzen baldin badugu, izatez komunikatzeko gaitasunaren nozioari egiten diogula erreferentzia, eta ez garaela ari soilik batez ere gramatikaltasun-izaerari lotuago dagoen hizkuntza-gaitasunari buruz.

Nabarmendu behar da gorreria edo entzuteko zailtasunak izateak ez dakarrela berarekin gizarte-egokitzapen falta dagoenik. Gorreria duen pertsona batek badu komunikatzeko gaitasuna, bai eta komunikazio-aukerak ere, baina baliteke inguruan nagusi den hizkuntza-kodean edo hizkuntza/hizkuntzetan nahikoa gaitasun ez izatea, hau da, behar adinako hizkuntza-gaitasunik ez izatea.

Askotarikoak dira gorreria duten pertsonen kolektiboan desberdintasunak eragiten dituzten aldagaiak. Ondoren aurkezten dira, entzumen-desgaitasunaren heterogeneotasunaren erakusgarri.

---

<sup>5</sup>Hizkuntza-gaitasuna, Dell Hymesek sortutako kontzeptua 60ko hamarraldiaren azken aldera.

### 3.1.2. Alderdi heterogeneoak

GORRERIAREN ALDAGAI BEREIZGARRIAK	1	Saillapen <b>KUANTITATIBOA</b>	Entzumen normala
			Hipoakusia arina
			Hipoakusia ertaina
			Hipoakusia larria
			Hipoakusia sakona
	2	Saillapen <b>TOPOGRAFIKOA</b>	Transmisioko hipoakusia
			Hipoakusia neurosentsoriala edo pertzepziokoa
			Hipoakusia mistoa
Entzumen-prozesamendu zentraleko nahasmenduak			
GORRERIAREN ALDAGAI BEREIZGARRIAK	3	Saillapen <b>LOKUTIBOA</b>	Lokuzio edo hizkuntza aurrekoa
			Perilokutiboa
			Lokuzio edo hizkuntza ostekoa
	4	<b>Entzumen-hondarraren eta potentzialtasunaren</b> araberako saillapena	Entzumen normala
			Entzumen funtzionala
			Hondar-entzumena
	5	<b>Aldebakartasuna eta aldebikotasuna</b>	Aldebakarrekota
			Aldebikota
	6	<b>Entzumen-funtzionaltasuna banakako sostengu-produktuen bidez</b>	

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

#### A. Gortasunaren banakako aldagai bereizgarriak

Gorreriaren etiologia, noiz agertu den, lotuta eraman ditzakeen balizko nahasmenduak edota familia-egituraren erreakzio emozionala bezalako paradigmatik, aldagarritasun handiko faktoreak izan daitezkeenez, neurri handian baldintzatu lezakete entzumen-desgaitasuna duen haurren garapena.

Aldagai horiek azpi-mota edo sailkapen modura definitzen dira. Horrela bada, sailkapen horiek kontuan hartuta, honela sailka daitezke gorrerriak: modu kuantitatiboan (entzumen-galeraren gradu edo mailaren arabera), topografikoan (urritasuna eragiten duen lesioaren kokapenaren arabera) eta lokutiboan (disfuntzioa agertu den unean haurrak duen hizkuntzaren garapen-mailaren arabera).

1. Entzumen-galeraren mailaren arabera, hau da, **sailkapen kuantitatiboaren barruan**, honako talde hauek ezartzen dira, dezibel (dB) galera parametro gisa hartuta: :
  - **Entzumen normala:** 20 dezibelez azpiko galera duen entzumena.
  - **Hipoakusia arina:** 21 eta 40 dB arteko entzumen-galera izaten dute. Hitza normaltasun baten barruan hautematen dute, eta ez dute zailtasun berezirik izaten hizkuntza mintzatuan: berez ikasten dute hizketan. Kasu batzuetan, ordea, gerta daitezke zenbait dislalia audiogeno fonema batzuetan. Batzuetan sostengu logopedikoa eska lezakete, eta baliteke audifonoari onura ateratzea.
  - **Hipoakusia ertaina:** Bi azpimota daude:
    - Lehen azpimota: Grafiko audiometrikoan, 41 eta 55 dezibel artean kokatzen da entzumen-galera. Beharrezkoa da ahots goraz mintzatzea entzuna izateko. Oro har, pertsona horiek protesi-egokitzapena behar izaten dute, eta ongi erantzun ohi diote sostenguari.
    - Bigarren azpimota: 55 eta 70 dezibel artekoa da galera. Arazo gehiago izaten dituzte hizkuntza ongi ulertzeko, eta

gerta liteke hizketan atzerapenarekin hastea. Protesi-egokitzapena ezinbestekoa da. Ahozko hizkuntzaren ulermena hobera egiten du ezpain-aurpegi irakurketa (EAI<sup>6</sup>) erabiltzen dutenean. Ikusmen-sostenguek erraztu egiten dute hizkuntza mintzatuaren ulermena. Arazoak areagotu egiten dira hartzailea soinu-iturritik urruti dagoenean, hondoko zarata baldin badago edo ingurune akustiko txarra badago edota taldeko elkarrizketak daudenean.

- **Hipoakusia larria:** Bi azpitaldetan bereizten dira:
  - Lehen azpitaldea: 71 eta 80 dezibel artekoa da batez besteko entzumen-galera.
  - Bigarren azpitaldea: 81 eta 90 dezibel artean kokatzen da galera. Entzumen-galera horrek dakar, ondorio gisa, ezin izaten dutela hizketan naturalki ikasi. Ez dute ahotsa entzuten, oso intentsitate altuan ez bada. Laguntza modura, beharrezkoa da audifonoak edo kokleako inplantea erabiltzea, arreta logopediko espezifikoa ematea, eta hezkuntza-esparruan bai neurri arruntak eta bai ezohikoak erabiltzea.
- **Hipoakusia sakona:** Mota horretako entzumen-galera hiru azpitaldetan sailkatzen dira:
  - Lehen azpitaldea: 91 eta 100 dezibel artekoa da batez besteko galera. Bigarren azpitaldea: 101 eta 110 dB artekoa da batez besteko tonu-galera.
  - Hirugarren azpitaldea: Galera 111 eta 119 dB artekoa da.
  - Ez da, entzumen bidetik, hitzik inola ere hautematen, intentsitate handiko zaratak izan ezean. Hizkuntza-informazioa ikusmenaren eta zinestesiaren bidez iristeko beharrezkoa da kokleako inplanteak eta/edo audifono digitalak erabiltzea.
- **Entzumen-hipoakusia totala edo kofosia.** Batez besteko tonu-galera 120 dB-koa da. Ez dago inolako entzumen-

<sup>6</sup>Hemendik aurrera EAI terminoa erabiliko da ezpain-aurpegi irakurketa adierazteko.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

erantzunik eta, baldin badago, gehiago da dardararik eratorritako faktoreengatik, soinuengatik baino.

#### 2. Hipoakusia sailkatzeko beste irizpide bat topografia da, hau da **lesioaren kokapenaren arabera**:

- **Transmisioko hipoakusia edo kondukziozkoa:** soinuak barneko belarrira daraman progresioari eragiten dion edozein efektuk edo baldintzak sortzen du; beraz, kanpoko eta/edo erdiko belarriko oztopo mekanikoen ondorio izaten da. Funtzio neurosensoriala osorik eta ukigabe dago; hau da, ez dute inolako zailtasunik ez seinale bio-elektrikoetara bihurtzeko, ez nerbio-sistemaren bidez transmititzeko, ez garun-azalean horiek interpretatzeko.

Soinua transmititzeko zailtasunek entzumen-galera gorabeheratsuak eragiten dituzte, askotan itzulgarriak, eta, sarritan, metodo mediko eta/edo kirurgikoekin tratatzen dira. Hipoakusia iraunkorra denean, hezurrean txertatutako inplanteetara jo daiteke.

Soinuaren kondukzioko nahasmendu batek eragindako entzumen-galera kuantitatiboa da, batetik, eta kualitatiboa bestetik, hau da, entzumen-mailan eta haren kalitatean du eragina. Ez dituzte, gehienetan, 60 dB-k gainditzen; beraz, hipoakusia ertainak dira

Maizen gertatzen direnak otitis serosoak dira, eta batik bat, 0-6 urte artean gertatzen dira. Adin horretan ezartzen dira, bai oinarritzko komunikazio-gaitasunak eta bai irakurketarekin eta idazketarekin lotura duten prozesuak finkatzeko aurre-baldintzak. Era berean, gerta daitezke belarri-mintzaren zulaketak, tinpano esklerotikoa edo otosklerosia, besteak beste.

Entzumen-galera horiek, nahiz eta iragankorrak izan, jokabide-, arreta- eta desorientazio-arazoak eragin ditzakete haurraren, eta baliteke haren ikaskuntzetan eragin negatiboa izatea.

Elkarrizketa mintzatua 60 dB inguruko intentsitatean gauzatzen dela kontuan hartuta, transmisio-arazo baten ondorioz muga horren inguruko entzumen-galera duen pertsona batek zalantzan izan dezake ahozko komunikaziora iristea eta, ondorioz, zailtasunak izango ditu zenbait ikaskuntza funtzioaletan. Eta zailtasun horiek areagotu egin daitezke distantzia, giroko zarata edo soinu-dardara bezalako faktoreak direla medio. Guztiak ere hezkuntza-zentroetan aurkitzen direnak.

- **Hipoakusia neurosentsoriala edo pertzepziokoa:** Izendapen horren barruan sartzen dira hipoakusia koklear edo sentsorialak eta koklea osteoak edo neuralak. Koklearretan, Cortiren organoko zelula sentsorialetan kokatzen da lesioa; koklea osteoetan, berriz, nerbio koklear edo zentralean (garun-enborrean) edo entzumen-azalean. Soinuaren kantitatean eta kalitatean izaten du eragina; horregatik, kontua ez da, soilik, haurrak gutxiago entzutea, baizik eta haren hondar-entzumena selektiboa izaten dela; maiztasun jakin batzuetan bakarrik dituzte entzumen-hondarrak, eta maiztasun horiek ez dira beti egoten ahozko komunikazioan.

Entzumen-galeraren maila gorabeheratsua izaten da, galera arin batetik sakonago batera artekoa, nahiz eta gehien-gehienak larriak edo sakonak izan.

Entzumen-galera neurosentsorialaren bilakaera izan daiteke:

- *Egonkorra*: Ez da aldatzen denboran zehar.
- *Progresiboa*: Jarauntsitako gorreria mota batzuetan agertzen da. Entzumena gero eta zailagoa eta arazotsuagoa izatea eragin dezake. Horrek hutsune gradualak sortzen ditu haurraren ikaskuntzan. Ez subjektua eta ez ingurunea ez dira hutsune horien jakitun izaten. Aldizkako berrikuspen audiologikoak garrantzizkoak dira entzumen-funtzioa balaratzeko.



### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

- *Bat-batekoa*: Une batetik bestera gorreria gertatzen denekoa da. Medikua eskuek hartze azkarra eskatzen du.
- *Aldizkakoa edo gorabeheratsua*: Gorreria horretan, ikasleak entzumen galera ezegonkorak izaten ditu. Aldi edo momentu batzuetan hobeto entzuten du, eta beste batzuetan okerrago. Ezinbestekoa da haurraren erreferentziako medikuak jarraipen estua egitea.
- **Hipoakusia mistoa**: Transmisioko hipoakusia bat pertzepzioko batekin lotzen da, erdiko belarriari, kokleari, belarri-bideei eta/edo entzumen-zentroei aldi berean eragiten dieten hainbat lesioen eraginez. Lesioa kanpoko edo erdiko belarrarian eta barneko belarrarian kokatzen da, eta arinak edo sakonak izan daitezke. Kanpoko edo erdiko belarriko lesioen kasuan, posible izan daiteke tratamendu mediko-kirurgikoa.
- **Entzumen-prozesamendu zentralerako nahasmenduak**: Disfuntzio hauek entzumen-informazioa prozesatzean eta integratzean gertatzen dira, eta ez dira entzumen-hipoakusiaren edo disfuntzio intelektualaren ondorio. Mintzamena ulertzeko zailtasunekin eta soinuak identifikatu ezinarekin lotzen dira, hizkuntzaren eta ikaskuntzarekin garapenarekin. Disfuntzio global batekin batera agi daitezke.

Nahasmendu horiei, askotan, diagnostiko zailkoak direnez, esku-hartze okerrekin erantzuten zaie, eta ez da erantzun eraginkorrik lortzen entzumena anplifikatzeko sistemekin, audifonoekin edo kokleako implanteekin. Hala ere, entzumen-desgaitasunari erantzuteko erabiltzen diren tresna batzuk mesedegarri izaten dira tratamendurako<sup>7</sup>.

Entzumen-pertzepzioaren nahasmendu zentrala duen norbaitentzat, hizketako soinuak nahasi egiten dira, mintzamena prozesatzen duten garuneko zentroak ez baitira gai hizketako soinuak beren artean bereizteko.

<sup>7</sup>Cañete, O. (2006): «Desorden del procesamiento auditivo central (DPAC)». *Otorrinolaringologiko aldizkaria*. Burua eta lepoa 2006; 66: 263-273 or. .

Pertsonaren entzumena normala izanik ere, entzumen-prozesamendu zentralako nahasmendua duenak zailtasunak ditu hizketa ulertzeko. Arazoa areagotu egiten da hondoko zarata dagoen egoeretan.

Garunak trabak aurkitzen ditu soinuak bereizi eta prozesatzeko. Beste hitz batzuekin esanda, garunak «ezin du entzun», belarriak guztiz funtzionalak izan arren.

Ikertzaileek kalkulatzen dute biztanleen % 3-5 artean direla entzumen-pertzepzioaren nahasmendu zentrala dutenak. Disfuntzio horren kausa genetikoa izan daiteke, baina jaiotzako trauma batekin ere lotzen da, bai eta aldi baterako entzumen-galera sortzen duten belarriko infekzioekin ere<sup>8</sup>.

3. **Hizkuntzaren garapen mailaren arabera** (sailkapen lokutiboa), entzumen-disfuntzioa agertzen den adina kontuan hartuta, honela sailkatzen da gorreria: **lokuzio aurrekoa**, hau da, mintzamina garatu aurretik agitzen dena; **perilokutiboa**, 2 eta 4 urte artean jazotako entzumen-galera, hizkuntza bereganatzen ari diren adinean; eta lokuzio ostekoa, hizketan ikasi ondoren.

Une horietako bakoitzean pertsonaren garapenean sortzen dituen inplikazioak desberdinak dira. Agerikoa da noizbait entzun izanak, alde batetik, gaitasun komunikatibo eta linguistiko handiagoa dakarrela (hori guztia entzumena galdu den unearen arabera, jakina), eta, bestetik, esperientzia-baliabide handiagoa, bai entzumen eta bai bizitza aldetik.

4. **Entzumen-hondarraren eta potentzialtasunaren araberako sailkapena**, oso erabilia entzumen- eta komunikazio-gaikuntzaren esparruan, honako hau da:
  - **Entzumen normala:** Mintzairako edozein soinu ezagutzen eta imitatzen du, zentzua edozein dela ere.

---

<sup>8</sup><http://www.hear-it.org/es/Trastornos-centrales-de-la-percepcion-auditiva>.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

- **Entzumen funtzionala:** Hitz eta esaldi ezagunak identifikatzea ahalbidetzen du, testuinguruaren laguntzarik gabe. Ondo hautematen dituzte bokal-soinuak eta mintzairako kontsonante-soinuetako asko, baina ez dute behar bezain argi identifikatzeko moduko entzumen-bereizkuntzarik. Zailtasunak dituzte osaera fonetiko oso antzekoa duten hitzak bereizteko.
- **Hondar-entzumena:** Hobeto ulertzen dute ahozko hizkuntza, ezpain-aurpegi irakurketarekin (EAI) eta testuinguruaren laguntzarekin. Soinuak identifika ditzakete, baita hitzak bereizi ere haien elementu prosodikoengatik –besteak beste, luzera edo intentsitatea–, baina nekez osagai fonetiko soilengatik.<sup>9</sup> Horrela, bada, «hondar-entzumena» kaltetutako belarriari geratzen zaion entzumen-ahalmena genuke; esan behar da, behar den laguntza teknikoekin, balia daitekeela ahalmen hori. Hala ere, hizkuntza mintzatua ikasteko izan dezakeen erabilgarritasuna askotarikoa da, eta ez beti funtzionala.

### 5. Aldebakartasuna eta aldebikotasuna.

Hipoakusiak eragin diezaioke belarri bakar bati (alde bakarreko gorreria), bi belarriei simetrikoki (aldebiko hipoakusia simetrikoa) edo, aldebikoa izanik, alde bati besteari baino gehiago (aldebiko gorreria asimetrikoa).

Entzumen-pertzepzioan dituzten ondorioak ere desberdinak dira: aldebiko gorreria, jakina, aldebakarrekoa baino askoz kaltegarriagoa da.

Alde bakarreko gorreria duten ikasleek entzumen normala dutenek baino aukera gehiago dituzte eskolan okerrago moldatzeko; izan ere, mota horretako galerak soinuaren iturria identifikatzeko zailtasunak eragiten ditu; alde horretatik, komenigarria izango da gelan duten kokapena kontuan hartzea esandako zailtasun hori konpentsatzeko.

<sup>9</sup>MONFORT, M.; JUÁREZ, A. (2001): *Estimulación del lenguaje oral: Un modelo interactivo para niños con necesidades educativas especiales*. Madril: Entha Argitalpenak.

Gainera, beste konpentsazio-neurri batzuk ere beharko ditu agian.

## 6. Entzumen-funtzionaltasuna banakako sostengu-produktuen bidez.

Arretaz entzutea entzumen-informazioari intentzioz erreparatzea da; kortex prefrontaleko jarduerak uzten du datu hori agerian<sup>10</sup>.

Ez da berdin «entzutea» eta «arretaz entzutea». «Entzutea», beste gabe, entzumen-informazioa modu akustikoan burmuinera iristea da. Entzumen-galera duten haurrentzat, «entzuteak» seinale edo zarata hobetzea esan nahi du, ingurunea kudeatzearen eta entzumen-teknologiak erabiltzearen bidez. «Arretaz entzutea», aldiz, norbanakoak ekitaldi akustikoei intentziozko arreta jartzea da. Arretaz entzuteko, lehenik entzun egin behar da.<sup>11</sup>

Banakako laguntza-produktuek (audifonoak eta kokleako inplanteak), alde bakarrekoak edo bikoak izan, norbanakoaren entzumen-hondarrak erabiltzeko aukera ematen dute, dela kokleako inplanteagatik, dela audifonoak parekatzearen bidez, bestela ez legokeen entzumen-funtzionaltasuna ahalbidetzen baitute. Gaur egun, aipatutako sostengu tekniko horien erabilera orokortu egin dela esan daiteke, haurtzarotik hasita, eta, hortaz, ikasleen entzumen-aukerak gero eta handiagoak dira.

Nabarmentzekoa da laguntza tekniko bat erabiltzeak edo ezartzeak ez duela esan nahi, inondik ere, «entzumena berrezartzen denik», ez behintzat normal entzuten duten pertsonak ulertzen duten moduan. Gorreria duten haurren kasuan, behin entzumen-sostengua abian jarri zaienean, guztiz beharrezkoa da denboran iraungo

<sup>10</sup>Musiek, E. (2009). «The human auditory cortex: Interesting anatomical and clinical perspectives». *Audiology Today*, 21(4), 26-37.

<sup>11</sup>Flexer, C. (2016). «El cerebro que escucha»,. *Fiapas* aldizkaria. Separata. 156.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

duen prozesu birgaitzaile egoki bat ezartzea. Entzumen-funtzionaltasunak ondorio positiboak ditu ahozko hizkuntzaren garapenean.

#### B. Beste aldagai batzuk

##### 1. Populazio migratzailea

EAzken urteotan, handitu egin da EAEko hezkuntza-sistemara gehitu den pertsona migratzaileen kolektiboa. Bai hizkuntza, eta bai kultura- eta gizarte-ezaugarri desberdinak izateak berekin dakar gorreria duten ikasle migratzaile horiei eman beharreko hezkuntza- eta komunikazio-erantzuna konplexuagoa izatea.

Irakurtzen ikasteko zailtasuna are handiagoa izango da entzumen-desgaitasuna duten migratzaileentzat; izan ere, irakurketaren mekanika ahozko hizkuntza-gaitasunari -hau da, hitz egiten denari- lotuta baitago. Eta pertsona horiek eta beren inguruneak EAEkoetatik bestelako familia-hizkuntzekin datoz.

Halaxe da, familia-inguruneak hitz egiten duen hizkuntza desberdina izan ohi da EAEn ofizialak direnekin alderatuta -desberdina fonologian, soinuen artikulazioan eta kode idatziaren arauetan ere-, zenbait kasutan, alfabeto ez-latindarra izateraino. Gainera, baliteke hizkuntza hori familia barruan soilik erabiltzea eta inolako presentziarik ez edukitzea familia hori eta entzumen-desgaitasuna duen pertsona orain bizi diren herrialdeko gizarte-trukean. Horrekin batera, kontuan eduki behar da nahitaezkoa dela komunikazio-gaitasuna eskuratzea bai gaztelaniaz eta bai euskaraz, eta, askotan, hizkuntza horiek migratzailearen eta haren hurbileko ingurunearen (familia, jatorrizko komunitatea...) hizkuntza-erregistroetatik oso urrun egoten direla.

Familia migratzaile horiei hezkuntza-erantzun egokia eta laguntza emateko, haien ezaugarri soziokulturalak, ekonomikoak eta linguistikoak ezagutu behar dira.

Gaineratu behar da, zenbait kasutan, gure eskola autoktonoaren formalitateak eta funtzionamendua familia migratzaileen esperientzia eta bizi-baldintzetatik kanpo geratzen direla, eta horrek eskola-absentismo altua ekartzen du.

## 2. Biografia eleaniztunak:

Entzumen-desgaitasuna duen pertsona baten irakurmen maila eta hizkuntza-gaitasuna ebaluatzean, kontuan eduki behar da euskara edo gaztelania ez den beste familia-hizkuntza bat dagoen edo ez, eta zenbat denbora daraman herrialdean.

Denbora horrek, askotan, zuzeneko lotura izaten du eskolara berandu hastearekin. Irakurtzeko eta ulertzeko gaitasun ez-funtzionala, hainbat kasutan, familia-hizkuntzaren ezagutza maila apalak esplika lezake.

Biografia eleaniztun horiek zaildu egiten dituzte bai hizkuntzen arteko ezagutzen transferentziak eta bai ikaskuntza-prozesuak. Era berean, gaztelaniaz eta euskaraz mintzatzen hastea edo hizkuntzaren garapena atzeratu dezakete.

## 3. Beste hizkuntza batzuen ikaskuntza entzumen-desgaitasuna duen pertsonarengan:

Psiko-linguistikaren ekarpenek adierazten digute hizkuntza bat ikasteak kode berri bat ikastea dakarrela, beste kultura bat eskuratzea, munduaren eta erkidego baten ikuspegi espezifikoa bereganatzea.

Alde horretatik, EAEko ikastetxe gehienek errealitate eleaniztunak eta hezkuntza-komunitateak eskola inklusiboaren alde egindako apustuak gomendatzen dute ez daitezela baztertu entzumen-galera duten ikasleak bi hizkuntza ofizialetan irakastearen abantailetatik, bietan ikasteak haien hizkuntza- eta gizarte-gaitasuna hobetzeko balioko baitie, dudarik gabe.

Toronton egindako -eta Cumminsek<sup>12</sup> jasotako- ikerketek ondorioztatzen dute hizkuntza batetik bestera transferitzen

<sup>12</sup>CUMMINS, J. (2002): *Lenguaje, Poder y Pedagogía*. Madril. Morata argitaletxea.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

direla ezagutzak eta ikaskuntza-prozesuak, eta lehen hizkuntzan (1H)<sup>13</sup> irakurtzearen eta idaztearen garapenak hainbat abantaila zehatz dakartzala beste hizkuntza batzuk ikasteko.

Entzumen-galera duen ikasle batentzat, edozein hizkuntza ikastea zailtasun erantsia da, nahiz eta garrantzitsua den beste hizkuntza batzuk ikasteko eta erabiltzeko aukerak eskaintzea, beste edozein ikasleri bezala. Egoera bakoitzak hainbat aldagai kontuan izango dituen banakako balorazioa egitea eskatuko du: entzumen maila, inguruak eskaintzen dizkion aukerak, edota hizkuntza-gaitasunaren maila, besteak beste.

Edonola ere, beharrezkoa izango da hainbat sarbide-neurriren erabilera baloratzea hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako. Irakaskuntza formala hobeto aprobetxatzeko baliabideen eta estrategien artean egon daitezke, adibidez, grabazio bat behin eta berriro entzutea, ikasleari entzutera eman aurretik grabatutako materialaren transkripzioa irakurtzea, edota irakasleak aipatutako testu hori ozen irakurtzea, ezpain-aurpegi irakurketa egiteko modua izan dezan. Horien osagarri gisa, interesgarria litzateke sostengu-produktu espezifikoak erabiltzea entzumen-informaziora errazago iristeko, hala nola frekuentzia modulatuak, ekipamenduak, begizta magnetikoak edota soinu-iturriarekiko zuzeneko konexioak. Estrategia eta baliabide horiek baliagarriak izateko beharrezkoa da nahikoa entzumen-hondar egotea.

Ikaslea zeinu-hizkuntzan egindako interpretazio baten bitartez sartzen bada beste hizkuntza batzuetako curriculumera, entzumen-ahozko alderdiari dagokionez, prozesua honako hau izango litzateke:

1. Igorleak aho-entzumenezko mezua sortzen du, eta mezu hori zeinu-hizkuntzara interpretatuko da.

<sup>13</sup>1H, beraz, familian erabilitako lehen hizkuntza litzateke, eta hurrenez hurrengo zenbaketa eramango dute ondoren pertsonaren hizkuntza-biografiari gehitutakoek.

2. Ikasleak, erantzun behar baldin badu, zeinu-hizkuntzan erantzungo du.

Alegia, kontuan eduki behar dugu komunikazio-prozesu honetan ez garela ari abiapuntuko ahozko hizkuntza lantzen, baina helburua ezar daiteke hizkuntza horren alderdi idatzian.

4. EAEko hezkuntza-sistemara berandu sartzea:

Batzuetan, entzumen-desgaitasuna duen ikasle migratzailea berandu txertatzen da EAEko hezkuntza-sisteman, hau da, ez dira eskolatze normalizatuaren hasieran etortzen. Horrek esan nahi du kultura ez-ezagutza garrantzitsua eta komunikazio- eta curriculum-desberdintasun handiak dituela bere adin kronologikoarekiko.

Horrekin batera, oso beharrezkoa izango da hezkuntza-erantzunaren egokitzapen on bat egitea, bai eta, ikasleari curriculumera iristea ahalbidetzeko, komunikazio- eta hizkuntza-gaitasuna garatzen lagunduko dioten baliabide profesional espezifikoen presentzia ere.

5. Gorreria eta beste desgaitasun batzuk dituzten ikasleak:

«Jaioberrien entzumen-baheketa» modu orokorrean ezarrita dagoenez, eta ez soilik arriskuko populazioaren kasuan, gorreria izan daiteke goizen hautematen den desgaitasunetako bat. Lehen diagnostiko horretatik abiatuta, haurtxoaren garapenean egon daitezkeen beste desgaitasun batzuetara ere iris daiteke. Halaber, posible da gorreria beste desgaitasun batzuei lotuta egotea ere.

Gerta daitezkeen kasuen heterogeneotasuna kontuan hartuta, lanerako plan pertsonalizatua egin beharko da. Beharrezkoa izango da ikuspegi global batetik baloratzea ikaskuntza-prozesuen garapenean eragina izango duten hainbat elementu. Azken batean, komunikazio- eta hezkuntza-erantzun pertsonalizatu bat eman beharko da, kasu askotan diziplina anitzeko arreta eskatuko duena.



#### C. Familia ezinbesteko elementua hezkuntza-erantzunean.

- Familia aldagai zentral modura:

Garrantzizkoa da kontuan izatea familiak bizipen oso desberdinak sortzen dituela pertsonarengan. Familia-ingurunearen jarrera eta gurasoen eta ondorengoaren arteko komunikazioaren kalitatea eragin handiko bi faktore dira entzumen-desgaitasuna duten ikasleen bilakaeran.

Faktore baldintzatzailleetako bat estresa da. Teorian, seme edo alabaren entzumen-galerak eragiten dituen alterazioek eragina dute familia-sistemaren funtzionamenduan, eta, ondorioz, baita entzumen-desgaitasuna duen haurraren garapenean ere. Hala ere, eragin txar hori asko arindu lezake estresaren ondoriozko harreman negatiboak hobetuko dituzten faktore babesleen presentziak: familiaren jarrera, sinesmenak, familia-sistemaren barneko eta kanpoko baliabideak eta gizarte-laguntzaren kalitatea. Faktore horiek guztiek lagundu diezaiekete familiei egoerari arrakastaz aurre egiten eta, era berean, haurraren emaitzetan eragiten.<sup>14</sup>

- Familiaren onarpen-prozesua.

Guraso 'entzuleak' gorreria diagnostikatu zaion alaba edo semearen beharrian berrietara egokitzeko prozesua ez da bat-bateko zerbait. Korritu beharko duen ibilbide horren bitartez, familiak, sistema gisa, egoerara egokitzen ikasiko du, estrategiak sortzen, batez ere alaba edo seme horrekin elkar eragiteko orduan.

Ikerketa askok egiaztatu dute gurasoek seme-alabekin izan ohi duten portaera intuitiboetan aldaketak egon daitezkeela senitarteko edo hurbilekoengan, seme-alabei esperientzia aberasgarriak emateko gaitasunari eta trebetasunari buruzko nahasmendua edo zalantzak

<sup>14</sup>Bonals, J; Sánchez-Cano, M. (Koord.) (2007): *Manual de asesoramiento psicopedagógico*. Bartzelona. Graó argitaletxea.

sortzen diren kasuetan. Puntu honetan, Arreta Goiztiarraren papera eta profesionalena ez dago inola ere dudan jartzerik. Funtsezkoa da gorreria onartzea eta, beraz, entzumen-desgaitasuna duen haurrak zer behar duen ohartzeko bidean aurrera egiteko gaitasuna izatea.

Haurtxoaren entzumen-desgaitasunaren ondoriozko egoera berrietara egokitzea desberdina da gurasoa, haurra bezala, gorra denean edo «entzulea» denean. Lehenengo kasua «diada homogeenoa» gisa ezagutzen da, eta bigarrena, «diada heterogeenoa» modura. Horrela, kasu gehienetan, guraso gorrek berez erabiltzen dituzte era goiztiarrean eta eraginkortasunez komunikatzeko hainbat ikusmen- eta ukimen-estrategia; alabaren edo semearen entzumen-estatusa ez duten familiek, berriz, laguntza behar izaten dute estrategia horiek erabiltzen ikasteko (Traci eta Sanford, 2003<sup>15</sup>)

Fernandez-Mostazak<sup>16</sup> dioten bezala, prozesua, neurri handi batean, honako hauen mende egongo da: familiek jasotzen duten hasierako informazioa, familiaren kultura-baliabideak, haien jatorria, eta lau eremu nagusietan –klinikoa, birgaitzailea, hezkuntzakoa eta kulturala– inplikaturik dauden beste eragile sozializatzaileen jarduketak.

Diagnostikoaren ostean, informazioa zenbat eta lehenagokoa eta koordinatuagoa izan, hobea izango da «gorreria» terminoaren inguruko eraikuntza. Pertsona gorren kolektiboa ezagutzeko mekanismoak aktibatzea ere ahalbidetuko du. Haur horien hezkuntzan badira beste eragile sozializatzaile batzuk ere, hala nola ikastetxeak eta parekoen taldea.

---

<sup>15</sup>TRACI, M.; SANFORD, L. (2003): «Parents-Infant Interactions. A Transactional Approach to Understanding the Development of Deaf Infants», en MARSCHARK, M.; SEPENCER, P. E. (2003): *Oxford Handbook of Deaf Studies, Language and Education*. New York. Oxford University Press Inc.

<sup>16</sup>FERNÁNDEZ-MOSTAZA, Esther (2003): «El proceso de resocialización de los padres oyentes con hijos sordos». *C & E Cultura y Educación*. 15 - 2 bol., 149 - 164. or. Fundación Infancia y Aprendizaje.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Azpimarratzekoa da haur gorren % 10 inguru guraso gorren familietan sortzen direla. Gainerako familiak «entzuleak» dira, eta, beraz, ez da oso gertagarria gorrekin aurrez harreman sozialak izatea.

Kalitateko eta ongi egituratutako informaziotik abiatu eta erabakiak hartzea une kritikoa izaten da. Alde batetik, ondorengoa oraindik oso txikia denean gertatzen delako eta, aldi berean, familia horiek aurrez ezagutzen ez zuten arazo bati ziurgabetasunez aurre egiten ari direlako. Bestalde, oro har, ez dira diagnostikoaren inpaktua behar bezala dimentsionatzeko baldintza onenetan egoten, ez seme-alabei, ez familia-bizitzari begira.<sup>17</sup>

Badira, entzumen-galeraren pertzepzioan eta erreakzioan eragiten duten beste alderdi batzuk ere: familia-egitura hedatua, haurrideak izatea edo ez, jaiotza-hurrenkeran zer toki hartzen duten ...

- Familiari lagun-egite profesionala ematearen prozesua:

Familia-sistemari lagun egiteko prozesu horretan, hainbat instituzio -osasungintza, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak- eta erakunde -adibidez, elkarte-mugimendua- daude inplikaturik. Familiaren modelatze-prozesuan parte hartzen duten instituzio eta erakunde horietatik guztietatik igortzen diren mezuek koherenteak eta globalak izan behar dute.

Mezu partzial eta eboluzio-ibilbide laburrekoak baliagarriak izan daitezke oinazealdi puntual batzuk baretzeko, baina, epe luzera, ondorio negatiboak ekar ditzakete, gorreria duen pertsonari eta haren familiari frustrazioa ekar diezaiaketen neurrian. Bilakaera globalaren perspektibak lagungarriak dira itxaropen doituagoak sortzeko.

<sup>17</sup>Ruth Kazez, Gabriela Melloni, David Maldavsky: «Estudio del discurso de madres oyentes de hijos sordos. Detección de diferentes momentos luego de haber sido informadas acerca del diagnóstico». *Subjetividad y Procesos Cognitivos*, 18. bol., 1. zk., 2014 157-175 or.

Erdietsi nahi den helburua lortzeko, funtsezkoa da lantaldeak koordinatzea eta arreta global eta progresiboko irizpide bakar bati eustea, bizi-ibilbidearen jarraipena egiteko.

Familiarekiko lehen elkarrekintzak errespetuan, konfiantzan eta amultsutasunean oinarritutako harremanak eta komunikazioa ezartzera bideratu beharko dira. Profesional gisa, familia bakoitzak bere historia duela ikusiko dugu, eta horrek baldintzatuko duela nola aurre egiten dioten beren hezkuntza-zereginari.

Hezkuntza-prozesu osoan, oso komenigarria da familiaren presentzia eta inplikazioa, ikasgelako testuingurua gainditu egiten baitu hezkuntza-ekintzak.

- Komunikazio-plangintzarako prozesua:

Beharrezkoa da familiei azaltzea zer konplikazio dituen komunikazio-koderik ez izateak gorreria duen haurra hitz-aurreko elkarrizketa batean murgildu ahal izateko, eta, ondoren, benetako hizkuntza-interakzioetan. Horretarako, hainbat metodotan oinarritutako komunikazio- eta hizkuntza-plangintza bat ezarri behar da.

Bai zeinu-hizkuntza eta bai hizkuntza mintzatuak tresna osagarriak dira, eta beren funtzioak, kasu askotan, desberdinak izaten dira.

Hainbat ikerketatan islatuta geratu da guraso entzuleek nolako zailtasunak dituzten beren seme-alaba gorren komunikazio-ahaleginak identifikatzeko; horrek gurasoen komunikazio-estiloa baldintzatzen du, eta zuzenkiago eragiten saiatzen dira, intentzio-komunikazio bat bilatu nahian.

Horregatik, laguntza emateak eta plangintza batek, non jasoko baitira bai komunikazio-asmoak eta bai erabili beharreko baliabideak eta estrategiak, haurren oraina eta etorkizuna erraztuko dituzte, eta egonkortasun emozionala eta beren buruekiko konfiantza ere bai.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Hori lagungarri izango da komunikazio eraginkorrerako eta hizkuntza idatzirako, dagokion unean. Halaber, jarraikitasuna eta plangintza estrategikoa eskatzen ditu baliabideen erabileran, komunikazio-kalitatea hobetzeko eta beste hizkuntza-kode batzuk ulertzeko eta eskuratzeko.

## 3.2. Entzumena galtzearen ondorio orokorrak pertsonaren garapenean

Argi utzi nahi dugu apartatu honen garapenean ez dela entzumen-galera duen norbaiten errealitate pertsonalizatua islatzea bilatzen; aldiz, entzumenak pertsonaren garapen integralean duen garrantzia nabarmendu nahi da.

Garrantzi handikoa da entzumen-galerak pertsonaren garapen globalean eragin ditzakeen inplikazio larrien kontzientzia izatea, batez ere, ikusezintzat hartua izan den desgaitasun honetan, hautematen oso zailak baitira, itxuraz, bere ondorioak. Entzumen-urritasunak pertsonaren garapen osoan du eragina, garrantzi handiko hainbat arlo ukitzen baititu: komunikazioa, hizkuntza, sozializazioa, prozesu kognitiboak eta memoria. Aurrerapen akademikoan eragina du, eta nabarmen mugatzen ditu eskola-adinean dauden ikasleak.

### 3.2.1. Entzumena pertsonaren garapenean. Ondorio orokorrak

Norbanakoaren etengabeko harremana ingurunearekin

Entzuteak etengabeko harremana ezartzen du norbanakoaren eta ingurunearen artean; horregatik, beti daki inguruan zer gertatzen den eta, beraz, erantzun bat planifikatu edo sor dezake. Horrela, bada, segurtasun-sentsazio bat eragiten du pertsonarengan.

Entzumen-funtzioari esker, etengabe egon gaitetzke errealitatearekin harremanetan, eta errealitatea aztertzeko, ulertzeko eta hautemateko modua eskaintzen digu. Lo gauden bitartean ere, pertsonok gure egoeraz jabetzen laguntzen digun alerta-funtzio bat edukitzen dugu abian.

Entzumena galtzea inguruan gertatzen denaren kontrola eta ezagutza galtzea da, beste estimulu batzuekin ordeztan ez diren estimuluak desagertzen baitira. Hitz gutxitan esateko, entzumen-urritasunak ingurunearekiko ezagutza eta harreman-aukerak oztopatzen ditu.

Gorreriak informazioaz jabetzea oztopatzen du, eta ikasleei beren esperientziatik ahalik eta etekin handiena ateratzea eragozten die. Informazio gutxiago eta esperientzia laburragoa izateak, ia beti, inguruko gertaerekiko jakin-mina eta motibazioa galtzea dakar, bai eta gertaeren kausa eta zergatiaz interesatzeko ere. Ondorioz, inguruan duten munduari buruzko ezagutza apalagoa izango da «entzuleena» baino.

Esperientzia eta informazio berrietara sarbidea izateko aukera

Entzuten diren zarata, soinu, berbalizazio edo adierazpen batzuek gure arreta erakartzen dute, eta aztertzerak, ikertzerak edo galdetzerak eramaten gaituzte. Entzuteak jakin-mina pizten du, eta esperientzia eta informazio berriak eskuratzeko aukera ematen du. Entzundakoaren bitartez, zer gertatuko den aurreratu daiteke, edo zer gertatu den ondoriozta daiteke, zarata bati esker, ahots-tonuari esker edo entzumenaren bidez iristen den ahozko adierazpen bati esker. Belarriak geroxeago ikusmenak berretsiko duen esperientzia aurreratzen du. Adibidez, esnatzean euri-hotsa entzuten badugu, errealitate meteorologikoaz jabetu eta badakigu zer arropa eta oinetako jantzi; pauso batzuen soinuak pertsona baten etorrera iragartzen du, eta ahotsa entzutean nor den ezagutzeko aukera dugu.

Entzumenak informazio berriak etengabe jasotzea ahalbidetzen du; pertsonaren inguruneari buruzko ohartarazpenak etenik gabe eskaintzen dituen urrutiko zentzumena da; informazio-iturririk garrantzizkoena pertsonarentzat.

Entzumenaren bitartez, norbanakoak ingurua kontrolatzen eta konfiguratzeko du. Entzumen-galera dela eta, pertsonaren arreta erakartzen duten soinu, zarata, ahots-tonu, adierazpen eta abarren kopurua txikiagoa izango da.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Azaldutako guztiak pertsona gorra jasotzen duen informazioa zalantzan jartzera eta birplanteatzera bultzatzen du.

#### Hizkuntzaren garapena

Entzumenaren bitartez, haurrak inguruko pertsonekin izaten dituen ahozko elkarrizketen bidez garatzen du ahozko hizkuntza. Haurrak hitz egitean, esaten duena eta esaten diotena entzuten duenez, helduak eskaintzen dion eredu zuzenaren arabera egokitzen ditu bere ahoskera eta hizkuntza.

Poliki-poliki, hitz batek esanahi bat baino gehiago izan dezakeela jabetzen da, eta zenbait adierazpide erreferentzia literalik gabe erabil daitezkeela ikusten du. Hitzen esanahiez gainera, ohartzen da haiek nola artikulatzen diren eta zer hurrenkeratan jarri behar diren perpausak osatzeko, eta haurrak ulertzen du elkarrizketa batean hitzei ematen zaizkien zentzuek esanahi desberdinak izan ditzaketela.

Horrela, entzumenaren bitartez, hizketaren erregistroak ikasten dituzte, eta hizketakideen, testuinguruen eta intentzioaren arabera erabiltzen dituzte. Deskribatutako prozesu horretan entzuteko zailtasunak edo ezintasuna sortzen badira, ez dago atzera-elikadura edo feedbackik. Ondorioz, eraginak izango ditu mintzamenaren garapen «normalean».

#### Goi funtzio kognitiboaren garapena eta garapen sozio-emozionala

Mintzaira goi-mailako funtzio kognitiboak garatzen dituen tresna da (pertzepzioa, arreta, memoria, hizkuntza, pentsamendu kontzientea, ekintza zuzenduak, sentimenduak eta adimena), eta hazkunde emozionala eta gizarteratzea errazten ditu. Mintzairaren bitartez, helduek irakatsi eta hezi egiten dute, eta haurrek ikaskuntzan parte hartzen dute, beren kideekin ideiak eta esperientziak erkatuz.

Haurrak bere inguruneari etengabe entzutearen bitartez egiten du aurrera ahozko hizkuntzan, bizitzako lehen unetik hasita. Inguruneak estimulatzen egiten du hitz eginez eta soinu-

informazioa eskainiz, eta, aldi berean, adieraztera animatzen du, entzuna sentiarazten duen neurrian. Ondorioz, errealitatearen eremu kognitiboa zabaldu egiten da horrela.

Entzumen-desgaitasuna duen pertsona baten hazkunde emozionalari dagokionez, bere adineko eta normal entzuten duten pertsonetikiko harremanak konplexuagoak dira, hizkuntzaren garapenaren mugek zaildu egiten baitute harreman hori. Komunikazio-zailtasunek frustrazio-erreakzioa eragiten dute askotan, eta horrek, denboran zehar, eragina izaten du pertsona horien nortasunean. Horregatik, beharrezkoa da interakzioekin eta ezagutzarekin lotutako informazioa planifikatzea, bai entzuten duten pertsonen errealitatea kontuan hartuta eta bai entzumen-desgaitasuna dutenen kasuan.

Entzumen-desgaitasuna duten pertsona askok desgaitasun bera duten beste batzuekin gizarte-harremanak izateko joera dute; azkenik, antzeko pertsonekin erlazionatzea da bilatzen dutena. Tankera horretako elkarrekintzak esplikatzen dituen arrazoia ez da 'entzuleen' munduarekiko jarrera negatiboa izatea, baizik eta, batzuetan, komunikazio-kode berean (zeinu-hizkuntza), pertsona analogoekin elkartu eta hitz egiteko desio positiboa, edo informazioa trukatzeko gogoia, aisialdian esperientzia erkideak partekatzen dituztela.

### 3.2.2. Ikusmenak ez du entzumena ordeztzen

#### Zentzumen-ordezkatzarako ezintasuna

Entzumen-galera duen pertsona baten kasuan, zentzumen-estimuluek (ikusmen-, ukimen-, usaimen-estimuluak, entzuten duen batengan neutroak izan ohi direnak) esanahia hartzen dute. Adibidez, zorutik jasotzen diren dardara-ukimen sentsazioek pertsona baten etorrera edo hurbilketa iragar dezakete; gortinen mugimendu bat, irekitzen den ate bat...

Nahiz eta ikusmena garrantzi handiko printzipio gisa aitortzen den entzumen-desgaitasuna duten haurrak esperientziara iritsi ahal izateko, inoiz ez da gertatzen *zentzumen-ordezkatza* esaten zaiona.



### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Entzumen-galerak eragin ikaragarria du norbanakoaren garapen kognitiboan, zaildu egiten baitu informazioaren zati bat, soinu-estimuluen bidez transmititzen dena, sartzea. Hori dela eta, zailtasunak izaten dituzte soinu-ingurunean sortutako informazioa hautemateko, eta, beraz, nahitaezkoa zaie entzumen-bidea ikusmen-bidearekin osatzea. Horrela, zenbat eta entzumen-galera handiagoa izan, orduan eta ikus-informazio gehiago erabiliko da, eta eragin handiagoa izango du ahozko hizkuntzak ikasteko.

Ikus-esperientzia lagungarri da ezpain-aurpegi irakurketa garatzen laguntzeko, eta ahozko zein idatzizko hizkuntza-informazioa osatzeko balio du. Horrek entzumen-informazioa osatzen du: alde batetik, artikulazio-puntuari buruzko informazioa ematen du, eta, bestetik, hitzezko adierazpenaren karga emozionala jakinarazten du. Hala ere, sostengu-sistema hori ez da nahikoa soinu-pertzepzioaren mailara iristeko.

Egia esan, ez entzuteak edo zailtasunekin entzuteak inguruan gertatzen denaren gaineko kontrolik eza dakar, eta nahigabea eta segurtasun gabezia eragiten ditu, beste zentzumen-bide batzuekin konpentsatzen saiatzen bada ere. Hala ere, ikusmen-bidetik ez da posible informazio guztia jasotzea, eta, beraz, gorreria duen pertsona benetan «desabantailan» dagoela sentitzen da -eta hala dago- entzumena duenarekiko.

Ikusmenak ez du gertatzen denarekin etengabeko harremana bermatzen, estatikoa eta puntuala baita. Entzumena, aldiz, bistan ez dagoenaz ohartzen da, kasu askotan. Ikusmena eta entzumena lagungarri dira espazio/denbora garapen normal baterako eta norberaren autonomiaren hazkunderako.

#### Ixteko mekanismoak

Entzumena da, distantziako bi zentzumenen artean, ingurunearekin etengabe harremanetan mantentzen gaituen bakarra.

Entzumenean ez dago ixteko mekanismorik, hau da, ez daukagu entzuteari uzteko modurik, ikusmenarekin ez bezala, non

aukera hori eskura baitugu. Esango genuke zainketa-egoeran mantentzen gaituen zentzumena dela, bai eta lo gaudenean ere.

Bestalde, entzumena beti abian dagoen bitartekoa da: orainaldiko eta urrutiko gauzei buruzko informazioa jasotzen du, haietan interesa eduki edo ez.

### Estimuluaren presentzia

Entzumenarentzat, ez da beharrezkoa soinua eragiten duen estimuluaren presentzia; ikusmenaren kasuan ez bezala, hemen beharrezkoa baita presentzia hori. Eskuarki, entzumenetik informazio bat sartzen zaigu eta, gerora, ikusi egiten dugu. Etenik gabe eta norabide guztietan irekita dagoen zentzumena da.

### Espazio-zentzua vs denbora-zentzua

Ikusmenak espazio-koordinatuak ematen ditu, eta estimuluen kokapena jakinarazten digu, baita informazioa nondik datorkigun ere. Entzumena, aldiz, denboran kokatutako zentzumena da; estimuluek, hain zuzen ere, gertatzen diren denbora-hurrenkeran hartzen baitute zentzua.

Denbora- edo espazio-ezaugarriak -zentzumen bakoitzak berezkoa duena- hizkuntza mintzatuen (entzumen-pertzepzioa) eta zeinu-hizkuntzen (ikus-pertzepzioa) idiosinkrasia baldintzatzen du, haien egituraketak errotik desberdinak baitira.

### Arreta banatua

Entzumen-desgaitasuna duen pertsona batek sostengu-produktuen bidez entzumen-onura handiak lortzen ez dituenean, ezinezkoa gertatzen da komunikazioa eta esperientzia aldi berean bateratzea. Horregatik, sekuentzia modura, noiz, non eta zeri begiratu ikasi beharko du, nahitaez.

Egoera hori hezkuntza-esparrura eramanik, pertsona horrek, beste adibide batzuen artean, ezingo du oharririk hartu irakaslearen hitzezko mezua zeinu-hizkuntzako

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

interpretazioaren bidez ulertzen saiatzen den bitartean, ez eta ezpainak aldi berean irakurri ere.

#### Distantziako esperientziara iristeko zentzumenen artean dauden aldeak: ikusmena eta entzumenak

Ikusmena	Entzumenak
<p><b>Norabide jakin batekoa:</b> Beharrezkoa da buruaren aurrealdea norabait destatzea.</p> <p><b>Eten egiten da.</b></p> <p><b>Ixteko «defentsak» mekanismoak ditu.</b></p> <p><b>Lehen planoekin lan egiten du,</b> gehienetan, entzumenak jada identifikatutako esperientzia fokuratzen baitu.</p> <p><b>Espazio-zentzua.</b></p>	<p><b>Norabide anitzekoa.</b></p> <p><b>Etengabea:</b> Baita lo gaudela ere.</p> <p><b>Ez du ixteko mekanismo naturalik.</b></p> <p><b>Zaintza-papera.</b></p> <p><b>Hondoko planoekin lan egiten du.</b> Baliteke «ohikotasuna» deitzen zaion prozesu bat gertatzea.</p> <p><b>Denbora-zentzua, baina baita espaziala ere.</b></p>

#### 3.2.3. Entzumen-galeraren ondorioak hizkuntza eta inguruko esperientzia bereganatzeko

Entzumen-zailtasunak oztopatu edo urritu egiten du ahozko hizkuntza bide naturaletik eskuratzea, hau da, ingurunearekiko elkarrekin eskasagoak badira, baita esperientzien kantitatea eta kalitatea ere. Inplikazio horiek, beren artean txirikordaturik, izaki zaugarri egiten dute gorreria duen pertsona.

Vygotskyk (1981) planteatutakoaren ildotik, pentsamenduaren eta hizkuntzaren artean elkar mendekotasun dialektiko konplexua dago: hizkuntza pentsamendu izatera iristen da, eta pentsamendua hizkuntza bilakatzen. Hizkuntzak gizarte-

komunikazioari dagokion funtzioa betetzen du hasieran, eta aurrerago barneratu egiten du norbanakoak, jarduera intelektuala zuzentzeko eta antolatzeko. Era berean, lengoaiak balio du norberaren esperientzia soziala kategorizatzeke eta forma emateko ere, hartatik urrunduz ahal izateko. Horren ondorioz, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen garapen kognitiboa kaltetua gertatzen da komunikazio-kode erabilgarri batez jabetzeko zailtasunagatik eta aurre egin beharreko esperientziak kategorizatzeke arazoengatik.

Hizkuntza bereganatzea arriskuan egoten da, baldin eta gorreria duen haurrak ez badu bere entzumen-galera sostengu-produktuekin konpentsatzen, bere bokalizazioak entzuten ez baditu, eta helduen ahozko adierazpenak imitatu ezin baditu -entzuten ez dituelako-. Halaxe da, entzute-artikulazio erlazioa funtsezkoa da hizkuntza-trebetasunak eratzeko orduan. Mintzamenaren entzumen-pertzepzioak egiten du posible ahozko emisioen auto-kontrola, eta berorien jarraikitasuna eta gogoan jasotzea errazten du. Mintzamenaren pertzepzioa akastuna denean, asko ahultzen da edo larriki kaltetzen da hizkuntzaren ikaskuntza. Era mugatuan menderatuko du hizkuntza, eta errazago ahaztuko du ikasitakoa, ikasten dituen hitzen eta hizkuntza-erabileraren entzumen-esposizio jarraiturik ez duen neurrian. Ikaskuntza-erritmo motela izango du.

Halaber, hizkuntzak garrantzi handia du arauak barneratzeko, norberaren jokabidea kontrolatzeko eta ekintzak planifikatzeko orduan.

Horri dagokionez, ingurunearen erantzunak ere baitezpadako rola jokatzen du. Haur horiekin komunikatzeko zailtasunen ondorioz, helduak oso kontrolatzaileak bihurtzen dira, sarritan, informazioa transmititzerakoan. Elkarrekintza gehienak galdera itxi batzuetara eta balio semantiko eskaseko hiztegi batera mugatzen dira, eta horrek, jakina, ez du errazten gortasuna duen norbanakoaren hizkuntza-aberastasuna. Komunikazio-zailtasunak direla eta, inguruneak laxoago jokatzeke joera izaten du, eta haurrak, berriz, apetazko erreakzioak izateko, hau da, frustrazioarekiko tolerantzia apala izateko arriskua du.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Hala ere, entzumen-desgaitasuna duen pertsona izateak ez du esan nahi, ezinbestean, gizartera egokitu ezingo denik. Komunikatzeko aukerak eta intentzioak badaude; zailtasunak ingurunearen hizkuntza-kodearekin sortzen dira.

#### 3.2.4. Entzumen-galeraren ondorioak gaitasun emozionalen eta sozialen garapenean

Gaitasun emozionala eta soziala hezkuntza-helburu gisa

Steiner-i<sup>18</sup> egotzen zaion «alfabetatze emozionalaren» kontzeptua honako hau litzateke: pertsonok gure emozioak ezagutzeko, ulertzeko, sozialki modu egokian adierazteko eta maneiatzeko dugun trebetasuna; halaber, bai eta besteek adierazitako emozioak ezagutzeko, ulertzeko eta haiei modu egokian erantzuteko duguna ere.

Irakurketa-alfabetatzearekin alderatzen badugu, emozionalki alfabetatutako pertsona bat gai da hainbat zeinu eta sinbolo irakurri edo deskodetzeko: zeinu fisiologikoak, aurpegi-adierazpenak eta komunikazioko eta pertsona arteko egoerak adierazten dituzten hitzik gabeko beste elementu batzuk. Baita egoeraren esanahiari buruzko hipotesiak sortzeko ere, hainbat motatako estrategiei esker.

Bai alfabetatze emozionala eta bai irakurtzea ahalbidetzen duena irakatsi egin daitezke, eta, kasu batzuetan, egokitu ere bai ikasle batzuen beharrizan espezifikoetara.

Bi alfabetatzeak plangintzan aurreikusitako hezkuntza-helburuak dira. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, material guztiak irakaskuntza intentzional bati begira kontzienteki sortuak izango dira. Ikasle 'entzuleek', beste gabe, interakzio bidezko ikaskuntzak egiten dituzten bitartean, beste kolektibo honenak plangintza arretatsua eskatzen du. Plangintza horren zergatia eta arrazoia da entzumen-desgaitasuna duten haurrek

<sup>18</sup>STEINER C. (2011): *Educación emocional*. Sevilla. Jeder argitaletxea.

partzialki baizik ez dutela informazioa eskuratzen. Halaxe da, ahots prosodiaren, kadentziaren eta erritmoaren bitartez emozioak eta gogo-aldarteak transmititzen dira. Eta azken horiek hitzen eta adierazpideen esanahia aldatzera iritsi daitezke. Baina informaziora dagoen sarbidea partziala bada, ikasle horiek ez dituzte egoera asko ulertuko (ez dituzte ulertuko ez intentzioak, ez eta besteen egoera emozionala ere). Era berean, oso azalpen gutxi jasotzen dituzte inguruko pertsonen portaeren motibazioen inguruan, haien pentsamenduari eta emozioei buruz. Gauza bera gertatzen da banakako zein taldeko jokabideak arautzen dituzten lege eta jarraibideak ezagutzearekin, bai eta jarduketa jakin batzuetatik erator daitezkeen ondorioekin ere.

Batzuetan, pertsona helduek, haur gorrarekin komunikatzeko ezintasunaren aurrean, saihesteko jarrerak hartzen dituzte edo ekintza fisikoak egiten saiatzen dira, arazoa konpontzeko asmotan. Horrek guztiak esan nahi du aukera gutxi dituztela beren kabuz ikasteko, eguneroko egoeretatik eta egoera horiek ebaztetik abiatuta.

Garapen sozialerako berebiziko garrantzia duen beste alderdi bat berdinekiko interakzioa da. Berorietan, gizarte-egoerei buruzko ikuspegi desberdin eta askotarikoekin moldatzen ikasten dute: negoziatzen, gatazkei irtenbideak bilatzen, enpatizatzen, hau da, behar diren gizarte-trebetasunak eskuratzen. Trebetasun horiek, gainera, askotan areagotu egiten dira komunikazio- eta hizkuntza-gaitasun urriagatik, eta, ondorioz, haur 'entzuleek' entzumen-desgaitasuna duten ikaskideekin gutxiago eta denbora gutxiagoz elkarreragiten dute.<sup>19</sup>

Horrela, bada, ez dago esaterik gorreria duten haurrek gizarte-gaitasun osoa lortzeko ezintasun espezifiko bat dutenik; aldiz, besteekin -berdinekin eta helduekin- elkarrekintzan aritzeko zailtasunak ematen dizkion hizkuntza-gaitasun murrizta eta ikaskuntza intzidentalak -berarengana kontzienteki zuzentzen ez direnak- bereganatzeko arazoak dira haien gizarte-garapenean eragin negatiboa duten elementuak.

<sup>19</sup>ANTIA, S.D.; KRIEMEYER (2003): «Peer Interactions of Deaf and Hard of Hearing Children», en MARSCHARK, M.; P.E.:(2003): *Oxford Handbook of Deaf Studies, Language and Education*. New York. Oxford University Press.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Ulergaitasun-egoerak eta interpretazio desegokiak behin eta berriro bizitzeak segurtasun eza, konfiantzarik eza eta inhibizioa eragiten ditu haien gizarte-harremanetan. Era berean, ezin izaten diete aurrea hartu ingurunean gertatzen diren aldaketei, ez eta haietara egokitu ere zailtasunik gabe.

Entzumen-desgaitasuna duten haurrak, egoera eta inguruabar askotan, beren ikaskideen edo pertsona helduen mende egoten dira, eta, ondorioz, sarritan, ez dira horren autonomoak agertzen, besteekiko mendekotasun handiagoa izaten dute. Batzuetan, jokabide menderatzailea izaten dute, segurtasun ezaren ondorioz.

Hizkuntzak zeregin garrantzitsua du jokabidearen barne-plangintzan eta -erregulazioan, eta, beraz, ohikoagoa da oldarkortasun handiagoa izatea.

#### Desgaitasunaren pertzepzio soziala eta banakakoa

Gutziz ezinbestekoa da gainerako pertsonak gortasunak eragiten duen desgaitasunaz eta gorrarengan dituen ondorioez konturatzea. Komenigarria da sentsibilizazio-egoerak planteatzea hezkuntza-erkidegoan: ikaskide berdinen artean, elkarren arteko ikaskuntza-egoeretan eta ikastetxeko profesionalen artean.

Gizarte mailan, elkarte-mugimenduaren presentzia oinarritzkoa da gorreria duen pertsonaren eredu normalizatuak zabaltzeko.

Desberdintasunari buruzko informazioa gela osoarekin lantzean, itxaropenak hobeto doitzea lortzen da, eta komunikazio-estrategiak eta -moduak sortzen dira. Bi premisa horiek dira, hain zuzen, ingurunea inklusibo egiten dutenak. Azken batean, gizarte-talde batzuetan eta besteetan parte-hartzea sustatzeko eta nortasun pertsonala garatzea ahalbidetzeko, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen eta ikasleen ezaugarri bereizgarriak eman behar dira ezagutzera (Antia eta Kreiemeyer, 2003<sup>20</sup>).

<sup>20</sup>ANTIA, S. D.; KRIEMEYER, K.H. (2003): «Peer Interactions of Deaf and Hard of Hearing Children», en MARSCHARK, M.; SPENCER, P.E.: (2003): *Oxford Handbook of Deaf Studies, Language and Education*. New York. Oxford University Press.

## Pertsonaren identifikaziorako zailtasuna

Abiapuntu gisa esango dugu dibertsitate funtzionala duten pertsoneri, beste edonori bezala, on egiten diela berdinekin harremanak izateak eta mantentzeak. Harreman horrek normaltasun-ainguratzeak ematen dizkio pertsonari eta inguruneari bere nortasuna garatzeko (entzumen) desgaitasuna duen pertsona gisa.

Horrela, bada, hezkuntza- edo elkarte-esparruan planifikatutako jardueren markoan, entzumen-desgaitasuna duten ikasleek posible ikusten dute bizi-esperientzia erkideak kontrastatzea -komunikazio-hizkuntza erkidea barne- gorreria duten beste ikaskide batzuekin.

Ikastetxeetan duten ikasle «entzuleekiko» harremana ikaskuntzarako eta jokabide-contrasterako eremu garrantzitsutzat jotzen da.

## Arrisku psiko-sozialak

Azken urteotan, gero eta interes handiagoa ikusten da entzumen-desgaitasuna duten haurren emozio-, afektibitate- eta elkarrekintza-alderdiei dagokienez<sup>21,22</sup>. Eta interes hori ez da soilik ikasleen kolektibo horretara mugatzen, baizik eta haur eta nerabeengana oro har (oinarrizko gaitasunen garapenean oinarritutako curriculumak esplizituki hartzen ditu barnean esparru emozionaleko gaitasunak). Ikasleengan gizarte-gaitasuna garatzeko hainbat eta hainbat programa agertu izanaren helburua, azken batean, auto-kontzeptu egokia lortzeaz gainera, nolabaiteko segurtasun-sentimendua eta gizarte-harreman egokiak ezartzeko gaitasuna eskuratzea da. Programa horiek, halaber, eskola-adineko ikaskuntza-prozesuak sostengatzen dituzte, bai eta helduaroko gizarteratze- eta laneratze-prozesuak ere.

<sup>21</sup>VALMASEDA, M. (2009): «La Alfabetización Emocional de los Alumnos sordos». *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*. RINACE. 3. bol., 1. zk.

<sup>22</sup>SUÁREZ RODRÍGUEZ, M. (2000): *Crecer con sordos. Programa para la Educación en la Competencia Social del Niño Sordo*. Santa Cruz Tenerifekoa. Arg. Resma.



### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Badirudi behar bezainbeste frogatuta daudela honako premisa hauek:

- UNorbanakoaren doitze pertsonal eta emozional on batek ikaste-prozesurako egoera hobean jartzen ditu ikasle guztiak.
- Gizarte-harremanei dagokienez, oso garrantzitsuak dira gizarte-trebetasun jakin batzuk garatzea, hala nola lankidetzan aritzeko gaitasuna, taldean lan egitekoa, gatazketan negoziatzekoa, eta abar.
- Adimen anizkoitzekin lotutako ikuspegi batetik, pertsona batek, adimentsua izateko, ikuspegi emozionaletik ere adimentsu izan behar du.
- Eta, azkenik, autoestimu sendo batek, autoezagutza emozionaloituak eta estres-egoerei aurre egiteko gaitasunak ongizate pertsonala erraztuko digute, eta garrantzi handikoak dira osasun mentalaren esparruan sor daitezkeen arazoak prebenitzeko.

Zentzu horretan, entzumen-zailtasunetatik ondorioztatzen den informazio-galerak hainbat harmonia falta sortzen ditu gortasuna duten haur eta gazte askoren nortasunaren garapenean, eta baliteke, berorien ondorioz, helduaroan desoreka emozional eta sozialak izatea.<sup>23</sup>

Iragan garaietako usteak bazterturik –nortasuneko ezaugarri espezifikoak egozten zitzaizkion norbanakoari gorreria izateagatik–, gaur badakigu ez dela horrela. Hala ere, haur eta gazte asko bizi dira, gaur egun, beren garapen mentala zalantzan jartzen duten faktore sozial eta psiko-patologikoen arriskupean.

Arrisku horietan eragina duten faktoreen artean, honako hauek aipa daitezke:

- esperientzia gutxiago eta kalitate eskasekoak;

<sup>23</sup>HINDLEY, P. (2000): «Child and adolescent psychiatry». Em O. Hindley y N. Kitson (Arg.): *Mental Health and Deafness*. London. Ed. Whurr Publishers.

- gain-babes fisikoa eta linguistikoa;
- ekintza modu interaktibo gisa erabiltzera bultzatzen duten komunikazio-zailtasunak;
- input eskasa hizkuntza emozionalean eta mentalistan.

### 3.3. Entzumen–desgaitasuna duen pertsonaren arretan inplikaturiko zerbitzuen erantzun integrala eta integratua

#### 3.3.1. Erantzun integrala eta integratua sostengatzen duten printzipioak

Instituzioen arteko lankidetza eta koordinazioa entzumen–desgaitasuna duen pertsonaren garapen osoan zehar

Gorreriak entzumen-desgaitasuna duen pertsonaren garapenean dituen inplikazioek –*gorreria* erreferente kliniko gisa, baina *desgaitasuna* erreferentzia sozial modura– esku-hartze globalak eskatzen dituzte hala haurarentzat nola haren familiarentzat. Hau da, diziplinar-teko orientazio-sare profesional baten arreta jaso behar dute.

Azken batean, diziplina anitzeko erantzun horrek (osasun, hezkuntza, gizarte eta elkarte arlokoa) arreta goiztiarraren oinarritzko printzipioari erantzuten dio, baina entzumen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-prozesuan zehar izan beharko du jarraipena.

Egia da, une jakin batzuetan, sistema batek besteekiko duen garrantzia gorabeheratsua izan daitekeela, baina sistema guztien lankidetza eta lan koordinatua ezinbestekoa izango da betiere. Hala, esate baterako, osasun-esparruko proposamen inplizituak gainerako sektoreek partekatu eta sostengatu beharko dituzte, eta alderantziz.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Arestian azaldutakoaren adibide bat da kokleako inplante bat jartzeko prozesuan parte hartzen duten profesionalen arteko diziplina anitzeko lana eta jarduketa koordinatua. Ebakuntza kirurgikoaren ondoren (osasun-sisteman), komunikazio-garapeneko eta ahozko gaikuntzako faseak etorriko dira arreta goiztiarreko zentro batean (Gizarte Zerbitzuen sisteman). Esandako etapa horien ostean, jarraipena eta orientazioa mantendu beharko dira eskolan, eta irakasle orokor eta/edo espezifikoek<sup>24</sup> (hezkuntza-sistemakoak) aktiboki hartu beharko dute parte. Gerta daiteke aipatutako zerbitzu eta profesional horien osagarritasun-aldi bat behar izatea ere. Beraz, sostengu-produktuak -hizketa-prozesadoreak (kokleako inplantea) eta audifonoak- ahalik eta gehien baliatzea, eta arreta ongi gauzatzea sistemek elkarrekin esku hartu beharreko zereginak dira.

Instituzioen artean koordinatutako erantzunera zuzendutako bilakaera

Instituzioen arteko arreta koordinatua (Hezkuntza, Osasuna, Elkarrekin eta Gizarte Zerbitzuak) ezinbestekoa da. Arreta horretan, adingabeei informazio kontrolatu eta interesekoa eskaintzea lagungarri izango da erantzun globalaren kalitatea hobetzeko.

Erreferentzia gisa, Premia Bereziak dituzten Haurrei Arreta Integratua emateko Prozesuaren markoan (PAINNE<sup>25</sup>) sare arteko prozesu bat garatu da Bizkaiko lurraldean entzumen-desgaitasuna duten pertsonen, arreta goiztiarraren barruan, erantzun koordinatua emateko (oraindik argitaratzeke).

Ikuspegi integralaren sostengua

Kontuan izatekoa da, bestalde, alderdi komunikatibo edo curriculum-akademikoez gainera, garapen emozionalaren perspektibari ere heldu behar zaiola. Ondorioz, gizarte-

<sup>24</sup>Hezkuntza-sistemak baditu Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI), eta horien eginkizunetako bat entzumen-desgaitasuna duten ikasleen ahozko gaikuntza da.

<sup>25</sup>PAINNE:[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/es\\_publici/adjuntos/PAINNE2013es.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/es_publici/adjuntos/PAINNE2013es.pdf).

hezkuntza azterketa bat egin beharko da bazterketa-arriskuak prebenitzeko xedez.

### 3.3.2. Zerbitzuak eta esku-hartzeak

#### Osasun-zerbitzuak

Osasun-zerbitzuen barruan ulertzen dira gorreria hautematearekin eta diagnostikoari lotutako zereginekin lotura duten osasungintzako langile guztiek emandakoak; egon daitezkeen esku-hartze medikoak (kirurgikoak, terapeutikoak, gaikuntza arlokoak...), bai eta pertsonaren entzumen-hondarrak hobeto baliatzeko sostengu-produktuak zehaztearekin lotutako eginkizunak ere.

Hipoakusiaren Detekziorako Batzordea (CODEPEH) 1995ean sortu zen Espainian, hipoakusia goiz hautemateko programak sustatu eta bultzatzeko xedearekin. Nolanahi ere, 2003. urtera arte ez zen adostasunik lortu programa horiek nazio mailan ezartzeko oinarritzko edukiei buruz. Urte horretan bertan, Osasun eta Kontsumo Ministerioak eta autonomia-erkidegoek -gure kasuan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak- Espainian Hipoakusia Goiz Hautemateko Plan Nazionala onartu zuten. Ordutik hona, agerikoa izan da entzumen-galerak hautemateko estatu mailako programen garapena, aurreikusi baitzuten 2010. urtearen amaierarako autonomia-erkidego guztiek abian izango zutela zeinek berea (Trinidad-Ramos, 2010<sup>26</sup>). Jaioberrien entzumen-baheketa (hautemate goiztiarra) ezarri ostean, behin diagnostiko goiztiar hori egin ondoren, benetako garrantzia hartzen du, batetik, familiei informazio-transmisio egoki eta koordinatua egiteak, eta, bestetik, gaikuntza-baliabideak epe laburrean martxan jartzeak.

Gorreria-diagnostiko baten inpaktua hain da handia familia-ingurune 'entzule' baten baitan, ezen komeni baita osasun-

<sup>26</sup>TRINIDAD-RAMOS, G.; ALZINA DE AGUILAR, V.; JAÚDENES-CAUSABÓ, M.C.; NÚÑEZ-BATALLA, SEQUÍ, F. (2010). «Recomendaciones de la Comisión para la Detección Precoz de la Hipoacusia (CODEPEH) para 2010». Acta Otorrinolaringológica Española, 61 (1): 69-77 or.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

zerbitzuek inplikaturako gainerako zerbitzuetara bideratzea. Zerbitzu horiek, elkarte-mugimenduarekin batera, haur gorraren garapena erraztuko duten asimilazio- eta komunikazio-prozesuak hobetzen lagunduko dute. Komeni den sostengu-produktu egokiari buruzko erabakia hartu eta esku-hartzea egin ondoren, are garrantzitsuagoa izango da arretan inplikaturako zerbitzuen arteko koordinazioa.

#### Gizarte-zerbitzuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunaren, Hezkuntzaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetan Arreta Goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeke eta koordinatzeke oinarritzko arauak ezartzea da Eusko Jaurlaritzaren asmoa, betiere, eredu integral eta eraginkor bat bermatzeko helburuarekin<sup>27</sup>.

Gaur egun, ebidentzia zientifikoak agerian utzi du zenbait nahasmendu saihestu daitezkeela, beste batzuk erabat edo partzialki zuzen daitezkeela, eta horietako gehienen ondorio negatiboak gaiari behar bezala ekinez arin daitezkeela, eta zenbat eta lehenago ekin orduan eta eraginkorragoa izango dela esku-hartzea. Afektazio handieneko egoeretan ere, lagun egite profesional espezializatuak hainbat desoreka agertzea prebenitzen du, haurren eta haien familien ongizatea hobetzen du, eta autonomia maila, parte-hartze aktiboa eta gizarteratze maila hobetzen ditu.

Lagun egite profesional hori Arreta Goiztiarrean kokatua dago, eta honela definitzen da: 0 eta 6 urte bitarteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa. Berorien helburua da garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren beharrian iragankor edo iraunkorreki ahalik eta azkarren aurrea hartzea eta erantzutea.

Gizarte-zerbitzuek lantzen dituzten beste alderdi batzuk hauek dira: desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioak erraztea, eta lan-mundura, etxebizitzara, aisialdiaren eta denbora librearen garapenera irisgarritasuna erraztea... bai dirulaguntza

<sup>27</sup>3/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa

planteamenduetatik –jardueretan integratzeko–, bai ingurunea egokitzearen bidez. Oztopoak kentze horiek –komunikazioaren arlokoak, kasu honetan–, zerbitzu guztietatik eta eremu guztietan kontuan hartu eta gauzatu beharrekoak dira, zeinu-hizkuntzako interpreteak erabiliz, entzumen-estimuluak bisual bihurtuz, etab.<sup>28</sup>

Azken urteotan zehar, Zeinu-hizkuntzako Interpretazio Zerbitzua (ZHIZ) Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Sailak babestu du eta dirulaguntzak bideratzen dizkio, eta Pertsona Gorren Elkarteen Federazioak (Euskal Gorrak) kudeatzen du.

Zerbitzu horren bidez, beraz, komunikazio-hizkuntza gisa zeinu-hizkuntza duten pertsona gorrek zerbitzu guztietara hel daitezke, horietan guztietan aurki ditzaketen komunikazio-hesiak arintzearen bitartez. Egiatzatzekoa da zerbitzuaren egungo prekaritatea, adibidez, ordutegi jakin batera mugatzen baita; gainera, ez dago larrialdi-zerbitzuetarako aukerarik.

Aipatutako baliabide horren bidez lortu nahi izan da zeinu-hizkuntzan mintzatzen direnek osasun- eta gizarte-zerbitzuak eta gainerakoak eskuratzea, bestela zailtasunak izango bailituzkete horretarako. Hala ere, prestazioen zeharkakotasun-printzipioak funtsezko elementua izan beharko luke zerbitzu hori garatu eta gauzatzeko.

Ez dirudi logikaren araberakoa zeinu-hizkuntzako interpretazio-zerbitzua babesteaz eta diruz laguntzeaz arduratzen direnak gizarte-zerbitzuak izatea, edozein egoeratan. Adibidez, osasun-zerbitzuak arduratu behar lirateke beren kontsultetan informazioa eskuratzeko erraztasunak emateaz, edota banku-erakundeak izan behar lukete beren produktuen salmentan edo transmisioan komunikazio-irisgarritasuna bermatzen dutenak, interpretazio-egintza edonork egiten duela ere.

Laburbilduz, informaziorako irisgarritasuna herritarren eskubidea da, eta zerbitzu guztiek bermatu behar lukete, Gizarte Zerbitzuen Sailaren egiteko eskusiboa izan gabe.

<sup>28</sup>68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

- Lan-ingurunea

Lan-esparruari dagokionez, irizten diogu bidezkoa dela entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-erraztasunak eskatzea; pertsona horiek dituzten gaitasunengatik baloratu behar dira, eta ez entzumen-galeraren ondoriozko mugengatik.

Horretarako, norberaren aukeren arabera, lan arloan garapen pertsonal egokia lortzeko, komenigarria da entzumen-galerari atxikitako komunikazio-oztopoak arintzeko behar diren egokitzapenak egitea, bai eta lan-garapenari lotutako prestakuntza-prozesuetan parte hartzeko eragozpenak gainditzeko ere (etengabeko prestakuntza, eskaintza partziala, sistema duala...).

#### Elkarte-mugimenduaren zerbitzuak

Gero eta gehiago nabarmentzen da elkarteek -bai gorreria duten pertsonen familienak eta bai pertsona gor helduek eratuak-betetzen duten egitekoa populazioko gutxiengo horren bizitzan sortzen diren beharrezko erantzuna ematen dieten neurrian.

Elkarte horien ezaugarri bat da garapen pertsonala sustatzen dela elkarren laguntzan, nork bere buruari laguntzean eta, aukera-berdintasunaren alde, kolektiboaren interesak defendatzen direnean.

Bai egiten zaien harrera, eta bai erabakiak hartzeko orduan eskaintzen zaien orientazioa eta sostengua funtsezkoak dira familientzat, gorreria hauteman den lehen unetik hasita.

Egoera ezagutzea, beste familia batzuekin partekatzea eta profesionalen aholkuak jasotzea ahalbidetzen dute elkarteek, azken batean, partaide ordezkariak baitira gorreria duen haurren eta haren ingurunearen hezkuntza-garapeneko prozesu osoan.

Elkarteek betetzen dituzten eginkizunen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Gorreria duten pertsonen eta haien familien arteko harremana sustatzea, erlazioetarako eta identifikazio pertsonalean laguntzeko aisiarako espazioak eta denborak sortuz;
- Bizitokizat duten mundua ulertzea errazten duten beste harreman batzuk garatzea, berorretan duten tokia argitzen lagunduz;
- Pertsona gorrek gizarte-bizitzan duten parte-hartzea hobetzeko kontrolean zerbitzu eta instituzioekin lankidetzan aritzea;
- Bai elkarteko bazkideei eta bai gainerako zerbitzuei aholkuak ematea.

### 3.3.3. Arreta goiztiarra

Honela definitzen da Arreta Goiztiarra: 0-6 urteko hurrei, beren familiei eta inguruneari zuzendutako laguntza profesionala eta esku-hartzeen multzoa. Arreta Goiztiarraren helburua, Dekretuak adierazten duenari jarraikiz, garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren beharrian iragankor edo iraunkorrak prebenitzea eta premia horiei ahalik eta azkarren erantzutea da.

Halako arretaren hartzaille izango diren haurren adina zehazteko orduan, Arreta Goiztiarraren Liburu Zurian jasotako adina hartuko da kontuan, Autonomia Erkidegoak ezar dezakeen babes-maila gehigarriarekin bat etorrita, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 7.3 artikulua araber.

Garapenaren nahasmenduak aurpegi askotakoak eta, sarritan, konbinatuak izaten direnez, arreta osoa eta egokia izango bada, aurrera eraman beharreko esku-hartzeek haurra globalki hartu behar dute kontuan, familia ere osotasun horretan sarturik. Bestalde, nahasmendu horiek hain askotarikoak eta konplexuak



### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

izaki, hainbat diziplina espezializatuk koordinatuta esku hartu behar dute, eta hori lortzeko, nahasmendu horiek diziplinarteko edo diziplinaz gaindiko orientazioa duten profesionalen talde baten bitartez aztertu behar dira.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 DEKRETUA** onartu zenetik, aurrera-pausu handiak egin dira premia horiei erantzuteko; izan ere, askotariko plan, programa eta ekimenak abiarazi dira erantzun horretan parte hartzen duten hiru jardun-arlo nagusietan, osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuen eremuetan eskudun diren Sailen bitartez.

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, komunikazio-gaitasunaren parametroetan, gauzatu beharreko prozesuak «gaikuntza» gisa ulertzea proposatzen dugu, eta ez «birgaikuntza» gisa.

Komunikazio-prozesuen egokitzapena Haur Hezkuntzako ikasgeletan

Beharrezkoa da aurretik definitzea komunikazio-gaikuntzako saioen denbora-aplikazioa eta ikuspegia; bai eta eskola inklusiboaren ikuspegitik eman beharreko sostengua ere, ohiko inguruneetako ikaskuntza esanguratsuak sustatuz.

Horrek ez du esan nahi, zuzenean eta beste gabe, banakako sostengu-planteamendu espezifikoak egin beharko direnik; aitzitik, Haur Hezkuntzako<sup>29</sup> etapan gaitasunen garapenean oinarritutako curriculumaren izaera propioa kontuan harturik, ikasgela arruntean gauzatu beharko da eta egin beharko da posible ikasle guztien parte-hartze osoa (entzumen-desgaitasuna duten ikasleak barne).

Osagarri modura, baloratu egin beharko da Audizio eta Hizkuntzako (AHI) profesionalaren banakako esku-hartzea. Esku-hartze modalitateak askotarikoak izan daitezke, komunikazio-gaikuntzaren eta/edo ahozko gaikuntzaren esparruko helburuen

<sup>29</sup>237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zahaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena..

arabera; ikasgelan edo ikasgelatik kanpo, banaka edo hainbat ikaslerekin, baita horien arteko konbinazioetan ere.

Garrantzitsua da kontuan hartzea oinarritzko gaitasunen garapenean oinarritutako curriculumak ahozko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasunaren garapena nabarmentzen duela, eta komunikazioa beste ikaskide batzuekiko interakzioaren, jolasaren eta programatutako jardueren bidez garatzen dela. Hala ere, ez da inoiz ahaztu behar entzumen-desgaitasuna duen haurrak etapa honen hasieratik kontuan eduki beharreko espezifikotasunak dituela, oraindik ere, oro har, entzumen-hizkuntza arloari dagozkion lehen urratsetan baitago.

Edozein haurren -neskato edo mutiko izan- ikaskuntzen garapenean, aberastasun handiko iturri izan ohi dira ikaskuntza intzidental<sup>30</sup> deituak. Hain zuzen ere, nahita haien bila ibili gabe, informazio jakin batzuen eraginpean egote soilagatik haurrak egiten dituen ikaskuntzak dira. Informazio edo ikaskuntza intzidental hori ez da zuzenean irakasten, baizik eta kontzienteki zein inkontzienteki transmititzen eta xurgatzen da. Gorreria duten haurren kasuan, zailtasunak egon daitezke informazio horiez jabetzeko eta, beraz, intentziazko ikaskuntzetara jo behar da. Baliteke horiek ohikoak ez izatea; horregatik, ez da ahaztu behar intentziazko esku-hartzeen garrantzia. Beste hitz batzuekin esanda, haur 'entzule' gehienek ez bezala -horiek berez jabetuko dira ikaskuntza intzidentalez testuinguru naturaleko interakzioaren bitartez-, gorreria dutenen kasuan beharrezkoa izango da egoera espezifiko planifikatuak sortzea. Esku-hartze horiek eguneroko ohiko testuinguruan edo ikasgelatik kanpo egingo dira. Helburua da entzumen- eta komunikazio-egoera espezifikoak sortzea, komunikazio- eta hizkuntza-garapen egokia ahalbidetzeko.

Gainera, garatu nahi den ahozko komunikazio-hizkuntza hezkuntza-esparruko hizkuntzarekin bat ez datorren kasuetan, intentziazko esku-hartzeek are garrantzi handiagoa hartzen dute.

<sup>30</sup>ANTIA, S.D.; KRIEMEYER (2003): «Peer Interactions of Deaf and Hard of Hearing Children», in MARSCHARK, M.; P.E.: (2003): *Oxford Handbook of Deaf Studies, Language and Education*. New York. Oxford University Press

### 3. Entzumen-desgaitasuna duen pertsona

Nolanahi ere, ikasleen «gaikuntzarako» saioak areagotzeak ez du bermatzen hizkuntza eskuratzeko prozesua bizkortuko denik. Egia esan, hizkuntza-prozesuak arlo espezifikoak eta arrunta ongi uztartzearen fruitu izaten dira, hori bai, bakoitzetik dosi neurtuetan, plangintza egiten ari garen haurraren arabera.

Bai hizkuntza bat eskuratzeko, bai irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak garatzeko, intentziorik esku-hartzea funtsezko elementua da hezkuntza- eta komunikazio-ekintzaren barruan, eta ez da soilik gaikuntza-esparrura mugatzen.



## 4. Entzumen–desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

### 4.1. Hezkuntza–erantzunaren prozesua

#### 4.1.1. Eredu terapeutikotik soziokulturalera

Epigrafe<sup>31</sup> honetan, gorreria duten ikasleen arretan jarraitutako prozesu historikoa deskribatzen da. Prozesu horren bilakaeran, eredu soziokulturala aurrerapen handia izan zen eredu terapeutikoarekiko. Hala ere, beste inflexio-gune oinarrizkoetako bat teknologia sartzea izan da gortasuna duten ikasleen garapenean. Sor daitekeen arriskua, gaur egun, historia beraren ikuspegi pendularretik erator liteke, erantzunaren «medikalizazio» handiegia dela eta. Horrela, iraganeko garaietara itzultzen da, non garrantzitsuena entzumena eta mintzamena

<sup>31</sup>PÉREZ, M.E.; CHABRA, G. (2019): «Modelos teóricos de discapacidad: un seguimiento del desarrollo histórico del concepto de discapacidad en las últimas cinco décadas». *Revista Española de Discapacidad*, 7 (I): 7-27 or. Hemendik berreskuratua: <https://doi.org/10.5569/2340-5104.07.01.01>

baitziren, norbanakoaren garapen harmonikorako oinarritzko beste gaitasun batzuen beharrianak alde batera utzita.

Gorreria duten ikasleen hezkuntzaren inguruko eztabaidak eta sortu diren hezkuntza-ereduen askotarikotasuna, beste arrazoi batzuen artean, ikasle horien aniztasunaren eta beroriei buruz dauden alde aurreko kontzepzio eta ideien emaitza dira.

Hizkuntzalaritzatik, psikologiatik, soziologiatik eta psiko-pedagogiatik egindako hainbat ikerketak, 90eko hamarraldian, lehengo ikusmoldearen aldaketa sakona ekarri zuten, eta, hala, defizitetan oinarritutako **gorreriaren ikuspegi kliniko-terapeutiko** batetik, gaitasunetan finkaturiko **kontzepzio soziologiko** baterako jauzia egin zen; eta ikusmolde horren ondorioz, planteamendu pedagogiko berriak etorri ziren.

Kontzeptu-aldaketa hori, gainera, «desgaitasunari» buruz eskolan eta gizartean gertatutako aldaketarekin batera etorri zen, eta «norbanakoaren zerbait» bezala ulertu ordez (ikasle jakin batzuen ezaugarriak dira beren zailtasunen arrazoi nagusi), «gizarte-eraikuntza» gisa ikusi zen, hau da, ikasleen eta haien testuinguruen arteko (eskolan bezala gizarte eta familia arloan) elkarreraginaren emaitza modura.

Horrela, **testuingurua** bera da -bere jarrera eta praktika zehatzekin- ikasteko eta parte hartzeko oztopoak sortzen dituen, eta oztopo horiek eragozten edo murrizten dituzte haien ikasteko aukerak; garapen-inguruneak zenbat eta gehiago egokitu, orduan eta txikiagoak izango dira parte hartzea eragozten duten langak, eta orduan eta handiagoak norbanakoaren inklusiorako aukerak. Elementu nagusia, hortaz, ingurunea egokitzea da; hori izango da, azkenean, parte-hartzea eta inklusioa bermatuko dituen.

Gorreria duten haurren hezkuntzaren historiak aspalditik bizi duen polemika oso polarizatuta egon da bi kontzepzioen artean: **audiologikoa**, batetik, eta **soziokulturala**, bestetik, horietako bakoitzetik pertsona horien garapen linguistiko, kognitibo eta sozialerako -eta, ondorioz, komunitatean onartuak edo baztertuak izateko- eratortzen diren inplikazioekin<sup>32</sup>.

<sup>32</sup>ACOSTA, V. ET ALLS (2006): *La sordera desde la diversidad cultural y lingüística*.

#### 4. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

Zehaztu behar da, hasteko, **ikuspegi audiologikoak** honako hauek aztertzeraz garrantzitsua: hainbat mailako entzumen-galerak, defizitaren kokapena, entzumen-galerak konpentsa ditzaketen laguntza teknikoak (audifonoak, kokleako inplanteak, etab.); aldiz, **ikuspegi soziokulturaletik**, gorreria duten pertsonak ez dira definitzen falta zaienagatik (entzumena) edo ez direnagatik (entzuleak), baizik eta gaitasunak dituzten pertsona gisa, kontuan izanik, gainera, ezaugarri asko partekatzen dituztela beste hainbatekin.<sup>33,34</sup>

Ondorio modura, beraz, dimentsio anitzeko ikuspegi<sup>35</sup> batetik, entzumen-galera duten ikasle horiek hainbat ondorio edo zailtasun eragin ditzakete hainbat arlotan, baina, era berean, garapen harmonikoa ahalbidetzen dieten gaitasunak ere badituzte, betiere testuinguruak ahalbidetzen baldin badu.

##### 4.1.2. Eredu soziokulturala: aurrerapen teknologikoak gehitzea entzumen-funtzionaltasunaren garapenean

Teknologia beti izan da funtsezkoa ikasle gorrei eskainitako arretan, batez ere, audifonoak, sostengu-produktu gisa. Horiek erabiltzearen helburua zen jantzita zeramatzan pertsonaren hondar-entzumena baliatzea.

XXI. mendearen lehen hamarraldian, entzumenerako teknologia medikoak garrantzi handia hartu zuen. Audifonoen kasuan, seinale analogikoa erabiltzen zuen teknologiatik digitalera aldatzeak ekarri du, neurri handi batean, entzumenean lortutako hobekuntza. Hala ere, entzumen-galera sakonen kasuan, audifonoen emaitzek entzumen-funtzionaltasunik eman ezinik jarraitu zuten.

---

*Construyendo centros inclusivos en la educación del alumnado con sordera.*  
Bartzelona. Masson argitaletxea.

<sup>33</sup>MINGUET, (coord.) (2001). *Rasgos Sociológicos y culturales de las personas Sordas.* Valentzia: FESORD - C.V.

<sup>34</sup>MORENO, A. (2000). *La Comunidad Sorda: Aspectos Psicológicos y Sociológicos.* Madril: CNSE.

<sup>35</sup>DOMÍNGUEZ, A.B. y ALONSO, P. (2004) *La educación de los alumnos sordos hoy. Perspectivas y respuestas educativas.* Malaga: Aljibe.

House doktoreak kokleako lehen inplantea 1961ean egin bazuen ere (kanal bakarreko inplante hartan elektrodo bakar batek estimulatzen zuen koklea), 2000. urtera arte ez zen aurrerapen nabarmenik egin kokleako inplanteen teknologian, orduan hobetu baitziren teknika kirurgikoak, programazio-estrategiak eta inplantea ezartzeko hautagaiak aukeratzeko irizpideak.

Kokleako inplantea izeneko gailuak seinale akustikoak seinale elektriko bihurtzen ditu, eta azken horiek entzumen-nerbioa estimulatzen dute. Medikuntzako teknika horren helburua, eramaileak funtzionalki aprobeitza daitekeen entzumen-hondarririk ez duenez, kanpoko elementu bat ezartzea da, kirurgia bidez, kaltetutako eremua ordeztzen duena, entzumen-nerbioarekin konektatu eta, horren ondorioz, eramaileak entzumena izan dezan. Ez da, izatez, entzumena «konpontzen» duen planteamendu bat, gorrerian zentratutako lanbide-eremutik kanpoko pertsonak uler lezaketen bezala. Soinu-seinalearen bestelako prozesamendu bat da eta, hain zuzen, kokleako inplanteak emandako entzumen-informazioa ezagutzen eta erlazionatzen ikastea eskatzen du. Protesirik eraginkorra dela irizten zaio funtzioa berreskuratzeari dagokionez (Wilson, 2008)<sup>36</sup>.

Kokleako inplantea ezartzeko hautagaien aukeraketak ere izan du bere bilakaera. Hasieran, hautagai gazte eta helduei zuzendu zitzairen kokleako inplantea, aldebiko entzumen-galera sakona zutenei eta entzumen-itzalaldi luzeak izan zituztenei; gaur egun, ordea, aldeko pronostiko-irizpidetzat hartzen da goiztiartasuna.

Teknologiak eta kirurgiak aurrera egin ahala, baliabide tekniko guztiak aprobeitzatzeko aukerak handiagoak dira gaur, audifonoa eta kokleako inplantea(k) konbinatzeko aukera baitago.

Aurrerapen horiei esker, entzumen-funtzionaltasunaren aprobeitxamendua handiagoa da, baina ez dugu ahaztu behar funtzionalitate horrek komunikazio-gaikuntzako prozesu sistematiko bat eskatzen duela, eta emaitzak, horretan, aldakorrek dira.

<sup>36</sup> WILSON, B.S. (2008): «Cochlear implants: Current designs and future possibilities». *The Journal of Rehabilitation Research and Development*, 45(5), 695-730. <http://doi.org/10.1682/JRRD.2007.10.0173>.



#### 4. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

Esate baterako, bai hezkuntza arloan egindako ikerketek eta bai eguneroko praktikak adierazten dute ikasle askok ez dutela garapen normalizatua lortu kokleako inplanteak edo azken belaunaldiko audifonoak erabili arren; izan ere, batzuek oso onura gutxi lortzen dute, eta esan behar da trebetasun oso oinarrizkoak dituztela ahozko eta idatzizko hizkuntzan. Inguruabar horiek, izan ere, zuzeneko eragina dute ikaskuntzan eta etekin akademikoetan. Ikasle horietako batzuek emaitza eskasak lortzen dituzte hiztegian eta gramatikan, narrazio-gaitasunean eta irakurketan. (Duchesne, 2016; Geers, Nicholas eta Tobey, 2016; Harris, 2016; Nittrouer, Caldwell, Lowenstein, Tarry, Holloman, 2012, Valmaseda, M.-n aipatua 2016<sup>37</sup>)

Arrazoiak honako hauek dira:

- Alde handia dago norberaren entzumenaren bidez jasotako seinalearen kalitatearen eta kokleako inplantearen bidez jasotakoaren artean, batez ere, giro zaratatsuetan (Gorospe eta Muñoz, 2016)<sup>38</sup>.
- Ditugun entzumen-hartzaile fisiologikoen kopurua eta elektrodoena desberdinak dira.
- Diagnostikoaren eta inplantea jartzearen arteko entzumen-gabezia aldiak ez du eragozten komunikazio-garapeneko atzerapena.

Azken batean, teknologiak izan duen aurrerapena nabarmentzekoa da aldebiko entzumen-galera sakonak dituztenen kasuan, bai ikuspegi audiologikotik, eta bai, askotan, hizkuntzarenetik ere. Hala eta guztiz ere, gaitasunak garatzeko premiek hor jarraitzen dute. Entzumen-hobekuntzak lagungarriak dira hizkuntza-prozesuak (irakurketa, idazketa, etab.) garatu daitezen, baina komunikazio-bitartekotza, kasu askotan, saihetsezina da, batez ere eta funtsean, gizarte-hezkuntza ikuspuntutik.

<sup>37</sup>VALMASEDA, M. (2016): «Variabilidad en el desarrollo de la lengua oral de los alumnos con implante coclear. Algunas reflexiones para el ámbito educativo». Bilbao. Libro de Actas del Congreso de AELFA.

<sup>38</sup>GOROSPE, J.; MUÑOZ, C. (2016): «El Implante Coclear en el contexto de la atención a la deficiencia auditiva». Bilbao. Libro de Actas del Congreso de AELFA.

### 4.1.3. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleekiko arreta inklusiboaren eredia. Gizarte-planteamenduen eta garapen teknologikoaren inplikazioak

EAEko hezkuntza-sistema, gizarte-eragile aktiboa den aldetik, bere kontzepzio-oinarriak aldatuz joan da. Hasiera-hasieran, gorreria zuten pertsonentzat abian jarritako zentro espezifikoean soilik ematen zitzaion erantzuna kolektibo horri; gerora, ordea, sistema eraldatu egin zen, eta ikastetxe arruntetan birkokatu ziren ikasle gorrak.

Eskola-eredu muinbakar eta integratzaile<sup>39</sup> baterantz egindako aldaketa garrantzi handiko zedarria izan da hezkuntzaren ikuspegitik. Pixkanaka, esku-hartzearen analisiak eta gizarte-, kultura- eta hezkuntza-faktore ugari -dibertsitateari erantzuteko planteamendua nabarmentzen da horien artean- markatu dute eskola inklusiborako bilakaera<sup>40</sup>.

Inklusio terminoak parte-hartzea adierazten du; hori bai, alderdi bereizgarriak edo eratzailleak aitortzetik abiatu behar du partaidetza horrek. Inklusioaren kontzeptuarekin lortu nahi den ideia da ez dela nahikoa hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskola arruntetan eskolatuta egotea; aitzitik, ikasle horiek ikastetxeko eskola- eta gizarte-bizitzan parte hartu eta aurrera egiten dutela bermatu behar da. Helburua ez da desberdintasunak desagitea, baizik eta guztiei ahalbidetzea beren banakotasuna baloratzen duen hezkuntza-erkidego bateko kide izaten.

Izan ere, alde batetik, pertsonaren ikuskera globalizatuago, holistikoago batetik abiatzen gara. Bestetik, gorreria duen pertsonaren irudikapen sozialak hiztunen eredia soilik

<sup>39</sup>Hainbat egile (1988): Eskola muinbakarra eta integratzailea. Hezkuntza Bereziko Batzordearen Txostena. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

<sup>40</sup>Hainbat egile (2012): Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza.

#### 4. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

baloratzen duen ikuspegiaren aurkakoa izan behar du, ikuspegi hori entzumen-urritasuna duten ikasleen gaitasunetatik abiatzen baita, eta ez haien defizitetik.

Pertsona izaki patologiko eta defizitariotzat hartzen duen eredutik –non norbanakoari dagokion integratzeko ahalegina-, gizabanakoaren eta bere ingurunearen arteko dialektika sozialeko eredura igaro gara. Testuinguruei, elkarrekintzei eta parte hartzeko eta komunikatzeko oztopoak kentzeari ematen zaie garrantzia.

Pertsona mugitzen den inguruneetan zenbat eta egokitzapen eta irisgarritasun handiagoa egon, orduan eta txikiagoak izango dira pertsonak aurkitzen dituen zailtasunak. Testuingurua egokitu behar zaio pertsonari, eta ez alderantziz.

Horretarako, haurrarekin interakzioan dauden pertsona guztiak ezagutu behar dituzte entzumen-desgaitasuna duen pertsonaren beharrianak, bai eta beroriei erantzun egokia emango dieten estrategia bereizgarrien erabilera ere. Alde horretatik, oso interesgarria da «Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalak (IDU)»<sup>41</sup> ematen duen markoa; izan ere, dibertsitatea aintzat hartzen baitu, eta informazioa aurkezteko eta adierazteko hainbat modu ez ezik, ikasle guztiak motibatzekeko estrategia ugari eskainiko dituzten curriculumak diseinatu beharra ere planteatzen du, curriculum-planteamenduen hasiera beretik ikaskuntzarako oztopoak ezabatzearen. Horrela, murriztu egiten da gerora egokitzapenak egin beharra eta horien eraginkortasuna areagotzen da.

### 4.2. Komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunaren garapena

Hizkuntzak aukera ematen digu hemen/orainetik aldentzeko eta objektuekin jarduteko, nahiz eta bertan ez egon. Ezagutza

---

<sup>41</sup>Hemendik hartutako erreferentziak <http://diversidad.murciaeduca.es/publicaciones/dea2012/docs/calba.pdf>.

komunikatzeko sistema bat da. Bere garapena norbanakoak testuinguru sozialetan duen etengabeko interakzioan oinarritzen da. Horrela, bada, entzumen-galerak hizkuntzaren garapenean duen eragina hainbat faktoreren mende dago: entzumen-galera ez ezik, kontuan hartu beharko da inguruneak subjektuari zer-nolako komunikazio-interakzioak eskaintzen dizkion.

Galera garaiz hautemateak garapen horiek errazten dituzten esku-hartzeak ahalbidetzen ditu. Behin hautemate goiztiarra egin denean, zer teknologia erabili zehaztu beharko da haurraren hondar-entzumenari baliaitzeko, bai eta zer prozesu jarraitu beharko dituen ere ahozko gaikuntzaren mesedetan. Bi jarduketek abiapuntuko aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzen lagunduko dute.

Era berean, gertatzen da, behin baino gehiagotan, faktore etiologikoek edo jatorri ezezagunekoek eragindako entzumen-galera horiekin batera, haurraren garapen egokia zailtzen duten eta aurrez aipatutako eredu jarraitzen ez duten beste ezaugarri bereizgarri batzuk ere agertzea. Kasu askotan, entzumen-galera da diagnostikatutako lehen desgaitasuna, baina, ondoren, gerta liteke beste desgaitasun erantsi batzuk hautematea. Desgaitasun horiek modu garrantzitsuan baldintzatu ditzakete bai hizkuntzaren eta bai komunikazio-gaitasunaren garapena.

Bestalde, ez da ezohikoa hautemate berantiarrak egitea gorreria mota jakin batzuen kasuan, edota hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunaren garapenean estimulazio txikiagoa izan ohi duten beste errealitate soziokultural batzuetatik datozen pertsonengan. Egoera horietako askotan, haurren kultura eta familia-hizkuntza ez datoz bat EAEkoekin. Halaber, gerta liteke familiaren egoera sozioekonomikoak zenbait teknologiatarako sarbidea eragoztekoa edo zailtekoa.

Kokleako inplanteak edota audifono-parekatzeak gero eta goizago egiten badira ere gorreria duten haurtxoetan, ez dago ukatzerik oraindik ere existitzen direla entzumen-itzalaldi batzuk komunikazio- eta hizkuntza-garapenean eragina dutenak.

Egoerak oso desberdinak izan daitezke; horregatik, kasu bakoitzak plangintza pertsonalizatua eskatzen du. Horrela

## 4. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

bakarrik lortu ahalko dira komunikaziorako eta hizkuntzarako egokitzapen-maila handiagoak.

Ahozko hizkuntzan gaitzeko prozesuek -plangintza pertsonalizatu baten ikuspegitik- gure esku dauden komunikazio-tresna guztiak hartu beharko dituzte kontuan, ez baita ahaztu behar entzumen-desgaitasuna duen haurtxoaren entzumen-aukerak garatzeaz gainera, esperientzia eskuratzeko bide garrantzitsuetako bat ikusmenaren bidezkoa dela. Estimulazio sentsorial eta globalizatuak ingurunearekin harreman handiagoa izatea erraztuko du.

Lehen interakzio sentsorialekin hasitako prozesu horrek entzumen-desgaitasuna duen pertsonaren bizitza osoan izango du jarraipena, eta eboluzio-momentu bakoitzean beharrezkoak ikusten diren esku-hartzeak doitu beharko dira, unean-unean. Horrela, pentsamendu autonomia garatzeko fase nagusietako bat irakurketa eta idazketa bereganatzeko prozesuekin lotzen da.

### 4.3. Hizkuntza-ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman

#### 4.3.1. Ahozko hezkuntza-sistema elebiduna: euskara-gaztelania

EAEko hezkuntza-sistema elebidunean, baliteke ikaskuntza-hizkuntzetako bat ez egotea ikasleen familia- eta/edo gizarte-testuinguruan; horregatik, eskola-antolaketa arduratzen da familia-hizkuntza eta ezagutzen ez duen hizkuntza menderatzen laguntzeaz.

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, gerta liteke haurraren hasierako hizkuntza ikaskuntzako komunikazio-hizkuntzarekin bat etortzea edo ez. Ingurunea, harremanak, hizkuntza-paisaia, materialak eta ikaskuntzak bat baldin badatoz, baita hizkuntza-testuingurua ere, nahiz eta komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunen desoreka bistakoa izan 'entzuleekin' alderatuta. Kontrara, ingurunea eta aurrez

aipatutako gainerako faktoreak ez baldin badatoz bat hizkuntza-testuinguruarekin, komunikazio-egoera guztiak egokitu egin beharko dira haiek ulertu ahal izateko (batzuetan, zeinu-hizkuntza edo lehen hizkuntza mintzatua erabiliz hizkuntza akademikoari laguntzeko).

#### 4.3.2. Hizkuntza mintzatuen eta zeinu-hizkuntzen arteko elebitasuna

EAEko sistemako hezkuntza-prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan gaitasunak bereganatzea aurreikusten du.

Batzuetan, hezkuntza-sisteman hizkuntza-eredu desberdinak egotea zailtasun gehigarria da entzumen-urritasuna duten ikasleentzat.

Errealitate horren aurrean, ikasle batzuentzat, zeinu-hizkuntza baliagarria gertatzen da ikaskuntzara iristeko elementu gisa, hain zuzen ere, hizkuntza mintzatueta duten gaitasuna ez baita nahikoa gaitasun arloetako curriculumari aurre egiteko.

Familian eta hezkuntza-ingurunean dauden hizkuntzen lan intzidentala eta planifikatua nahitaez aurrera eraman behar izateaz gainera, curriculum-ikaskuntzek aurrera jarraitu behar dute, eta, hala, egoki irizten den egoeretan, zeinu-hizkuntza trena bitartekari eta lagungarri gisa kokatzen da aipatutako ikaskuntza horietara iristeko.

#### 4.3.3. Atzerriko hizkuntzetarako sarbidea

EAEko hezkuntza-sistemako hizkuntza-ereduen eskemari *eleaniztasunaren kontzeptua* gehitu zaio, hau da, atzerriko hizkuntza bat (ingelesa, kasu gehienetan) gehitu da bai ikasteko hizkuntza gisa eta bai beste curriculum-gaitasun batzuen garapenerako komunikazio-hizkuntza modura.

Dokumentuan zehar islatuta geratu den bezala, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, komunikazio- eta

#### 4. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

hizkuntza-gaitasunak dira kaltetuenak gertatzen direnak. Eta, bistakoa denez, are gehiago atzerriko hizkuntza bat ikasi behar denean.

Sostengu-produktuen eta hizkuntza-garapenaren bitartez eskuratutako funtzionaltasuna duten ikasle gor batzuek jarraitu ahal izango dute curriculum orokorra, nahiz eta balitekeen, era berean, egokitzapen-neurriak behar izatea gorago aipatu diren sarbide-elementuei dagokienez.

Beste kasu batzuetan, ikasleek -neska eta mutil- jarraitu ahal izango dute curriculum orokorra, Hezkuntza Sailak argitaratutako «Ahozko hizkuntzen curriculumerako sarbide-egokitzapenak»<sup>42</sup> izeneko materiala erabilia.

Hizkuntza-gaitasunean desfase garrantzitsua duten pertsonentzat neurri baliagarria izango da hizkuntza arloetako egokitzapen esanguratsuak egitea.

---

<sup>42</sup>[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/es\\_escu\\_inc/adjuntos/16\\_inklusibitatea\\_100/100015c\\_Pub\\_EJ\\_sordera\\_primaria\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100015c_Pub_EJ_sordera_primaria_c.pdf).

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/es\\_escu\\_inc/adjuntos/16\\_inklusibitatea\\_100/100016c\\_Pub\\_EJ\\_sordera\\_secundaria\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100016c_Pub_EJ_sordera_secundaria_c.pdf).

#### 4.4. Ezaugarri espezifikoak irakurketa–idazketa bereganatzeko

Conradek<sup>43</sup> enpirikoki egiaztatu zuenetik gorreria duten ikasleek zailtasun larriak zituztela irakurtzeko trebetasun sendoak bereganatzeko, azterlan asko eta asko egin izan dira entzumen-desgaitasunaren, irakurketa-prozesuen eta irakurtzeko gaitasunaren arteko erlazioa hizpide hartuta. Aipatutako ikerketa horretan ondorioztatu zuenez, entzumen-urritasuna zuten ikasle nerabeen lagin zabaletik % 15ek soilik lortu zuten funtzionaltzat kontsidera zitekeen irakurketa maila. 2006. urtean, Pérezek eta Domínguezek<sup>44</sup> egindako ikerlan batek honako errealitate hau azaleratu zuen: ikasle ‘entzuleek’ urtebetean egiten zuten irakurketa-ibilbidearen parekoa egiteko, ikasle gorrek hiru ikasturte behar zituzten; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean zituzten irakurketa-trebetasunak Lehen Hezkuntzako 3.-4. urteko ikasle «entzuleen» mailakoak ziren.

Garrantzitsua da gorreria duten ikasleen zailtasunak irakurketa-prozesuetan kokatzea. Esaldi idatzi bat eta, ondoren, testu zabalago bat ulertzeko, ezinbestekoa da hura osatzen duten hitz gehienak ezagutzea, baita haiek antolatzen dituen sintaxia eta barnean dituen elementu pragmatikoak ere, eta lantzen duen gaiari buruzko ezagutzaren bat ere beharko du (Alegría, J., Domínguez, A.B. 2009<sup>45</sup>). Lehen zailtasunak ikaslearen hizkuntza-urritasunak eta gabezia orokorrak emango dizkio, eta ez soilik hizkuntza idatzia ulertzeko, baita ahozkoa ere.

Irakurle efizientea izateko oinarrizko alderdi espezifikoetatik nabarmenetako bat idatzitako hitzen identifikazioa da. Trebetasun horretan inplikaturik dauden behar diren baliabideak fonologiarekin lotuta daude. Esparru honetan haur ‘entzuleekiko’ dauden aldeek erakusten dute fonologia mailako aldakortasun individuala erabakigarria dela irakurtzeko trebetasunerako.

<sup>43</sup>CONRAD, R. (1979). *The Deaf School child*. Londres: Harper and Row.

<sup>44</sup>PÉREZ, I. y DOMÍNGUEZ, A.B. (2006). «Habilidades lectoras de los alumnos sordos con y sin implante coclear a lo largo de la escolaridad obligatoria. Integración». *Revista de la Asociación de Implantados Cocleares*, 40, 7-11.

<sup>45</sup>ALEGÍA, J. y DOMÍNGUEZ, A. B. (2009) «Los alumnos sordos y el aprendizaje de la lectura». *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*, 3 (1), 95-111.



#### 4. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

Gaitasun morfosintaktikoari dagokionez, gorreria duten ikasleek, oro har, zailtasun handiak izaten dituzte maila horretan bai edukia ulertzeko eta bai ekoizteko. Hizketaren pertzepzio partziala dela eta, haur horiek esaldietako funtsezko hitzak identifikatzera mugatzen dira (Alegría eta Domínguez, 2009), batez ere, berezko eduki semantikoa dutenak (aditzak eta izenak) eta askoz neurri txikiagoan, hitz funtzionalak (preposizioak, artikulua,…) Egoera horren ondorioak erabakigarriak dira ulermenerako.

Nabarmen ikus daiteke irakurtzen ikasten hasten direnean, zer nolako aldea dagoen ikaskide ‘entzuleekin’ alderatuta. Normal entzuten duten pertsonak beren ingurunetik jasotzen duten hizkuntza-ezagupenen masa kritikoa deritzona dute (Tomasello, 2006)<sup>46</sup>. Ingurunetik naturalki jasotako hizkuntza-ezagutza horiei esker, haurrek testu idatziari aurre egiten diotenean, irakurtzen dutena ulertzeko aukera dute, eta, horrela, norberaren hizkuntza-ezagutzak zabaltzeko iturri bihurtuko da irakurketa.

Egoera horretan aurrera egiteko, hainbat elementu hartu beharko dira kontuan. Alde batetik, haurrak berak hizketa edo mintzamenaren pertzepzioa hobetzea. Esan behar da gaur egungo sostengu-produktuen erabilerak (audifono digitalak eta kokleako implanteak) asko hobetzen duela pertzepzio hori. Ildo horretan, kokleako implantea eta hizkuntza idatzirako sarbidea erlazionatzen dituzten ikerketek planteatzen dute garrantzitsua dela gailu horiek goiz erabiltzea -3 urte baino lehen- oinarritzko elementu bideratzaileak izango baitira irakurketarekin lotura duten prozesuetan (Domínguez, Pérez eta Soriano, 2007<sup>47</sup>).

Virginia Gonzálezek eta Ana Belén Domínguezek<sup>48</sup> 2018an egindako azterlan batek ondorioztatu zuenez -irakurketa-prozesuetan laguntza teknikoak goiz erabiltzeak duen

<sup>46</sup>TOMASELLO, M. (2006). «Acquiring linguistic constructions». In D. Kuhn y R. Siegler (Eds.), *Handbook of Child Psychology*. New York: Wiley.

<sup>47</sup>DOMÍNGUEZ, A. B.; PÉREZ, I; SORIANO, J. (2007): «Repercusión del implante coclear en el aprendizaje de la lectura en los niños sordos: Resultados preliminares». *Enseñanza*, 25, 2007, 93-110.

<sup>48</sup>GONZÁLEZ SANTAMARÍA, V.; DOMÍNGUEZ GUTIÉRREZ, A.B.: «Influencia de las habilidades lingüísticas en las estrategias lectoras de estudiantes sordos». *Rev. investig. Logop.* 8(1)2018:1-19

eragina balioestea zuen helburu-, ikerketan parte hartu zuten ikasleen ('entzule' edo gor) irakurketa mailak haien hizkuntza-trebetasunaren (sintaxia eta hiztegia) mende zeuden. Ikasle gorren kasuan, kokleako inplanteen erabilerak funtsezko papera jokatzen du irakurketa mailan, eta erakusten du inplantea garaiz jartzen denean emaitza hobeak lortzen direla. Hala ere, irakurketa maila horiek lortzeko erabilitako irakurketa-estrategiak aztertzen badira, ikusten da ikasle gorren talde guztiek, erabilitako sostengu-produktua edozein dela ere, Hitz Giltzarrien Estrategia erabiltzen dutela. Estrategia hori, funtsean, esaldiko hitz garrantzitsuen identifikazioan oinarritzen da; gehienetan, sarri erabiltzen diren eduki semantiko osoko hitzak dira, eta horietatik abiatuta eratzen da esanahi globala. Horrela, esaldiaren alderdi morfosintaktikoek balio informatiboa galdu egiten dute. Ikaslearen adina zenbat eta handiagoa, orduan eta gehiago erabiltzen dute estrategia hori. Era berean, aztertutako ikasle gorren talde guztiek erakutsi zituzten zailtasunak sakoneko hiztegian.

Baloratzeko bigarren elementua irudikapen fonologikoak argitzeari dagokiona da, Hitz Osagarria (HO) erabiltzearen bitartez. Ezpain-aurpegi irakurketari laguntzeko sistema honek entzumen-galera duen solaskideari denbora errealean hizketa hautematea ahalbidetzen dio, informazio fonologiko guztiarekin. Horretarako, sistema honek ahozko igorpena egiten duenaren ahoari buruzko irudikapen bisualak erabiltzen ditu ahoaren inguruko hiru puntutan kokatutako eskuen zortzi posizioen bidez.

Aipatzekoa da, bestalde, zeinu-hizkuntzak zer nolako papera jokatzen duen irakurketa bereganatzeko prozesuetan. Hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren arteko desberdintasunetatik abiatzen bagara, hala morfologikoki nola sintaxiari eta fonologiari dagokienez, zeinu-hizkuntzak munduari eta/edo gai zehatzei buruzko ezagutza orokorrak garatzen laguntzen du. Era berean, interakzioko eta komunikazioko esperientzia aberatsago eta askotarikoagoak errazten ditu, informazioari eta ezagutzei bide emanez. Halaber, lexikoaren planoa errazten du, euskarri semantiko eta kontzeptuala ematen baitu (Alegría eta Dominguez, 2009).

Laburbilduz, gorreria duten ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzeko behar diren neurriek hainbat elementu nagusi hartu behar dituzte kontuan. Alde batetik, haurra mugitzen den munduari buruzko ezagutza orokorra hobetzea. Bestetik, hitz idatzia identifikatzeko prozesuetan –eta, are gehiago, prozesu horien garapenean– dimentsio fonologikoari buruzko lan espezifiko bat nahitaez gauzatu beharra. Eta, azkenik, trebetasun morfosintaktikoen eta hiztegiaren irakaskuntza esplizitua eta sistematikoa txertatzea, trebetasun horiek handituta, hitz giltzarrien estrategiaren erabilera murriztu dadin eta, ondorioz, irakurketa mailak hobera egin dezan. (Domínguez, Alonso eta Rodríguez, 2003; Domínguez eta Alonso, 2004; González eta Domínguez, 2018).

### 4.5. Dibertsitateari erantzuteko neurriak

Dibertsitateari erantzuteko neurriak ikasle guztien hezkuntza-beharrizanak asetzera bideratuta daude, hain zuzen ere, gaitasun oinarriko, zeharkako eta akademiko guztiak lortzeari begira. Etapa bakoitzean proposatutako helburuak eta dagokion titulazioa lortzea ahalbidetu beharko dute, eta ikastetxeko agiri instituzionaletan jaso beharko dira: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak (IHP), Ikastetxeko Curriculum Proiektuak (ICP), Ikastetxearen Urteko Plana, Dibertsitatearen Arretarako Plana, Ikastetxeko Hizkuntza-proiektua...

1. Dibertsitateari erantzuteko **neurri orokorrak (unibertsalak)** irizten zaie hezkuntza-sistemak ikasle guztiei kalitateko hezkuntza inklusibo bat bermatzeko abiarazten dituen neurri guztiei, haiek segurtatuko baitute eskolatzea, eskola-egonaldia eta sistematik irteera ekitate- eta bikaintasun-baldintzetan egitea. Adibidez: ikasleak ikastetxe publiko eta itunduetara modu orekatuan sartzea antolatzen dutenak; ikasle guztien eskolatzeko goiztiarra errazten dutenak; funts publikoekin sostengatutako ikastetxeen artean hezkuntza-sostengu premia espezifikoak dituzten ikasleak modu orekatuan banatzen dituztenak; ikasleak ikastetxeetara heldu ahal izatea bermatzeko beharrezkoak diren laguntza

tekniko, ekipamendu eta egokitzapen fisikoetarako neurriak; ikasle guztiei arreta integrala emateko beharrezkoak diren modalitateak, programak, laguntza-neurriak eta baliabideak, hezkuntza-erkidego osoaren bizikidetzara positiboa bultzatzen; eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalak (IDU) garatzen dituen inplementaziorako jardunbide egokien garapena (DUA <http://educadua.es/>).

2. II. Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko kontuan hartu beharreko ikastetxeko neurri orokorrez gainera, hautemandako talde-beharrei eta beharizan pertsonalei erantzun egokiak planteatzen dira. Neurri horietako batzuk Jarduketa Pertsonalizatuko Planean jasotzen dira.
3. III. **Ezohiko neurriak:** neurri arruntak nahikoa ez direla egiaztatu denean eta Sailaren baimena eskatzen dutenean hartzen dira. Besteak beste:

- **Curriculum-egokitzapenak**

Curriculum-egokitzapen gisa ulertuko da curriculum erkidearen elementuetan egiten den edozein doitzeko aldaketa, ikasleentzako hezkuntza-premia jakin batzuei erantzuteko egiten bada. Egokitzapenak egin daitezke curriculumera sartzeko elementuetan –elementu pertsonalak eta materialak eta berorien antolaketa– edota curriculumeko oinarrizko elementuetan, hala nola helburuetan, edukietan eta ebaluazioan.

Hezkuntza Sailak argitaratutako hainbat jarraibidetan adierazten denez, **Haur Hezkuntzaren** etapan dauden ikasleak, batez ere eta nagusiki, heldu-prozesu batean daude, eta aipatutako prozesu horretan dituzten erritmoak garapen- eta ikaskuntza-prozesuen adierazpen naturala dira. Beharrezkoa izanez gero, jarduketa-plan pertsonalizatu bat prestatu ahal izango da beharrezkoak diren esperientzia-esparruetan.

- **Curriculumera sartzeko egokitzapenak (CSE)**

Curriculumera sartzeko elementuei eragiten die. Ondorengo hauek ulertzen dira curriculumera sartzeko elementu gisa:

- Ezohiko baliabide pertsonalak (irakasle espezialistak –AHI edo logopedak–, fisioterapeutak, okupazio-terapeutak, ZHI, ikusmen-desgaitasuneko profesional espezialistak...);
- Espazioak eta alderdi fisikoak egokitzea;
- Ekipamendua, material didaktikoa eta baliabideak egokitzea;
- Denbora egokitzea;
- Curriculumean aginduzkoak ez diren elementuen egokitzapena: metodologia, jarduerak, ebaluazioa...

Ikasle gorren kasuan, Hezkuntza Sailak hezkuntza-etapa bakoitzerako zenbait dokumentu argitaratu zituen 2013an, «**Gorreria duten ikasleen hizkuntza-curriculumerako sarbidea**» delakoarekin lotura zutenak.

Kontuan eduki behar da, nolana ere, kasu askotan, sarbide-neurri horiek modu konbinatutan hartzen direla, ikasleek izan ditzaketen premien konplexutasunari erantzun ahal izateko.

- **Banakako curriculum-egokitzapen esanguratsuak (BCE)**

Banakako curriculum-egokitzapen esanguratsua (BCE) honela definituko litzateke: curriculumeko aginduzko elementuetan funtsezko aldaketak eragiten dituen ohiz kanpoko neurria. Ildo horretan, 1998ko uztailaren 24ko Aginduak honako hau ezartzen du: «ohiko neurri guztiak nahikoak ez direnean soilik aplikatuko da»

Honako mota hauetako banakako curriculum-egokitzapen esanguratsuak egin ahalko dira:

- *Arloko edo irakasgaiko Banakako Curriculum-egokitzapenak (BCE).*

Egokitzapen honetan, arlo edo irakasgai jakin bateko edo gehiagotako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak aldatzen edo ordezten dira, baina eutsi egiten zaie etapako helburuei. Etaparen amaieran, ikasleek dagokien titulazioa eskuratzea bilatzen du.

HLBP (Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak) dituzten ikasleentzat soilik egingo dira, ikusmen-, entzumen- edota mugimendu-desgaitasun baten edo ikaskuntza-nahasmendu espezifiko baten kasuan (irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzan, kalkuluaren ikaskuntzan, hizkuntzaren nahasmendu espezifikoak eta arreta-gabezia nahasmenduak, hiperaktibitatearekin edo gabe).

Egokitzapena egiteko, curriculum-tarte esanguratsua egon behar da curriculumeko arloan edo ikasgaiaren gaitasun mailaren eta eskolatuta dagoen ikasturtearen artean. Arau orokor gisa, Lehen Hezkuntzan, ikasturtearen eta proposatutako egokitzapenaren arteko curriculum-tartea gutxienez bi ikasturtekoa izan beharko da. DBHn, curriculum-erreferentea aurreko etapan (Lehen Hezkuntza) edo etapa berean kokatuko da, eta, gutxienez, bi ikasturteko curriculum-tartea mantendu beharko da hemen ere.

Hiru arlo diren kasuan eta horiek hizkuntza-arloekin bat baldin badatoz, eta ikaslearen desgaitasuna hizkuntza-esparruan adierazten bada (gorreria, ...), arloko BCEtzat hartzea balegoke, izan ere, irekita geratuko litzateke ikasleak etapako helburu orokorrak lortzeko aukera.

Arlo edo irakasgaiko banakako egokitzapen esanguratsuak titulua lortzeko aukera ematen du, betiere etapa edo mailako helburuei eusten bazaie.

#### 4. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman

Lanbide Heziketako zikloetan, curriculumaren egokitzapen esanguratsuak ezin izango du inola ere eraginik izan tituluak gaitzen duen gaitasun orokorra lortzeko oinarrizko lanbide-gaitasunekin lotutako helburuen desagertzea.

##### - *Banakako curriculum-egokitzapen (BCE) globala*

Curriculum-arloetan oinarrizkoak edo funtsezkoak irizten zaien helburu orokorrak eta edukiak ezabatzen dituen egokitzapena da, eta, horren ondorioz, nabarmen aldatzen dira etapari dagozkion helburu orokorrak eta ebaluazio-irizpideak.

Desgaitasun intelektualari, garapenaren nahasmendu orokorrari edo desgaitasun anizkoitzari lotutako HPBak dituzten ikasleei zuzenduta dago, baldin eta berorien curriculum-gaitasun mailaren eta eskolatuta dauden ikasturtekoaren artean tarte esanguratsua bada. Arau orokor gisa, Lehen Hezkuntzan proposatu ahal izango da baldin eta ikaslea eskolatuta dagoen ikasturteari dagokion curriculum-mailaren eta haren curriculum-egoeraren arteko tarte gutxienez bi ikasturtekoa bada; DBHn, berriz, curriculum-erreferentea aurreko etapan (Lehen Hezkuntza) kokatuko da, eta curriculum-tarte, gutxienez, bi ikasturtekoa izango da hemen ere.

##### ● **Curriculum hedatuaren egokitzapena**

Egokitzapen hori gauzatuko da ebaluazio psiko-pedagogikoan balioesten bada ikasleak errendimendu bikaina duela arlo kopuru jakin batean edo errendimendu global bikaina eta jarraitua duela.

##### ● **Beste mota batzuetako eskolatzeetara egokitu edo doitutako curriculum**

Egokitzapen maila kualitatiboki eta kuantitatiboki oso esanguratsua da kasu honetan, hala, curriculum berezi oso desberdinak egiten dira.

Mota horretako curriculum berezi bat prestatzeak curriculum arrunteko elementu gehienak nabarmen eta errotik aldatzea eskatzen du, eta, salbuespen gisa proposatzen da, curriculum arruntarekin eta/edo baliabide arruntekin ikasleen beharrezanean erantzutea ezinezkoa den hezkuntza-egoeretan. Hori da, esate baterako, hezkuntza bereziko zentroen, gela egonkorren eta Helduarora Igarotzeko Programen kasua.

Curriculum espezifiko honek ikaskuntza funtzionalak, norberaren autonomiaren garapena eta komunikazio- eta gizarte-trebetasunak lehenesten ditu.

#### 4. Ohiz kanpoko beste neurri batzuk:

Oinarrizko eta Derrigorrezko Hezkuntzan ez da aurreikusten **desgaitasunagatik arlo edo irakasgaiak salbuesteko aukerarik**.

Nahitaezko hezkuntzaren osteko etapan, neurri hori entzumen-, ikusmen- eta motrizitate-arazo larriak dituzten ikasleekin bakarrik hartuko da, behar bezala egiaztatutako salbuespenezko inguruabarrek hala gomendatzen dutenean.

**Batxilergoan**, neurri arruntak nahikoa ez direnean, sarbiderako behar diren **curriculum-egokitzapenak** egingo dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat. Curriculum-egokitzapen horiek malgutu ahal izango dute, bestalde, eskolatzeko-denbora ere, eta, hala, Batxilergoaren barruan, sei urtez egon ahalko dira, gehienera, araubide arruntean.

**Lanbide Heziketako** ikasleei dagokienez, araudiak ezartzen du ikasle horiek **behar diren bitartekoak eta baliabideak izango dituztela aipatutako ikasketak egiteko**. Adierazten du, orobat, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek **eskolatzeko-aldi malguagoa** behar dutenean, irakasleek horrelako kasuetarako erregelamendu bidez ezarrita dagoena bete beharko dutela, baina kontuan izanik, betiere, **curriculumaren egokitzapenak ez dakarrela**, inolaz ere, titulazioak egiaztatzen duen gaitasun orokorra lortzeko



**oinarrizko gaitasun profesionali lotutako helburuak desagertuko direnik.**

**Eskolatze-aldiaren malgutzea (curriculum bizkortzea).**

Salbuespen gisa, gaitasun handiko ikasleekin erlazionatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen nahitaezko eskolaldiaren iraupena malgutzeko aukera ematen du. Entzumen-desgaitasuna eta gaitasun handiak dituzten ikasleek eska lezakete neurri hori ezartzea.

**Atzerapena nahitaezko eskolatzearen hasieran. Beste urtebetez jarraitzea Haur Hezkuntzan.**

Hezkuntza-premia bereziei erantzuteko ebaluazio psiko-pedagogikoak komenigarritzat aholkatzen badu, beste urtebetez jarraitu ahal izango du ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, eta, ondorioz, urtebetez atzeratu beharko luke Lehen Hezkuntzako etaparen hasiera.

**Nahitaezko Hezkuntzan jarraitzea: Lehen Hezkuntza.**

Lehen Hezkuntzan ikasteko legez eta arau gisa aurreikusitakoa baino luzarago egoteko aukera da, gehienez ere bi urte etapa horretan, nahitaezko eskolatzearen hasierako atzerapen-urtea zenbatuta, halakorik izan bada.

**Eskolatzearen malgutzea nahitaezkoaren osteko hezkuntzan.**

Nahitaezko hezkuntzaren osteko hezkuntzan, Batxilergoa ikasturteetako curriculum osatzen duten ikasgaiak blokeetan zatituz egin ahal izango da. Egonaldiaren urte kopurua bi urtez luzatu ahal izango da (jada aipatutako 6 urteak, gehienez ere)

Erdi- edo goi-mailako Lanbide Heziketari dagokionez, desgaitasunarekin zerikusia duten HPBak dituzten ikasleek ohiko eskolaldirako aurreikusitako denbora halako bitan banatu ahal izango dituzte heziketa-zikloko moduluak.

### **Nahitaezko eskolatzea aurreratzea.**

Kasu honetan proposatuko da: ebaluazio psiko-pedagogikoan, eta legezko ordezkarien adostasunarekin, Haur Hezkuntzako ikasleak etapa horretako helburuak gaindituta dituela balioesten denean eta bere oreka pertsonala garatzeko eta sozializatzeko neurri egokia dela aurreikusten denean. Ikaslea urtebete lehenago hasiko litzateke Lehen Hezkuntzan. Gaitasun handiei lotutako neurria da.

### **Eskolatze-denbora murriztea.**

Ebaluazio psiko-pedagogikoan, eta legezko ordezkarien adostasunarekin, ikaslearen oreka pertsonala eta gizarteratzea garatzeko neurri egokia dela balioesten denean proposatuko da. Neurri hori gehienez ere bi aldiz hartuko da haurraren eskolatze aldian. Gaitasun handiei lotutako neurria da.

## 5. Entzumen–desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza–erantzuna

### 5.1. Hezkuntza–erantzunaren elementu deskribatzaileak

Salamancako Adierazpenean (1994)<sup>49</sup> ikasle guztiei zuzendutako hezkuntza inklusiboa defendatzen zen, ikasleen gaitasun potentzialak garatu eta ahalik eta aurrerapen handiena lortu ostean, gizartean parte hartzeko modua izan dezaten; adierazpen hori oinarri harturik, hezkuntza-sistemaren konpromisoa da ikasle guztiei kalitateko hezkuntza emango diela, ikasle horien ezaugarriak edozein izanik ere. Hezkuntza-helburu horrek ondorio gisa dakar haur eta gazte guztiek ziurtatuta izan behar dutela hezkuntzara ekitate- eta bikaintasun-baldintzetan iristeko eta parte hartzeko aukera.

<sup>49</sup>UNESCO (1994). Informe final. Conferencia mundial sobre necesidades educativas especiales: acceso y calidad. (Declaración de Salamanca). Madrid: UNESCO/Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

Apartatu honetan, hasteko eta behin, hainbat taldetan deskribatzen dira entzumen-desgaitasuna duten ikasleak, talde bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak ezarri ahal izateko. Bestalde, ikasleen garapen integralerako baldintzak eta horiek behar bezala estaltzeko gauzatu beharreko prozesuak ere jasotzen dira. Azkenik, hezkuntza-erantzunean inplikaturik dauden baliabide profesionalak zehazten dira.

### 5.1.1. Tipologiaren arabera taldekatutako ikasleak

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonen ezaugarrietako bat da heterogeneotasun handia dagoela entzumen-galeraren ezaugarriekin zerikusia duten hainbat faktoreren ondorioz, hau da, galeraren alderdi kuantitatiboak, topografikoak edo lokutiboak<sup>50</sup>; diagnostiko goiztiarra, sostengu-produktuak erabiltzen diren edo ez, esku-hartzearen hasiera noiz gertatu zen eta abar. Faktore horiei, nolatan ere, familia- eta ingurune-faktoreak ere gehitu behar zaizkie (eskola, kultura, gizartea).

Egoera horren aurrean, alderdi horiek guztiak bateratzea eta konbinatzea izango da norbanako bakoitzaren jarduketan plan pertsonalizatua egiteko orientatuko gaituena, pertsonaren garapeneren une zehatz batean.

Hala ere, arestian azaldutakoa kontuan hartuta, praktikoa izan daiteke talde batzutan bereiztea, zein bere *tipologiaren* arabera.

### 5.1.2. Tipologia bakoitzaren deskribapena

#### 1. tipologia

*Segur aski, entzumen-desgaitasun kasu baten aurrean egiten den hasierako balorazioa da. Zehaztutako alderdi bakoitzak analisi bat eskatzen du, eta, aldagai posible ugari eratorritzen da hortik:*

<sup>50</sup>v2.1.2. a apartatua. Gortasunaren banakako aldagai bereizgarriak.

- *Faktore erabakigarriak:*
  - Jaioberrien entzumen-baheketaren (JEB) bitartez zeinahi mailako entzumen-galera hauteman izan zaion haurra: Entzumen-galera arina (EGA) - Entzumen-galera ertaina (EGE) - Entzumen-galera larria (EGL) edo entzumen-galera sakona (EGS), ondorengo diagnostiko bat egiteko;
  - Arreta Goiztiarreko (AG) prozesua hasten du;
  - Osasungintza zerbitzuetatik balorazioa egin eta banakako sostengu-produktuak planteatzen dituzte: Kokleako inplantak (KI), audifonoak (audif), beste batzuk.
- *Beste faktore batzuk:*
  - Sostengu-produktuen bitartez erdietsitako entzumen-funtzionalitatearen balorazioa;
  - Familiako hizkuntza (EAEko hizkuntza koofiziala: euskara eta/edo gaztelania; zeinu-hizkuntza; beste hizkuntza mintzatu batzuk);
  - EAEkoez bestelako hizkuntza-, kultura- eta gizarte-ereduak: balizko familia- eta gizarte-kasuistika bereizgarria.

## 2. tipologia

*Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen ehuneko handi batean beste desgaitasun bat dago gorreriari lotuta. Batzuetan, desgaitasun horren diagnostikoa gorreriarekin batera egiten da, beste batzuetan, berriz, ondorenean.*

*Funtsezkoa da haurraren balorazio integral bat eta jarduketan plan pertsonalizatua egitea, ikuspegi integral batetik.*

- *Faktore erabakigarriak:*
  1. Jaioberrien entzumen-baheketan entzumen-galera bat agertzen da (EGA-EGE-EGL-EGS);

2. Gorreriarri lotutako desgaitasuna, harekin batera edo geroztik diagnostikatua;
3. Ikuspegi integrala; esku-hartzea haurraren beharrezan araberakoa izango da;
4. Arreta Goiztiarreko Prozesua;
5. Banakako sostengu-produktu goiztiarra (kokleako inplantea/k. audifonoak, hezurrean txertatuak);
6. Entzumen-funtzionaltasun aldagarria;
7. Familiako hizkuntza (euskara, gaztelania, zeinu-hizkuntza, beste batzuk).

### 3. tipologia

*Entzumen-desgaitasuna duten ikasle batzuk berandu sartzen dira EAEko hezkuntza-sistemara. Gerta liteke haien jatorri geografiko/kulturala eta Euskal Autonomia Erkidegokoa desberdinak izatea, migrazio- edo mugikortasun-prozesuengatik, etniagatik, etab. 3. tipologiako ikasle hauen kasuan, entzumen-galerarekin zerikusia duten alderdiekin batera, modu osagarrian, hizkuntza-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-alderdiak ere oso kontuan hartzekoak izango dira.*

● *Faktore erabakigarriak:*

- Agian ez zen gorreria hauteman jaioberrien baheketa unibert-salean (JBU)
- Entzumen-galeraren maila aldakorra (EGA-EGE-EGL-EGS);
- Eskola-ikasturteko zer momentutan sartu den hezkuntza-sis-teman;
- Banakako sostengu-produktuaren erabiltzailea den edo ez (kokleako inplantea/k, audifonoak, hezurrean txertatutako inplanteak...).

- Entzumen-funtzionaltasun aldagarria;
- Desdoitze bat egon daiteke, komunikazio-trebetasun mintzatuaren eta curriculum-mailaren artean;
- Zeinu-hizkuntzan mintza daiteke edo ez;
- Lotutako beste patologia batzuk egotea edo ez;
- Familiako hizkuntza: euskara, gaztelania, zeinu-hizkuntza, beste batzuk.
- Balizko aldagarritasun sozioekonomiko eta kulturala, zenbait egoeratan, migrazio- eta/edo egoera etnikoaren ondorioz.

#### 4. tipologia

*Talde honetan sartzen dira lokuzio osteko galera izan duten ikasleak.*

*Gainera, bi belarrietan estimulazioa planteatzearen ondorioz, ohikoa izaten da 6 urte baino gehiagorekin bigarren koklea-implantea egin izan zaien ikasleak aurkitzea, zeinak indartze esku-hartze bat baldintzatzen baitu hezkuntza-baliabide profesionalekin.*

- *Faktore erabakigarriak:*
  - Pertsonaren eta testuinguruaren balorazio integrala;
  - Entzumen-erantzunaren kontrola eta jarraipena;
  - Esku-hartzea, bigarren kokleako implantea behin txertatu ostean.

#### 5. tipologia

*Talde honetan alde bakarreko entzumen-galera duten ikasleak sartzen dira.*

*Funtsezkoa da belarri funtzionalak ematen duen entzumena ahalik eta gehien baliatzea, baita entzumenaren kontrola eta jarraipena egitea ere. Hezkuntza arloan, jarraibide eta orientabide batzuk eman behar dira gelako kokapenari, ezpain-aurpegi irakurketarako balizko laguntzari, soinu-iturria identifikatzeko estrategiei, edota entzumen-seinalearen distortsio-faktoreei buruz, entzumen-galerak eragindako zailtasunak ezabatzen laguntzeko.*

*Neurri horiek ezagunak izan behar dute ikastetxean eta ikaslearen inguru hurbilean, nahiz eta kasu zehatz batzuetan beharrik ez izan.*

- *Beste faktore batzuk:*

- Beste belarrian gerta litekeen galera progresiboaren edo afekzio erantsiaren jarraipena;
- Banakako sostengu-produktuen balizko erabiltzailea, funtzionalitate aldagarriekin.

## 6. tipologia

*Gizarte- eta hezkuntza-faktore ugari direla eta, ohikoa da nahitaezko hezkuntzaren osteko etapan (HHE, erdi-mailako heziketa-zikloak, goi-mailako heziketa-ziklora sartzeko ikastaroak, etab.) hezkuntza-sistemara itzultzen diren ikasleak aurkitzea. Kasu askotan, curriculum-sarbiderako baliabide profesional espezifikoak behar izaten dituzte –adib. zeinuhizkuntzako interpreteak (ZHI)–; beste batzuetan, informaziora heltzeko curriculum-neurriak, eta banakako tratamendu espezifikoak ere bai ahozko hizkuntzetan. Halaber, gorreria duten eta jatorrizko herrialdeetako zeinuhizkuntzetan komunikatzen diren gazte migratzaileak ere gehi daitezke sistemara.*

- *Beste faktore batzuk:*

- Aurreko hezkuntza-ibilbidea komunikazio- eta curriculum-esparruan;



- Ikastetxe modalitatea eta eskatutako ikasketak: itundua, pribatua, bigarren aukera, etab.

## 5.2. Entzumen–desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza–erantzunerako neurriak

Inklusioari buruzko eztabaidak bere bilakaera izan du, eta gaur egun badakigu kokapen fisikoarekin lotutako gaiak behar bezala bereizi eta ingurune sozial eta emozionalari lotutakoekin bete eta osatu behar direla (Powers, 2002<sup>51</sup>). Egiaz axola duena ez da ikasleak zer leku fisikotan dauden, baizik eta hezkuntza-sistemek (guztiak) ikasle horien ezaugarrietara egokitutako konponbideak aurkitzeko ahalmenik baduten ala ez, berorien garapen linguistikoa, emozionala, soziala eta akademikoa ahalbidetzeko.

Gai horiek erabakigarriak dira entzumen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntzaren plangintzan, eta are erabakigarriagoak kontuan hartzen eta onartzen badugu haien pertenezia edo lotura «bikoitza eta konplexua»: gorreria duten pertsonen kolektiboarekin, batetik, eta, oro har, entzuten duen gizartearekin, bestetik. Horregatik, gizarteak aukerak eskaini behar dizkie trebetasunak eta gaitasunak garatzeko, horiek gabe ezingo bailirateke pertsona seguru gisa hazi, harremanak izanez eta gizartean ahalik eta modu burujabe eta gogobetegarrienean bizitzeko.

Eztabaida hori, beste arrazoi batzuen artean, ikasle gorren dibertsitatetik eta beroriei buruz aurrez ezarrita dauden ideietatik jaiotzen da.

Garrantzitsua da ikastetxeetako errealitate sistemikoa bistatik ez galtzea, ikasle horiei kalitateko irakaskuntza ahalbidetuko dieten aldaketak sartu ahal izateko. Eskola inklusiboaren garapenak aldaketak eskatzen ditu kulturari, politikan eta hezkuntza-jardunbideetan.

<sup>51</sup>POWERS, S. (2002). «From Concepts to Practice in Deaf Education: A United Kingdom Perspective on Inclusion». *Journal of Deaf Studies and Deaf Education*, 7(3), 230-243.

Aldaketa horiek ikastetxea konfiguratzeko duten plano edo azpisistema guztiak zeharkatu behar dituzte<sup>52</sup>:

- eskola-kultura edo nortasun-ezaugarriak;
- hezkuntza-ekintza orientatzen duten helmugak eta balioak;
- haietarantz aurrera egiteko behar diren oinarritzko antolakuntza-printzipioak;
- eskola-politikak edo curriculum-proiektuak, programazioak edo plan espezifikoak elaboratzeko, garatzeko eta ebaluatzeko prozesuak;
- ikasgeletako praktikak;
- práctica de las aulas.

Hezkuntza inklusiboaren oinarrian dago aitortzea hainbat desberdintasun daudela bai ikasteko moduan, informazioa jaso eta prozesatzeko eran, ingurunearekin erlazionatzeko moduetan, interes eta lehentasunetan, gizarte-sentimendu eta -trebetasunetan, eta abar. Horretarako, ezinbestekoa dirudi irakaskuntza ikuspegi konplexu batetik planteatzea, ikasle guztiei ikaskuntza-prozesuetan parte hartzeko aukera segurtatzearen.

### 5.2.1. Hezkuntza-erantzunerako neurriak ikastetxe mailan

Orientazio inklusiboa duten -eta, beraz, ikasle guztiei hezkuntza hobea eskaini nahi dieten- ikastetxe guztien izendatzaile komun nabarmena da arreta eta ahalegin berezia eskaintzen diotela eskola-kultura, ekintza-planak eta eguneroko praktikak ikuspegi kritiko batetik berrikusteari. Horretarako, eta beste ezereen aurretik, hainbat arrazoi direla medio, ikasle jakin

<sup>52</sup>DOMÍNGUEZ, A. B.; VELASCO, C. (2013): Estrategias, recursos y apoyos para la inclusión del alumnado sordo. En Discapacidad e inclusión: manual de docencia. Koord.: Verdugo, M. A. eta Schallock, R. Amarú Ediciones. Salamanca.

batzuei ikaskideen baldintza berberetan ikasteko eta parte hartu ahal izateko dituzten aukerak mugatzen dizkieten «oztopoak» identifikatu beharko dira.

Gorreria duten Ikasleen inklusioa sustatzeko ikastetxean beharrezkoak diren egiturazko aldaketen artean, honako hauek aipa ditzakegu:

a. Metodologia aktiboa eta antolamendu-egitura malguak:

Ikastetxe batean lankidetza- eta sostengu-sareak ezarri eta garatu ahal izateko modu bakarra hau izango da: ohiko antolamendu-planteamenduetatik lankidetza eta elkarren arteko lana funtsezkoak izango diren beste dimentsio zabalago batera igarotzea. Planteamendu berri horrek hautsi egiten du «irakasle bat, talde bat» eredua: ordutegi estandarizatuak, testuliburuaren nagusitasuna, ikasleen arteko elkarren mendekotasun indibidualista edo lehiakorreko egiturak, arloak ardatz dituzten irakaskuntza-egiturak, etab... eta beste printzipio pedagogiko batzuk garatzeari ekiten zaio, hala nola:

- Ikasteko eta parte-hartzeko irisgarritasun unibertsala bultzatzea eskola inklusiboaren markoan. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren (IDU)<sup>42</sup> printzipioek horiek garatzeko jarraibideak ematen dituzte.
- HEZIBERRI 2020 planean jasotako oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzea.
- Ikaskuntzaren printzipioak lehenestea (jarduera, motibazioa, autonomia...).
- Haurrak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen bultzatzea.

Printzipio horiei erantzuteko, honako hauek planteatu daitezke:

- Dagoen dibertsitatea kontuan hartzen duten curriculum-diseinuak bultzatzea planteamenduen hasieratik.

- Oinarrizko gaitasun guztiak garatuko dituzten hezkuntza-jardunbideak bultzatzea.
- Haur bakoitzaren hurbileko garapen eremuan lan egitea, sostengu materialak edo pertsonalak emanez.
- Haurren oinarrizko beharrianak estaltzea ahalbidetzen duten giroak sortzea, hala maila fisikoan nola emozionalean.
- Posible egitea irakasleak ahalik eta kokapen egokiena izan dezan ikasgelan. Lekua planifikatzea, ikasleek ezpain-aurpegi irakurketa egiteko eta ikusmen-laguntzez baliatzeko aukera izan dezaten.
- Lan heterogeneo eta elkarlaneko mailak antolatzea.
- Ikasle guztiak jardueretan parte har dezaten erraztea, bai entzumen-desgaitasuna duten ikasleek, bai eta beste maila edo beharrian batzuk izan ditzaketen ikasle 'entzuleek' ere.
- Neurri ohiko edo arruntetatik abiatzea, eta neurri espezifikoak benetan beharrezkoak diren kasuetarako gordetzea.
- Kasu bakoitzean komeni den hizkuntza-erregistroa erabiltzea. Hizkuntza desberdinekin (zeinu-hizkuntza eta hizkuntza mintzatua edo idatzia) lan egitea hainbat lan-eremutan eta ikasle guztiekin, gorra edo entzuleak izan.
- Ikasgelaren kontzeptua gainditzea, ikasgela barruko eta kanpoko espazio berriak sortuz, toki horietan egin daitezkeen zereginen arabera.
- Irakaskuntzaz kanpoko espazioak (jolastokiak, jantokia...) ikaskuntzarako eta hazkunde pertsonalerako espazio gisa hartzea.
- Mota guztietako materialak erabiltzea eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea, testuliburua bitarteko bat gehiago izanik eta ikus-entzunezko material mota guztiak erabiliz.

- Eskola bere ingurunera zabaltzea, eta ingurune sozial eta kulturalak eskaintzen diguna ikaskuntzarako erabiltzen saiatzea.

b. Ikastetxeko baliabideak erabiltzea lankidetzako marko baten barruan

Baliagarria gerta daiteke **irakasleen arteko sostengu-taldean esperientzia**. Eskola barruan elkarri sostengua emateko modu bat da, non irakasle talde batek beste lankide batzuek planteatutako arazoan analisisian eta konponbideen bilaketan parte hartzen duen.

Irakasleen artean lan egiteko beste modu bat **irakaskuntza partekatua** da, non hainbat irakaslek talde/gela berean elkarrekin lan egiten duten. Adibidez, gorreria duten ikasleak taldekatzen diren zentroen kasuan, esperientzia batzuetan tutore eta tutorekide batek elkarrekin lan egiten dute ikasgelan (tutoretza partekatua), komunikazio-beharrizanei erantzuteko; bata ZH-ren erreferentzia izango da, eta bestea, berriz, AHrena<sup>53</sup>; irakaskuntza elkarrekin planifikatu eta garatzeari esker, ikaskuntzarako sarbidea erraztea lortzen dute.

Irakasleen arteko harremana hezkuntza-komunitatean parte hartzen duten guztien arteko lankidetzako harremanetara hedatu behar da.

Bestalde, **ikasleen arteko lankidetzako** baliabide lagungarria da ikaskuntzarako, gizarte-trebetasun eta -jokabideak garatzeko eta desberdintasunei buruzko errespetu- eta balorazio-jarrera bat mantentzeko.

Aintzat hartu beharreko beste eredu bat **berdinen arteko tutoretza** da; ikasle batek ikaskide bati irakatsiz ikasten du, eta ikaskide hori, berriz, jasotzen duen laguntza

<sup>53</sup>ZH eta AH: Zeinu-hizkuntza eta ahozko hizkuntza. Gorreria duten pertsonen buruzko literatura espezifikokoan erabili ohi den terminologia, hiztunak eta/edo zeinu-hizkuntzan mintzatzen direnak izan..

pertsonalizatuaz baliatzen da ikasteko. Prozesu hori adin bereko edo desberdinetako ikasleekin egin daiteke.

c. Irakasleen gaitasunak eguneratzea:

Irakasleen prestakuntza funtsezko zutabeetako bat da entzumen-desgaitasuna duten ikasleei erantzun inklusiboa eman ahal izateko.

Irakasleek erantzun hori planifikatzeko, honako alderdi hauek ezagutu behar dituzte: entzumena galtzeak pertsonaren garapenean izan ditzakeen ondorioak, ikasle horien ikaskuntza eta parte-hartzea nola bultzatzen den, komunikazio-oztopoak ezabatzen edo arintzen laguntzen duten estrategiak, zer alderdik laguntzen duten komunikazio-gaitasuna eskuratzen, eta abar. Azken batean, irakasleen -arruntak zein espezifikoak izan- prestakuntza eta sentsibilizazioa kontuan hartu behar dira hezkuntza-erantzun egokia ematen laguntzen duten faktore horien artean.

d. Lan interaktiboa familiarekin:

Hezkuntza-ekintzak familiaren lankidetzara aktiboa eskatzen du: eskolan esku hartzetik harago iristen da.

Hezkuntza, hitzaren zentzu zabalenean, haurra jaiotzen den une beretik hasten da, eta familia da, hain zuzen, beren seme edo alabari buruzko hainbat erabaki hartu behar dituen.

Haurra eskolan hasten denean, eskolaren eta familiaren artean komunikazio ona ezartzen saiatu beharko da, gurasoak orientatu ahal izateko, beren ondorengoaren hezkuntza-aurrerabidean lagundu dezaten.

Lankidetzara hori eraginkorra izango bada, eskolak koordinazio estua izan behar du haiekin, bai eskolako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren alderdi zehatzei dagokienez, bai eta familiek seme-alaben garapen harmonikoa eta orekatua bultzatzeko egin dezaketinari begira.

- e. Ikasleek hezkuntza-marko inklusiboan parte hartzea erraztuko duten neurriak erabiltzea:

Eskolak entzumen-desgaitasuna duten ikasleei burubide ona eta gizarteratze handiagoa ahalbidetuko dien trebetasunak garatzeko honako hauek egin behar dira:

- PANiztasunarekiko jarrera positiboak sustatzea, kasu zehatz honetan, entzumen-desgaitasuna duten pertsonetikiko.
- Garapen harmonikoa erraztuko duen eta berdinekin nahiz 'entzuleekin' elkar eragiteko aukerak eskainiko dituen ingurune sozial eta afektibo bat sortzea.
- Komunikazio-interakziorako tresna modura eta irakaskuntzarako hizkuntza gisa, zeinu-hizkuntzan elkar eragitea, hala eskatzen duten kasuetan.
- Ikasgelan entzumenaren funtzionaltasuna erraztuko duten sostengu-produktuak erabiltzea.

### 5.2.2. Hezkuntza-erantzunerako neurriak ikasgela mailan

#### a.- Komunikazioa errazteko neurriak

Komunikazioa zailtzen duten oztopoak ezabatzeko edo murrizteko estrategia batzuk honako hauek dira:

- Begi bidezko kontaktua eta ikusizko arreta ahalbidetuko dituen kokapena segurtatzea: «adi egotea eta begiratzea» behar diren alde zuzeneko urratsak dira mezua ikasleengana iristeko.
- Taldeko saio edo lanetan, ikasleei hitz egiteko txanda errespetatzeko eskatu behar zaie, denek aldi berean ez hitz egiteko eta non dauden adierazteko parte hartzeko asmoa dutenean.

- Ona izango da seinalea/zarata hobetzeko kontrol-neurriak ezartzea hezkuntza-inguruneetan (ikasgela, jangela, aretoak, gimnasioa,...); adibidez, gomak jartzea aulkien hanketan, edo semaforoak instalatzea entzumen-kontrolerako...

Ildo horretan, «CLAVE<sup>54</sup> entzumen-urritasunerako arreta» elkarteak ikastetxeetarako urrats batzuk proposatzen ditu zarata murrizteko:

- Kanpo-zarata sortzen duten ikasgelatik kanpoko jardueren ordutegiak planifikatzea.
- Aulkien eta idazmahaien hanketan babesgarriak ipintzea.
- Feltroa edo goma ezartzea erretilu eta material-kutxen barruan, materialak jasotzean sortzen den zarata murrizteko xedearekin.
- Ez erabiltzea, ahal bada, metalezko kutxatila eta hezkuntza-materialik.
- Gomazko zola duten oinetakoak erabiltzea
- Ikasgelako jarduera-eremuak mugatzea, alfonbrak, kortxoa edo goma erabilia.
- Argi-iturri isilak erabiltzea.
- Kortxoz edo beste material xurgatzaile batez egindako panelak edo irudi apaingarriak zintzilikatzea.
- Hormak kotoizko bigungarri batekin estaltzea edo kortxozko panelak ezartzea hormetan.
- Ikasleei arduraz jokatzeko eskatzea, ikasgelako gainerako kideen ongizatea errespetatzeko.

Ekintza horiek guztiek, bizi-kalitate hobea ez ezik, arreta eta errendimendu handiagoa ekar dezakete ikastetxeetara, eta gizarte osasungarriagoa lortzen lagun dezakete, akustikaren aldetik.

<sup>54</sup><http://www.oiresclave.org/>.



b. Ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea errazteko estrategiak.

Hasieratik informazioa irudikatzeko eta adierazteko moduen dibertsitatea eta motibatze modu desberdinak kontuan hartuko dituzten proposamen didaktikoak diseinatuz gero (zentzu horretan, oso interesgarria da Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren -IDU- markoa), praktika inklusiboak egin daitezke, baita ondoren egokitzapenak egin beharra murriztu ere, ingurune bereizleetako praktika baztertzailak eta proposamenak saihesten baititu.

Hona, ondoren, entzumen-desgaitasuna duten ikasleek ikasgelan ikasteko eta parte hartzeko oztopoak kentzen lagun dezaketen estrategia, baliabide eta sostengu batzuk:

- Helburu eta edukiei buruzkoak:

- Zeinu-hizkuntza komunikazio-hizkuntza gisa edo ikasgelako hizkuntza-paisaiaren barruan erabiltzen den kasuan, helburuak, edukiak eta planifikatutako jarduerak ezartzea, hura erabiltzearen bitartez elkarreragin ahal izateko.
- Gorreriarri buruzko oinarrizko alderdiei buruzko edukiak sartzea.
- Oztopoak kentzeko sostengu-produktuen (baterien kontrola, mantentze-lan orokorrak, ...) kontrola eta mantentzea erraztea.

- Jardueri buruzkoak:

- Askotariko jarduera-abaniko bat eskaintzea, interes, ikasteko erritmo eta ikasteko modu desberdinei erantzun diezaieten.
- Ikasgelaren barruan eta denbora-tarte berean hainbat motatako jarduerak bateratuko diren momentuak ezartzea. Horrela, sostengurako irakasleen parte-hartzea edota hainbat motatako truke pertsonalak errazten dira, eta baliabide didaktikoei probetxua ateratzen zaie.

- Ikasleei paper aktiboa jokatzeko ahalbidetuko dieten jarduerak proposatzea.
- Zailtasun maila desberdineko jarduerak diseinatzea.
- Jardueretan ikusmen-euskarriak eskaintzea: eskemak, gidoia, bideoak, kontzeptu-mapak, hitz giltzarriak, ...
- Hainbat komunikazio-kanalen bidezko jarduerak diseinatzea, horrela, zeinu-hizkuntza eta ahozko hizkuntza, hitz osatua eta abar aldi berean erabiltzeko aukera emanez.
- Laguntza espezifikoak ematea ikasgelako jardueraren aurretik edo ondoren.
- Jarduera bat egiteko denbora handitzea.
- Norbanakoari zuzendutako jarduera osagarriak edo ordezkioak gehitzea.
- Jarduerak diseinatzean kontuan hartu beharrekoak:
  - Haien gauzatzeko egingo diren truke pertsonalak: jardueren arabera, proiektuen arabera, lankidetzeta-taldeetan, tailerretan, ...
  - Espazioaren antolaketa, kontuan izanik, batzuetan, gelan laguntzeko sostengu profesionalak erabiltzen direla: zeinu-hizkuntzan komunikatzen diren irakasleak edo sostengu-produktuak.
  - Denboraren antolaketa. Baliteke zenbait ikaslek saio espezifikoak behar izatea ohiko ikasgelatik kanpora, edota saioaren parte batean soilik egon behar izatea...
- Bitarteko eta material didaktikoei buruzkoak:

Ikasgelan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan erabilitako bitartekoak eta materialak aztertzeko orduan, batetik,

horien ekoizpena eta lanketa har daiteke kontuan, eta, bestetik, ikasgelan duten erabilpena eta ezarketa.

Ekoizpenari eta elaborazioari buruz, kontuan eduki behar dira:

- Askotariko baliabideak eta materialak eskaintzea, ahalbidetuko dutenak informazioa irudikatzeko eta adierazteko modu desberdinei eta ikasleen hainbat motatako motibazioei errespetua erakustea.
- Aukeratutako gaia edo gaiak.
- Dokumentazio prozesua.
- Erabiliko den euskarri teknikoa.
- Hizkuntza-erregistroa, bai eta material didaktikoan erabilitako teknizismoak ere; hizkera ikaslearen adinera egokituko da,
- hau da, ikasle horrek ulermen-gaitasunean duen mailara...

Ikasgelako erabilerari eta ezarketari dagokionez:

- Materialak edukiei buruz eskaintzen duen ikuspegia
- Proposatzen diren estrategia didaktikoak, hau da, zer baliabide proposatzen dituen materialak ikaslearengana era pertsonalizatuan egokitzeko, materialak testuinguruan jar daitezkeen edo ez, banakako edo taldeko lana eskatzen duen, zer ebaluazio mota iradokitzen duen eta, beharrezkoa izanez gero, erraz egokitu ote daitezkeen.
- Materialak zer rol ematen dion irakaslearen lanari: erabakiak hartzeko aukera ematen duen, ea material osagarriak erabiltzera bultzatzen duen, proposamen bereiziak ematen dituen...

- Materiala erabiltzeko zer antolaketa-mota behar den: ikastetxeko irakasle-taldean arteko lana eragiten duen, lan pertsonalizatua sustatzeko den, ikasleak talde-lanean aritzeko...

c. Baliabide eta produktu teknikoak ikasgelan ikaskuntza sostengatzeko:

Aurrez planteatutako estrategia guztiez gainera, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntzarako oso lagungarriak izan daitezkeen zenbait baliabide tekniko espezifiko daude.

**c.1. Komunikazioari eta hizkuntzari laguntzeko sistema osagarriak<sup>55</sup>. Hauek nabarmenduko ditugu: Hitz Osatua eta Komunikazio Bimodala.**

- Hitz osatua (HO):

Ezpain-aurpegi irakurketa osatzeko sistema bat da: hizketa eta fonema ikusezinak bistaratzea errazten du, baita anbiguotasunak ezabatzea ere. Gaztelaniazko bertsioan, eskuaren zortzi konfigurazio ditu (kontsonanteak identifikatzeko) eta hiztunaren aurpegiko hiru posiziotan – bokalen arabera– gauzatzen dira. Hitz Osatuan soinuak dira osatzen direnak, eta ez letrak, halako moldez non, antzeko irudi bisuala dutenean, adibidez, /m/, /p/, /b/, eskuzko osagarri desberdinak erabiltzen baitira; eta, alderantziz, osagarri berberak erabiltzen dira irudi bisualak argi eta garbi bereiz daitezkeenean, adibidez: /m/, /f/, /t/.

Honako hauek dira sistema honek eskaintzen dituen aukerak:

- Hizketaren pertzepzioa hobetzen du, anbiguotasunak ezabatzen dituelako.
- Garapen lexikoa eta morfosintaktikoa bultzatzen ditu.

<sup>55</sup>DOMÍNGUEZ, A. B.; VELASCO, C. (2013): *Estrategias, recursos y apoyos para la inclusión del alumnado sordo. En Discapacidad e inclusión: manual de docencia*. Koord.: Verdugo, M. A. y Schalock, R. Amarú Ediciones. Salamanca.

- Hizkuntza idatziaren ikaskuntza errazten du. Hitz Osatuaren sistemak irudikapen fonologiko osoak eta zehatzak garatzeko aukera ematen du, eta horrek aukera ematen die gorreria duten ikasleei idatzizko hitzaren ezagutze-prozesuetan erabiltzeko (Alegría eta Domínguez, 2009).
- Sistema nahikoa erraz ikasten da.
- Edozein hezkuntza-sistemarekin bateragarria da.

Aitzitik, kontuan eduki beharreko zenbait muga ere baditu Hitz Osatuak:

- Ez die erabiltzaileei komunikaziorako interakzio goiztiarrak hasteko tresnarik ematen. Ez du errazten haur gorraren soinu-ekoizpena. Hizkuntza ulertzen laguntzen du.
  - Ez da sistema egokia gorreria duten haurrei hizketako soinuak ekoizten irakasteko. Eskuzko osagarriek ez dute ematen soinuen ekoizpenari buruzko informaziorik; ez dute irakasten nola artikulatu, baizik eta zer artikulatu. Ez ditu konpontzen hizketa ulertzeko zailtasunak.
  - Etengabeko arreta eta borondatezkoa eskatzen du.
- Komunikazio bimodala:

Komunikazio Bimodala (KB) edo «zeinu-egitura idatzia» komunikazio-sistema osagarri bat da. Hizkuntza mintzatuarekin batera, eta aldi berean, zeinuak (gehienak zeinu-hizkuntzatik hartuak) erabiltzea eskatzen du, eta bere helburua haur gorrari ahozko hizkuntza bistaratzea da. Horrek ez du esan nahi, hala ere, bi hizkuntzak aldi berean erabiltzen direnik: zeinu-hizkuntza eta ahozko hizkuntza. Mezua bi modalitateetan adierazten da, aldi berean, baina oinarri-hizkuntza, esaldiaren ordena markatzen duena eta esaldien sintaxia zehazten duena, ahozko hizkuntza da. Zeinuak aho-ekoizpenei laguntzera mugatzen dira.

Honako hauek dira sistema honek eskaintzen dituen aukerak:

- Komunikazio-tresna eraginkorra eskaintzen du, txikitatik erabil dezaketena, bai ikasleek, bai haien senitartekoez eta bai hezitzaileek.
- Ikasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzen du.
- Sistema erraza da, bai ikasteko eta bai erabiltzeko, hala profesionalak nola etxekoak.

Muga hauek ditu:

- Ahozko ekoizpena eta zeinu bidezkoa aldi berean ematea zaila da bietako bat nolabait pobretu edo murriztu gabe.
- Sistema bimodalak ez dira guztiz eraginkorrak hizkuntza mintzatuaren egitura azpi-lexikala bistaratzeko. Ez dute elementurik eskaintzen ahozko hizkuntzaren elementu fonologikoak bistaratzeko, eta alderdi hori ezpain-aurpegi irakurketaren esku uzten dute.

## c.2. Sostengu-produktuak:

### 1. Banakako erabilerakoak:

#### - Audifonoak.

Erabilera pertsonaleko gailuak dira, erabiltzailearen premietara eta entzumen-erantzunera egokituak; soinuak anplifikatzeaz arduratzen dira. Teknikoki, kalitate handiko anplifikadoreak dira. Entzumen-galeraren eta duen entzumen-hondarraren kalitatearen arabera, entzumen-entrenamendu egokia eginez eta audifonoak etengabe erabiliz, emaitza onak lor daitezke.

Azken urteotan, entzumen-informazioaren tratamendurako teknologia digitalaren garapenarekin, aurrerapen eta hobekuntza ikusgarriak egin dira hala berorien ezaugarrietan nola prestazioetan.<sup>56</sup>

<sup>56</sup>VELASCO, C.; PÉREZ, I.(2009): «Sistemas y recursos de apoyo a la comunicación y al

Zenbat eta entzumen-galera txikiagoa -hau da, zenbat eta entzumen-hondar handiagoa eduki-, audifonoen aprobetxamendua are hobea da. Entzumen-galera sakona denean, horietatik lortzen den onura dezentez mugatuagoa da.

Nolanahi ere, banakako edozein laguntza-produkturekin lortutako emaitzak baldintza ditzaketen elementuak honako hauek dira:

- *Erabiltzailearen distantzia soinu-iturriarekiko.* Zenbat eta handiagoa, orduan eta okerrago jasoko da soina.
- *Soinuaren dardara.* Soinuak toki itxi batean izaten duen islapenen ondorioz sortutako fenomeno akustikoa da. Soinuaren jatorrizko iturriak igorpena eteten duenean, apur batez irauten du soinuak. Esparruen baldintza akustikoak garrantzitsuak dira soinu-seinalearen kalitatea hobetzeko.
- *Seinalea/zarata.* Ezaugarri horrek honako honi egiten dio erreferentzia: transmititutako soinu-seinalearen potentziaren -ahotsa, adibidez- eta hura lohitzten duten beste elementu batzuen potentziaren -adib. ikaskideen ahotsak edo gela bateko aulkien hotsak- arteko erlazioari. Azken horien potentzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta zailagoa izango da seinale nagusia entzumen-baldintza onetan jasotzea.

#### - Kokleako inplantea

EGailu honek elektrikoki estimulatzen ditu kokleako nerbio-zuntz hondarrak, entzumen-galera larria edo sakona duten pertsonen entzumen-funtzionaltasuna gaitzeko. Horretarako, kokleako inplantearen prozesadoreak, seinale akustikoak elektriko bihurtu ondoren, modu tonotopikoan estimulatzen ditu kokleako nerbio-zuntzak.

Kokleako inplantea audifonoen bidez ez entzumen egokirik lortzen ez denean eta hizketaren ulergarritasun askiesgarririk lortu ezin denean egiten da; eskuarki, entzumen-galera larria eta sakona denean.

Sostengu tekniko honetan bi parte bereizten dira: kanpoko (mikrofonoa eta bobina transmisorea dituen prozesadorea) eta kirurgia bidez ezarri beharreko barneko elementua.

Oro har, inplantearen ondorioz, pertsona gorrek hobera egiten dute entzumenean, hizketaren pertzepzio eta ekoizpenean eta hizkuntzaren garapenean; hala ere, desberdintasun indibidual nabarmenak daude gorreria duten haurren artean lortzen diren onurei dagokienez, zenbait aldagaien arabera: gorreria haurraren zer adinetan hasi zen, iraupena, inplantea jarri zen adina, harekin izandako esperientzia, komunikazio-gaikuntzan egindako lana, komunikazio-modua, maila intelektuala, inplante mota, etab.

Horregatik, «emaitzen sakabanaketa eta dibertsitate handiagatik, kokleako inplantea jarri zaien pertzepzio-trebetasunen pronostikoa egiteko zailtasunengatik eta esku-hartze programei eta komunikazio-ereduei buruzko egungo ikerketak hasi berriak direnez, ez dago kasu guztietan aplika daitezkeen ondorioak ateratzerik» (Gorospe, J. eta Muñoz, C., 2016)<sup>57</sup>

### - Hezurrean txertatutako inplantea

Giza gorputzak, modu naturalean, bi modutara gida ditzake soinuak: aire bidez eta hezurren bidez. Aire bidezko gidatze-prozesu horretan, soinua entzumenkanaletik, erdiko belarrian zehar, barneko belarriraino (kokleara) heltzen da. Hezurren bidez gidatzeko

<sup>57</sup>GOROSPE, J.; MUÑOZ, C. (2016): El Implante Coclear en el contexto de la atención a la deficiencia auditiva. Libro de Actas del Congreso de AELFA. Bilbao, 2016



prozesuan, berriz, soinua garezurraren bitartez transmititzen da. Eta, entzumen-bidea hezurrezko osagaiz inguratuta dagoenez, soinuak kanpoko eta erdiko belarria saltatu eta, zuzenean, barneko belarrira (kokleara) igaro daiteke. Emaizta, transmisioko entzumen-galera iraunkorren kasuan, distortsiorik eta atzera-elikadurarik gabeko soinua da.

Kanpoko edo erdiko belarran arazoak dituzten pertsonentzat, edo belarri batean entzumen-galerak dituztenentzat (alde bakarreko gorreria), soinu-informaziora heltzeko modu eraginkorra izan daiteke hezurrean txertatuta geratzen den inplantea.

## 2. Curriculumera sarbidea izateko:

### - Frekuentzia Modulatuko ekipamenduak

Ekipamendu horiek, batik bat eta funtsean, hezkuntza-ingurunean erabiltzen dira.

Entzumen-kalitatea ematen baitiete, izan ere, ikasleak erabiltzen dituen banakako sostengu-produktuei (audifonoak, kokleako inplanteak, hezurrean txertatutakoak, etab.).

Funtsean, alde batetik, soinu-iturriak eramango duen transmisore bat da -irakasleak, esate baterako-; eta bestetik, ikasleak bere banakako sostengu produktura -audifonoak edo kokleako inplantea- egokitutako hargailu bat. Tresneria horiek hezkuntza arloan erabiltzen diren beste teknologia batzuetara egokitu daitezke: ordenagailu pertsonala, arbel digitala,...

Aurrez aipatu dugun bezala, soinuaren pertzepzioa zaildu egin daiteke distantziaren, soinu-dardaren edo seinale/zarata handi baten ondorioz; horregatik, ekipamendu hauek lagungarri dira faktore horiek entzumenaren kalitatea oztopatu ez dezaten.

### - Begizta edo uztai magnetikoa

Begizta edo uztai magnetikoa soinu-seinalea uhin magnetiko bihurtzeko gai den kable bat da. Soinu-seinalea, beraz, hitz egiten duen pertsonak erabiliko duen mikrofono batetik etorriko da, eta, zuzenean, indukzio-bobina bat duen entzumen-protetira helduko da.

Pertsona batentzat bakarrik, edota taldean erabil daiteke. Kasu horretan, kablea egokitu nahi den eremuaren inguruan jartzen da, adibidez, ikasgela edo ekitaldi-areto batean, edo zineman. Hala, audifono edo inplanteen erabiltzailea perimetro egokituaren barruan egon beharko da, eta haren barruko edozein puntutan mugitu eta kokatu ahalko da.

### - Laguntza eta baliabide bisualak

Badira zenbait baliabide bisual, hainbat egoeratan erabilita, irakasleentzat lagungarri izaten direnak entzumen-desgaitasuna duten ikasleekiko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan sortzen diren jarduerak egokitzeko orduan:

- Baliabide informatikoak.
- Irudien azpigituluak.
- Argi-seinaleak: Beharrezkoak garrantzi handiko egoerak nabarmendu behar direnean -larrialdiren bat, abisu bat...- edo ohiko soinu seinaleekin batera ikusteko: eskola hasteko txirrina, klase batetik bestera aldatzekoa, etab.
- Informazio-panelak erabiltzea.

### Baliabide eta laguntza teknikoen erabilera eskolako hainbat espaziotan<sup>58</sup>

	Ikasgela	Liburutegia, infor- matikako gela, laborategia	Ekitaldi aretoa	Idazka- ritza	Gimnasioa jangela	Patioa komunak korri- doreak eskailerak	Igogai- luak
F.M.			•				
Zirkuitu itxiko sistemak (Begizta Magnetikoa)	•	•		•	•		
Ikus-entzun- ezkoen azpitoluak							
Zuzeneko azpitoluak							
Testu- telefonoa				•			
Informazio- panelak eta seinaleztatzea	•				•	•	
Iragarki-ohola informazio eguneratu- arekin			•	•	•		
Kalitateko megafonia		•	•	•		•	
Argi-seinaleak	•					•	•
Barneko- kanpoko ikusmen- sarbide partziala		•				•	•
Beirazko hormak/ateak							•
Zarata kontrolatzeko sistemak					•		

<sup>58</sup>Hemen oinarritua: Fiapas (2007). Apoyo a la comunicación oral en el ámbito educativo. Orientaciones prácticas para la aplicación de recursos. FIAPAS.

### 5.2.3. Hezkuntza-erantzunerako neurriak norbanako mailan

#### a. Komunikazioa errazteko neurriak:

- Ikusmen-estrategien erabilera erraztea, besteak beste, ezpain-aurpegi irakurketa (EAI) hobeto egiteko aukera bermatze aldera: distantzia zaintzea soinu-iturritik hurbil egon daitezen, aurrez aurre hitz egitea, argiztapen-baldintzak zaintzea, ahoa eta adierazpena ondo ikustea eragozten duten oztopoak saihestea, artikulatzeko modua kontrolatzea, alegia, motelegi ez mintzatzea, ez artikulazioa gehiegi hanpatuz ere.
- Arreta banatutik eratortzen diren inplikazioekin kontuz ibiltzea hitz egitean edo zeinu-hizkuntzan mintzatzeko orduan: entzumen-desgaitasuna duen ikaslea ahoz ematen zaion mezu bat ulertzen saiatzen ari baldin bada, horretarako laguntza bisualak erabiliz, zaila izango zaio aldi berean apunteak hartzea. Gauza bera esan daiteke bideoak, diapositibak eta abar ikusteko jarduera bati buruz.
- Egiaztatu, intentzios ez berariaz, ikasleek ulertu dutela mezua. Ez da fidatu behar itxurazko baiespen- edo interes-keinuz, edo gaiari buruzko galderarik ez egiteaz.
- Komeni da ikasleari mintzagaia noiz aldatzen den abisatzea, bai eta eta jorratu beharreko gaia eta azalpenen edukia aurreratzea ere.
- Ez hitz egin denbora-tarte «luzeetan»; izan ere, esaten dena ulertzeko egiten den ahaleginak, eta ikusizko informazioez jabetzeko egin beharrekoak, esfortzu kognitibo handia eskatzen baitute.
- Entzumen-desgaitasuna duen ikaslearekiko komunikazio interaktiboa bultzatzea, horretarako hitz-txandak zorrotz errespetatuz.

- Interakzioetan zaindu honako alderdi hauek:
  - hitzaren txanda hartzean nolako postura-sinkronia duen, dagokion txanda hartzeko denbora ematea, bai eta azalpen lasaia eman dezan ere;
  - besteei hitz egiteko aukera erraz ematea;
  - txandak hasteko aukerak ematea;
  - ekarpenak zabaltzea edo birformulatzea (ez zuzendu);
  - frekuentzia modulatu irratian bat erabiltzen den kasuan, igorlea erabili daiteke hitz egiteko txanda errazten duen elementu gisa.
  
- b. Helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideak malgutzeari buruzko neurriak:
  - Helburu eta edukiei buruzkoak:
    - zenbait helburu eta edukiri lehentasuna ematea, garrantzi edo denbora gehiago eskainiz;
    - berorien denbora-aplikazioak aldatzea;
    - horietako batzuk sartzea edo ezabatzea.
  
  - Ebaluazioari dagokionez:
    - etengabeko ebaluazioa areagotzea;
    - egindako galderak ongi ulertu direla segurtatzea;
    - denbora gehiago uztea probak egiteko;
    - hizkuntzen ahozko ulermenaren baldintzak eta probak idatzizko ulermenean eta adierazpenean duten gaitasunera egokitzea.
    - idatzizko probetan: galdera laburrak egin; egiaztatu ulertzen dutela erabilitako hiztegia eta galdera; ezin bada idatzizko ebaluaziorik egin, ahozko ebaluazioa edo zeinu-hizkuntza bidezkoa egingo da.

c. Hizkuntzen tratamenduari buruzko neurriak:

Entzumen-desgaitasunaren zailtasun garrantzitsuetako bat ahozko hizkuntzetarako sarbidea da. Hezkuntza-sisteman, komunikazio-hizkuntzak euskara, gaztelania eta/edo ingelesa izan daitezke, eta gerta daiteke ikastetxeko curriculum- eta hizkuntza-proiektuak familiakoa ez den beste hizkuntza batean izatea.

Hala, kasu askotan, entzumen-desgaitasuna duten ikasleek beren lehenengo hizkuntza ez den beste hizkuntza batzuetan ikasten dute, eta, gainera, oinarrizko gaitasun-mailan. Horregatik, ikaskuntzarako sarbidea errazteko, hainbat neurri hartu behar dira:

- erabilitako materialen hizkuntza-egokitzapenak;
- ikaslearen gaitasun-hizkuntzari eta ikastetxeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruzko erabakiak hartzeko prozesua, haren curriculum- eta hizkuntza-proiektua kontuan hartuta;
- eskola-ingurunean sortutako informazioaren hizkuntza-egokitzapenak eta tokialdaketak;
- testuak ikaslearen sarbide-hizkuntzara eta gaitasun mailara egokitzea
- hezkuntzaren etapa bakoitzean Hezkuntza Sailak argitaratzen dituen dokumentuak balio funtzional handiko materialak dira **hizkuntzen curriculumak egokitzeko**<sup>59</sup> eorduan. Lotura zaileko hiru faktore elkartu nahi izaten

<sup>59</sup>[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/es\\_escu\\_inc/adjuntos/16\\_inklusibitatea\\_100/100015c\\_Pub\\_EJ\\_sordera\\_primaria\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100015c_Pub_EJ_sordera_primaria_c.pdf).

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/es\\_escu\\_inc/adjuntos/16\\_inklusibitatea\\_100/100016c\\_Pub\\_EJ\\_sordera\\_secundaria\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100016c_Pub_EJ_sordera_secundaria_c.pdf).

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/es\\_escu\\_inc/adjuntos/16\\_inklusibitatea\\_100/100017c\\_Pub\\_EJ\\_sordera\\_bachillerato\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100017c_Pub_EJ_sordera_bachillerato_c.pdf).

dira dokumentu horietan. Lehenik eta behin, entzumenaren galerak norbanakoaren hizkuntza-garapenerako dituen ondorioak. Bigarrenik, norbanakoak zer sarbide duen hezkuntza- eta gizarte-inguruneko hizkuntzetara. Eta, azkenik, ikasleen heterogeneotasuna, kontuan izanik lan honetan zehar agertu diren aldagaiek bai erantzuna eta bai balorazioa pertsonalizatuak izatea baldintzatzen dutela;

- zeinu-hizkuntzaren erabilpena, beharrezkoa den kasuetan, ikaskuntzak egiteko komunikazio-hizkuntza modura.

- d. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleek proba espezifikoak egiteari eta ebaluatzeari buruzko neurriak:

Gainerako ikaskideen kasuan bezala, hezkuntza-aukeren dibertsifikazioa handiagoa da entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzat. Hezkuntza-sistemak gaitasunak homologatzeko probak ezartzen ditu (unibertsitatera sartzeko probak, etab.), eta hainbat proba diagnostikoren bidez auto-ebaluatzen da: Ebaluazio diagnostikoa, PISA, ... Horregatik, entzumen-desgaitasuna izan eta proba horiek egiten dituzten ikasleek zenbait egokitzapen-neurri behar dituzte, probak egiteko:

- EBaldin ikaslea zeinu-hizkuntzaren erabiltzailea bada, eta baliabide profesional gisa zeinu-hizkuntzako interprete (ZHI) bat erabiltzen bada, komenigarria da interprete hori proba egitean aurrean egotea, bai proba egiteari buruzko jarraibideak argitzeko, bai eta, proba egiten ari den bitartean, ikasleari sor lekizkiokeen zalantzak argitu ahal izateko.

- Frekuentzia modulatu irratian erabiltzailea izanez gero, berriz, proba egin aurretik, probaren ardura duten profesionalak haren funtzionamenduari buruzko informazioa izan behar dute, hala, ikasleek errazago erabili dezaten. Are gehiago baldin eta proban hizketa ulertu behar bada edo entzumen-osagaiak badaude.

- Ezinbestekoa da aurreikustea, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, proba egiteko izendatzen zaien denbora luzatzea, izan ere, gainerako ikaskideei baino jarraibide

espezifikagoak eta luzeagoak eman behar baitzaizkie.

- Emandako jarraibideak eta sor litezkeen zalantzak behar bezala ulertu direla bermatzeko, komenigarria da ikasle horiek aretoaren lehen lerroetan kokatzea, baita informazio pertsonalizatua ematea ere.
- Probetako curriculum-konpetentziak ebaluatzeko orduan, komeni da gorrerik ikasleen idatzizko adierazpenean dituen ondorioak kontuan hartzea; izan ere, zailtasunak eta akats sistematikoak izan ditzakete idatzizko adierazpenean, entzumen desegokiaren ondorioz. Zailtasun horiek hainbat gramatika-akats sistematiko eta bereizgarritan gauzatzen dira idatzizko adierazpenean. Era berean, sor daitezke arazoak termino abstraktuetan edo lengoia metaforiko edo poetikoetan mintzatzen direnean.

Testu idatziak ulertzeari dagokionez, zailtasunak, batik bat, testu horien interpretazioan literaltasun handiegia egotetik etor daitezke, eta baliteke halakoak hainbat tipologiatako testuetan agertzea.

Nolanahi ere, ezaugarri horiek beste hainbat faktoreren mende daude, esku artean dugun dokumentuan aipatu izan den bezala, eta, horren ondorioz, gorreria duten ikasleen kolektiboa ezin dugu, inolaz ere, talde homogeneo gisa hartu, ez ahozko adierazpenetan, ez idatzizkoetan.

### 5.3. Erantzun aukerak ikastetxean. Eskolatzemodalitateak: inklusioa ikastetxe arruntean eta inklusioa taldekatze-zentroan

Hezkuntza-erantzuna emateak eskatzen du, ezinbestean, bermatzea ikasle guztiek, aukera berdinetan, kalitateko



hezkuntza jasotzeko aukera dutela, «sarbidea, parte-hartzea eta ikaskuntza eragozten edo zailtzen duten hainbat oztopo ezabatzen dituen hezkuntza, arreta berezia eskainirik ikasle ahulenei edo egoera ahulenean daudenei»<sup>60</sup>.

Existitzen diren hezkuntza-modalitateei dagokienez, perspektiba honetatik abiatzen gara: «*inklusioa ez da leku bat soilik*, baizik eta, funtsean, desberdinarekiko errespetu sakoneko jarrera eta balio bat, eta diferentziak ez oztopo gisa, baizik eta aukera gisa ikusteko konpromisoa hartzea» (Ainscow, 2008<sup>61</sup>; Echeita, 2006<sup>62</sup>; Powers, 1996<sup>63</sup>)<sup>64</sup>.

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza, historikoki, kolektibo horrentzako hezkuntza-eredu onenari buruzko eztabaidaren erdian egon da. Aurreko apartatu batean adierazi den bezala, EAEn, 70eko eta 80ko hamarraldien inguruan, ikasle horien hezkuntza-arreta, batez ere, ikastetxe espezifikotan ematen zen. Gaur egun, ordea, esparru inklusiboa da hezkuntza-erantzun horren ezaugarri nagusia, aipatutako ikasleek planteatzen dituzten premia bereizgarriak errespetatuz, betiere<sup>65</sup>.

kasle bakoitzarekin erabiltzen den komunikazio-modalitateak eragina du dauden hezkuntza-aukera batzuk edo bestek hautatzeko orduan. Nagusiki, bi aukera deskribatzen dira: ahozko aukera, non ahozko hizkuntzetan –ahozkoa eta idatzizkoa– irakasten eta ikasten den; eta ahozko/zeinuzko

<sup>60</sup>DOMÍNGUEZ, A. B. (2010). «Educación para la inclusión de alumnos sordos». *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*, 2009, bol. 3, 1. zk. (45-61)

<sup>61</sup>AINSCOW, M. (2008). *Understanding the development of inclusive schools*. London: Falmer Press (2. arg.).

<sup>62</sup>ECHAITA, G. (2006). *Educación para la inclusión o Educación sin exclusiones*. Madril: Nancea.

<sup>63</sup>POWERS, S. (2002). «From Concepts to Practice in Deaf Education: A United Kingdom Perspective on Inclusion». *Journal of Deaf Studies and Deaf Education*, 7(3), 230-243.

<sup>64</sup>DOMÍNGUEZ, A. B. (2010). «Educación para la inclusión de alumnos sordos». *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*, 2009, bol. 3, 1. zk. (45-61)

<sup>65</sup>Ikus 4.1.3 epigrafea: «Entzumen-desgaitasuna duten ikasleekiko arreta inklusiboaren eredua. Gizarte-planteamenduen eta garapen teknologikoaren inplikazioak»..

aukera, non hizkuntza mintzatueta n ikasten den (ahozko eta idatzizko gaitasuna), zeinu-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna garatzearekin osatuta.

Aukera desberdinak badira ere, berorien praktika aldatu egiten da, ikasleekin zeriakusia duten faktoreen arabera. Zeinu-hizkuntzak -hasierako komunikazio-hizkuntza da- aukera ematen du inguruko hizkuntzen ahozko eta idatzizko ikaskuntzarako zubi-goerak planifikatu eta errazteko.

Prozesuen eta hezkuntza-errealitate horien plangintza egin ahal izateko «oreka zail baina beharrezko bat ezarri behar da, ikasle guztien artean erkidea eta partekatua izango den arloaren eta, ikasle gorren irakaskuntzaren barruan, berezia eta espezifikoa izan behar duenaren artean»<sup>66</sup>.

### 5.3.1. Banakako inklusioan eskolatzeko eredia

EAEko entzumen-desgaitasuna duten ikasleek, gainerako ikasleek bezalaxe, edozein ikastetxetan eskolatzeko aukera dute, sare publikoan, itunduan edo pribatuan. Eredue horri, entzumen-desgaitasuna duten ikasleei dagokienez, «banakako inklusiokoa» deitzen zaio.

#### Ezaugarriak

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen ikaskuntzarako aukerak ez dituzte haien ezaugarri pertsonalek soilik baldintzatzen; aldiz, irakaskuntza/ikasleentzako prozesu modura ematen zaien hezkuntza-erantzunarekin duten elkarreraginak ere eragin handia du. Interakzio-dinamika horretan sor daitezke ikasleen ikaskuntzarako eta parte-hartzeko aukerak muga ditzaketen oztopoak.

Ikastetxeek beren praktikak berrikusi behar dituzte oztopoak hautemateko eta ezabatzeko, baliabideak, estrategiak eta sostenguak mobilizatuz. Horretarako, besteak beste, hezkuntza-

<sup>66</sup>DOMÍNGUEZ, A. B. (2010). Obra citada.

sistemako profesionalak izango dituzte: lurralde-koordinazioa entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzat, Berritzeguneko eskualdeko aholkularitzak eta ikastetxeko profesionalen taldea.

Antolakuntza eta arreta-modalitateak (sostengua eta baliabide pertsonalak)

Ikastetxe arrunta baldin bada, beharrezkoa da haurren ezaugarrien berri izatea.

Horrela, ikasle horiekiko esku-hartzeak modu askotariko erantzunak planteatzera eramaten du, ezaugarri bereizgarriak baitituzte hainbat elementuri dagokienez: entzumen-hondarren garrantzia, ahalmen kognitiboak, adina, eskolatzearen hasiera, familia, familia-interakzioaren kalitatea, laguntza teknikoez baliatzeko edo ez baliatzeko aukera, eta abar.

Oro har, esan dezakegu entzumen-desgaitasuna duten ikasleek beharizan orokor batzuk partekatzen dituztela:

- Inguruneko ahozko hizkuntzak horretarako asmoz ikastea, eskura dauden entzumen-hondarrak indartzearen eta estimulatzearen bidez;
- Komunikazio-kode erabilgarri bat era goiztiarrean bereganatzea eta garatzea, hizkuntza gabe geratzea saihestuz.
- Sare arteko garapen integraleko eta integratuko prozesu baten ikuspegia ez galtzea.

Bestalde, entzumen-desgaitasuna duten ikasleek, **beren izaera dela eta, zailtasunak izan ditzakete oinarritzko gaitasun batzuk** bereganatzeko orduan; esan liteke, beraz, ikasle horien hezkuntza-premiak bereziak direla, eta, ondorioz, laguntza handiagoa behar dutela, edo, behintzat, gainerako ikaskideek ez bezalako sostengua behar dutela. Adibidez, sostenguko irakasleak beharko dituzte (batez ere Audizio eta Hizkuntzakoak) eta, jakina, familiaren laguntza ere bai, horrela, ikasitakoa orokortzeko aukera gehiago eskaini ahal izateko.

Azken batean, ikasle horien irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hainbat diziplinaren arteko eginkizuna da, inplikaturako eragile guztiek parte hartu, lagundu eta beren artean koordinatu beharko direlarik. Ezohiko baliabide horiek ibiltariak izaten dira, eta, batzuetan, ez dira espezifikoak ikasle horientzat.

### Komunikazioari dagokionez

Ikastetxe arrunt batean, entzumen-desgaitasuna duten ikasleekiko komunikazio-ikuspegia ahozko hizkuntza da: euskara edo gaztelania.

Sostenguko irakasle edo AHI deituek (Audizio eta Hizkuntza irakasleak) zeinu-hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko gauza diren kasuetan ere, hizkuntza modu hori ikaslearen eta irakaslearen artean erabiltzen denean, ez du, eskuarki, solaskideekiko komunikazio-funtzio soziala betetzen.

- Indarguneak:
  - Etxetik hurbil eskolatzea, lekualdatze premiak saihestearren.
  - Haur bat baino gehiagoko familien kasuan, ikastetxe berean eskolatzeak hezkuntza- eta curriculum-proiektu bera partekatzea ahalbidetzen du.
  - Familiaren eta hezkuntzako ideologiaren artean doikuntza handiagoa lortzeko aukera.
  - Parte-hartze handiagoa eskolaz kanpoko jardueretan.
  - Eskola-ingurunean, handik kanpo eta alderantziz sortutako adiskidantzen jarraitutasuna eta sendotzea

### Baliabide profesionalak ikastetxe arruntetan

- Irakasle arruntak
- Irakasle aholkulariak (Haur eta Lehen Hezkuntza) eta orientatzailea (Bigarren Hezkuntza)

- Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleak
- Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI)

### Beste alderdi batzuk

Ikasle batek bere ikastetxean entzumen-desgaitasuna duen beste erreferenterik ez badu, ezinbestekoa da formulak abian jartzea topaketak, egoera partekatuak eta abar egin ahal izateko. Entzumen-desgaitasuna duten beste pertsona batzuegana hurbiltzeak eskaintzen dion balio erantsia lortzea da kontua. Pedagogia Terapeutikoko irakasleek eta Audizio eta Hizkuntzakoek (AHI) baliteke zeinu-hizkuntzako ezagutzarik ez izatea.

### 5.3.2. Eskolatze eredia entzumen–desgaitasuna duten ikasleen taldekatze–zentroan

Eredu hau EAEn sortu zen, Gipuzkoan, zehatzago esanda, 80ko hamarraldian, hausnarketa-prozesu sakonen ondoren. Aipatutako hausnarketen ondorioz, kontzeptu-aldaketa garrantzitsua etorri zen (*«eredu integratzailea ikasle gorrei hezkuntza-erantzuna emateko»*), eta hainbat baliabide profesional –irakasle espezialistak, logopedak eta teknikariak– eta entzumen-desgaitasuna zuten ikasleak, taldeka, ikastetxe arruntetara lekualdatuak izan ziren.

2000-2001 ikasturtean, Araba eta Bizkaiko taldekatze-zentroak definitu ziren, eta Gipuzkoan zeudenak erregularizatu egin ziren.

Bi urte lehenago, 1998an, hezkuntza-premia berezien antolamenduari buruzko legeria jarri zen indarrean, eta araudi hori funtsezkoa da ikasleei eman beharreko erantzunaren kontzeptu-aldaketarako. Marko horretan, gorreria duten ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan komunikazio-hizkuntza modura zeinu-hizkuntza erabiltzeko aukera aztertzen hasi ziren hiru lurraldeetan.

Hala ere, hasieran, modalitate hori Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan soilik jarri zen martxan. Ezarri zenetik hainbat urte igaro ostean, hezkuntza-egitura hori Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara hedatu zen.

Hala, modalitate horrek, entzumen-desgaitasuna duen populazio-dentsitatearen mendeko egitura bizia denez, ikasturte bakoitzean sortu diren beharizan errealei erantzun die. Beste hitz batzuekin esanda, taldekatze-zentro batzuk ikastetxe izateari utzi behar izan zioten matrikulazio-faltagatik, eta, aitzitik, hasieran ikasle gorrik ez zuten beste batzuk halakotzat hartu ziren, haietan entzumen-desgaitasuna zuten hainbat ikasle zeudelako matrikulatuta.

Ikastetxe horietan erantzun ona emango bada, badira funtzionamendu egokirako funtsezkoak diren zenbait balio: entzumen-galerak norbanakoaren garapenean eragiten dituen ondorioen ezagutza hobea izatea, eta erantzun integrala ikasle bakoitzari modu pertsonalizatuan egokitzea.

### Ezaugarriak

Entzumen-desgaitasuna duten zenbait ikaslerekin batera, ikaskide 'entzuleak' ere badituen ikastetxea da. Bere lehentasuneko helburuen artean dago ikasle horien parte-hartzea eta inklusioa, zeina ikastetxeko planean islatuko baita.

Eskolatze hori hezkuntza mailaren arabera ikasleari dagokion gelan gauzatuko da, eta gerta daiteke entzumen-desgaitasuna duen beste ikaskideren bat ere gela berean eskolatuta egotea, bere hezkuntza-prozesua partekatuz, gainerako ikaskideekin batera. Ikasgelan parte hartzeko eta ikaskuntzarako hartutako neurriak plangintzaren eta diziplinarteko lanketa pertsonalizatuaren ondorio izango dira<sup>67</sup>

Horretarako, ikastetxeko ohiko profesionalak edukiko dira, bai eta profesional espezifikoak ere. Talde honetan Pedagogia Terapeutikoko (PTI) edo Audizio eta Hizkuntzako irakasleak (AHI)

<sup>67</sup>Ikus 4. apartatua: Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza-sisteman.

egongo dira, zeinu-hizkuntza ezagutzen dutenak curriculum- eta komunikazio-sostengua emateko, eta Audizio eta Hezkuntzako irakasleak (AHI) edo logopedak ahozko komunikazioaren gaikuntza lantzeko.

Gorreria duten ikasleak taldekatzeko beste eredu batzuk ere badaude, eskualdearen baldintza orografikoen eraginez. Adibidez, Debagoienan eta Debabarrenean (Gipuzkoa), ikasleak barreiaketa geografiko handian daude, «*eskolatze partekatu*» batean parte hartzen dutelarik. Eskolatze horretan, ikastetxera joatea eta eskualdeko taldekatze-zentroko saio erkideak konbinatzen dira.

### Komunikazioari dagokionez

Komunikazio-sistemaren balorazioa hezkuntza-prozesuaren eta ahozko hizkuntzaren garapenaren arabera planifikatzen da. Eta etengabe berrikusten da.

### Eskolatze-modalitate honen prestazioak

- Entzumen-desgaitasuna duten ikasleekin komunikazio-bitartekotza egokia eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide profesional eta teknikoak dituen ikastetxea da;
- Entzumen-desgaitasunari eta haren premiei buruzko prestakuntza espezifiko handiagoa eta sentsibiltate handiagoa duen zentroa;
- Semearen edo alabaren antzeko ezaugarriak dituzten ikasleen presentzia handiagoa, bai eta gizarte- eta jokamolde-esperimentaziorako eremu bat ere;
- Garapen emozional orekatua izateko aukera, ikasle gorren eta 'entzuleen' arteko kontraste alderatua oinarri hartuta.
- Desgaitasuna duten eta ez duten beste familia batzuekin esperientziak partekatzeko zentro bat.

## Antolakuntza eta arreta-modalitateak (sostengua eta baliabide pertsonalak)

Taldekatze-zentroetan, entzumen-desgaitasuna duten ikasleak adinaren edo mailaren arabera dagokien gelan eskolatzen dira, gainerako ikasle «entzuleekin» batera eta, kasu batzuetan, gorrieria duten beste ikaskide batzuekin.

Sostenguak plan pertsonalizatu batean definitzen dira, eta ikasgela barruan nahiz kanpoan eman daitezke. Halaber, banakakoak edota talde mailakoak izan daitezke.

Ikasgela arruntean komunikazio-modalitatea, funtsean, ahozkoa izaten denez, ikasleak zeinu-hizkuntza edo beste sostengu bisual batzuk erabiltzen baditu (Hitz Osatua, Komunikazio Bimodala, oroitzapen-keinuak, eta abar), laguntza profesional espezifikoa izango ditu ikasgelan. Era berean, abian jarriko dira ikastetxean eta ikasgelan erabateko parte-hartzea gauzatzera zuzendutako neurriak<sup>68</sup> (irakaskuntza partekatua, lankidetzak, berdinen arteko tutoretza...).

- Indarguneak

Eskolatzeko-eredu honen indarguneak hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektore hauetan taldekatuko ditugu: hezkuntza-administrazioa (1), ikastetxea (2), ikasleak (3) eta familiak (4).

1. *Hezkuntza-administrazioari dagokionez*, entzumen-desgaitasuna duten ikasleak ikastetxeetan taldekatzeak honako hauek sortzen ditu:

- Arrazionalizazio eta eraginkortasun handiagoa baliabide espezifikoen horniduran, bai komunikazio-gaikutzarako eta bai ikaskuntzen irisgarritasunerako, ikastetxe bakar batean kokatuta egonik ez baitago batera eta bestera mugitu beharrik.
- Ikastetxean ardaztutako prestakuntza-planak eta hezkuntza berriztatze proiektuak ezartzeko aukera.

<sup>68</sup>Ikus 4. 5. apartatua, ikastetxeetan ikasleen inklusioa lortzeko estrategiei buruzkoa.



- Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen informazioarako sarbidea erraztuko duen talde egonkor eta finkatu bat egoteak aukera hauek ematen ditu:
  - materialak egokitzeko lanari (testuak, egoerak, programazioak...) errentagarritasuna ateratzea, egonkor-tasun-zentzuarekin, eta, nolana ere, inprobisazioa saihestuz;
  - hezkuntza-erantzun askotarikoa sistematizatu eta formalizatzea, ikasleen desberdintasun indibidualak estaltzeko (entzumen-galera desberdinak, bestelako ekipamendu teknikoak edo gorreriarri lotutako beste desgaitasun batzuk dituzten ikasleak);
  - etapa-aldaketak errazten dira; izan ere, entzumen-desgaitasuna duten ikasleekin ari diren profesionalak, koordinazioa, orientazioa eta jarraipena egiten dute haur-hezkuntzatik hasi eta nahitaezko hezkuntzaren osterara arte.
- 2. *Ikastetxearen ikuspuntutik* –zeina ikasleek, familiek, irakasleek eta irakasle ez diren gainerako langileek osatzen baitute–, entzumen-desgaitasuna duten hainbat ikasleren presentziak eta haiei erantzuteko behar diren baliabide profesionalak urteetan zehar edukitzeak honako hauek errazten ditu:
  - Iragazkortasun handiagoa egotea mota horretako ikasleen beharrezanaren aurrean.
  - Zentroko irakasle taldeak nolabaiteko egonkortasuna badu, horrelako ikasleak izateak aukera ematen die irakasleei haiekin hezkuntza-esperientzia metatzeko, bai eta estrategiei, beharrezanari, egokitzapenei eta abarri buruzko prestakuntza jasotzeko ere.
  - Horrela, bada, irakasle talde egonkor bat dagoenez, curriculumera sarbidea izateko egokitzapenak modu naturalean egiten dira, eta ez soilik entzumen-desgaitasuna duten ikasleei begira, ikastetxeko ikasle guztientzat baizik.

- Sentsibilizazio-ekintzak: ikasle kopuruak eta ikastetxeak fluxu hori onartu izanak ekar dezake, adibidez, urtero sentsibilizazio-jardunaldiak egitea gainerako ikasleekin edo familiekin.
- Baliabide espezifikoak dituen, hezkuntza-erantzunaren antolaketa malguagoa da.
- Eskolatik kanpoko jarduera modura, adibidez, zeinu-hizkuntza ikasteko oinarrizko ikastaro bat antolatzea planteatu daiteke, gainerako ikaskide 'entzuleek' mintzaira hori ikas dezaten.
- Posible da entzumen-desgaitasuna duten ikasleak bistarago egotea, horretarako ikastetxeko hizkuntza-paisaia bera erabilita.
- Eskolan bertan profesionalen talde bat izateak honako hauek bultzatzen ditu:
  - inguruko ahozko eta idatzizko hizkuntzaren ikaskuntza lantzea;
  - baliabide teknologikoak gehiago aprobetxatzea;
  - profesional espezifikoak hobeto baliatzea: PT irakasleak, AHI irakasleak eta logopedak, eta, halakorik balego, aholkulari gor bat.
  - zeinu-hizkuntza eskola-eremuan sartzea, eremu horren gehiengo hitzuna izanik;
  - ikuspuntu aberasgarria ematen die irakasleei ikasgelan;
  - ikasle horien hezkuntza-premiei eta beharrian afektibo-sozialei hobeto erantzuten zaie, erantzun global kontrastatua ematen zaien neurrian.
- Entzumen-desgaitasuna duten ikasleak taldekatzea hezkuntza-erkidego inklusiboaren barruan dagoen

dibertsitatearen elementu bat gehiago da.

3. *Ikasleei dagokienez*, berriz, entzumen-desgaitasuna duten ikasle gehiagoren presentziak, honako hauek eragiten ditu:
  - Berdinen arteko elkar trukea bultzatzen du, errealitate desberdinak kontrastatzearen bidez.
  - Komunikazio-estrategien ikaskuntza eta trukea errazten dira, hala entzumen-urritasuna duten ikasleen nola 'entzuleen' kasuan.
  - Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen presentzia handiagoak errealitate batzuk eta besteak hobeto ezagutzea eta haietara hurbiltzea errazten duten esku-hartzeak ahalbidetzen ditu.
  - Entzumen-desgaitasuna duen haur bakoitzaren beharri-zanetara hezkuntza-erantzuna egokitzeko aukerak handiagoak dira.
  - Antzeko ezaugarriak dituzten ikaskideekin harremanetan egoteak identitate-ezaugarri argiak eman diezazkieke ikasleei, beren autoestimua behar bezala garatzen laguntzeko.
4. Azkenik, *familien ikuspegitik*, desgaitasun bereko seme-alabak dituzten beste familia batzuen presentzia handiagoak honako hauek erraztu ditzake:
  - Beste familia batzuekiko antzekotasun-sentimendu partekatuak eta haien hazkuntza-esperientziek, lasaitasuna eman diezaike familiei.
  - Familiei zuzendutako prestakuntza-jarduerak zentratuak izan daitezke.
  - Familiei ematen zaien aholkularitza sistematizatzea eta espezializatzea

- hezkuntza-sisteman etorkizuneko ikuspegia izanik, komunikazio-estrategiekin eta familia barruan komunikazio-interakzioak bultzatzearekin zerikusia duten elementuen trukeak eginez, eta abar.

Baliabide profesionalak entzumen-desgaitasuna duten ikasleen taldekatze-zentro arruntetan

- Irakasle aholkulariak (Haur eta Lehen Hezkuntza)
- Orientatzailea (Bigarren Hezkuntza)
- 
- Pedagogia Terapeutikoko irakasle espezifikoak, ZH ezagutzen dutenak.
- Audizio eta Hizkuntzako irakasleak (AHI) eta ZH ezagutzen duen logopeda espezifikoa.

Beste alderdi batzuk

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen taldekatze eredu inklusiboan, badira erantsitako zenbait alderdi onuradunei dagokienez:

- Taldekatzeak, kasu askotan, familiaren etxetik horrelako zentzura lekualdatzeko joan-etorri garrantzitsuak egitea eskatzen du, haurrak dituen beharizan globaletara hobeto egokitzen den eredu baten onurez baliatu ahal izateko. Horregatik, garrantzitsua da garraiorako laguntzak erraztea ezinbestekoa den kasuetan.
- Batzuetan, etxean anai-arreba gehiago direlako, ordutegi-zailtasunak daudelako, eta abar, atzera botatzen da eredu horretan eskolatzearen aldeko erabakia. Horrelako kasuetan, gomendagarria izaten da eskolaz kanpoko jardueretan edo aisialdikoetan parte hartzea ohiko bizilekutik hurbil dagoen ikastetxean, era horretan, loturak ezartzeko aukera izango baitu bizilekutik hurbilen dagoen ingurunearekin.

### 5.3.3. Profesional espezifikoak Nahitaezko Hezkuntzaren Osteko modalitateetara sarbidea izateko

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen curriculumera sarbidea izateko profesionalak. Zeinu-hizkuntzako interpretea (ZHI)

ZHko interpreteek (gidari-interprete gisa) parte hartzen dute gortasuna edo gor-itsutasuna duten ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzunean, zeinu-hizkuntza behar baitute ikasle horiek, komunikazio-hizkuntza gisa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Esku-hartze hori jarduketa-planaren markoan parte hartzen duten profesionalekin -irakasleak, funtsean- harreman estua izanez gauzatzen da, modu horretan gaintitzen edo arintzen baitira ikaskuntzarako, komunikaziorako eta hezkuntza-testuinguruan parte hartzeko dituzten oztopoak. Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Helduen Hezkuntzako irakaskuntza arautuetan esku hartzen du, eta salbuespen gisa aplikatuko litzateke nahitaezko irakaskuntzetan, Hezkuntza Saileko organo eskudunek berriazko baimena eman ondoren.

Bere eginkizunen artean hauek sartzen dira:

1. Ikastetxean esku hartzen duten irakasleekin eta gainerako profesionalekin, ikasle horien hezkuntza-erantzunean lankidetzan aritzea.
2. Irakasleekin koordinatzea ikasgaiei aurrea hartu behar zaienean eta irakaskuntza-ikaskuntza jardueretan (hiztegi teknikoak, kontzeptu akademikoak, helburuak, jarduerak...).
3. 3.- Ikasleak curriculumera heltzea erraztea -ahozko hizkuntzatik zeinu-hizkuntzara interpretatuz, eta alderantziz- eta hezkuntza-erkidegoko agente guztiekiko komunikazioa bermatzea.
4. Ikastetxean, ikasgelan eta ikasleekin hartutako erabakiak biltzen dituen jarduketa-plan pertsonalizatuaren eta urteko

txostenaren prestaketan parte hartzea, eta bere eskumen profesionaleko beste dokumentu eta txosten teknikoak egitea.

5. Era koordinatuan lan egitea HPB-etako aholkularitzarekin eta koordinatzailearekin, hain zuzen, eskolatze egokia bermatzeko.
6. Irakasle taldearen sentsibilizazioan eta gaikuntzan laguntzea, ikasle horiei eman beharreko hezkuntza-erantzunean.
7. Gidaritza- eta interpretazio-lanak egitea ikasle gor-itsuekin.
8. Lanpostuak lotuta daraman eta erregelamenduaren arabera egozten zaion beste zeinahi eginkizun.

### 5.3.4. Hezkuntza-sistemaren egitura Nahitaezko Hezkuntzaren Ostein

#### • Lanbide Heziketako irakaskuntzak

Honela daude antolatuta hezkuntza-sisteman Lanbide Heziketako irakaskuntzak:

- Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak:

Oinarrizko Lanbide Heziketak<sup>69</sup> aukera ematen du hasierako heziketa-ziklo bat egiteko eta oinarrizko lanbide-kualifikazio bat lortzeko. Iraupen aldakorreko lanbide-moduluetan antolatutako heziketa-zikloetan antolatzen dira.

Oinarrizko lanbide-tituluak hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko aukera emango du. Halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzea ere ahalbidetzen du,

- Erdi Mailako Heziketa Zikloek, behin gainditu ostean, aukera

<sup>69</sup>86/2015 DEKRETUA, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.

ematen dute, gero, Goi Mailako Heziketa Zikloak egiteko. Erdi mailako lanbide-kualifikazioa da.

- Goi Mailako Heziketa Zikloek maila aurreratuko lanbide-kualifikazioa ematen dute.

- **Batxilergoa:**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulurako sarbidea.

3 modalitate daude.

- Arteak
- Zientziak
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak. Azkeneko horrek bi ibilbide ditu: Humanitateak eta Gizarte Zientziak

Batxilergoaren iraupena bi ikasturtekoa da, baina lautan egin daiteke.

Batxilergoko tituluak Unibertsitatera eta Goi Mailako Heziketa Zikloetara sartzeko aukera emango du.

### 5.3.5. Beste eskolatzeko-modalitate eta -programa batzuk

- **Hizkuntza indartzeko programak:**

Programa honetara biltzen dira Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, sistemara sartu berriak diren ikasleei arreta emateko, azentu berezia jarriko dibertsitatea artatzeko jardunbide inklusiboetan.

Ikasleen harrera- eta inklusio-prozesuan laguntzeaz eta sendotze-saioak emateaz gainera, hizkuntza-errefortzuko irakasleek hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelania)

bereganatze-prozesua programatu behar dute, ikasle bakoitzaren beharrianetara egokituta. Horretarako, irakasle tutoreekin eta gainerakoekin lankidetzan ariko dira Banakako Esku Hartze Planaren prestakuntzan eta jarraipenean.

- **Hezkuntza indartzeko berariazko programa:**

Programa hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. edo 2. ikasturteko ikasleei zuzendua dago, gizarte- edo kultura-ingurune behartsuetan egoteagatik, egokitze-arazo larriengatik edo eskola-porrotagatik hezkuntza-sostengu premia espezifikoak dituztenean.

- **Eskolatze osagarriko programa:**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatutako ikasleei zuzendua dago: 15 urte eduki beharko dituzte, gehienera, programa hasten den urteko abenduaren 31ra arte beteta. Beren ezaugarri pertsonal edo eskola-historialagatik heziketa-laguntza espezifikoa behar duten ikasleei zuzenduta daude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dibertsitateari erantzuteko aurreikusita dauden neurri guztiak behin agortu direnean.

- **Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, curriculum-dibertsifikazioaren bidez:**

DBHko hirugarren mailatik aurrera garatuko dira, eta ikaskuntzarako edo eskolara egokitzeko zailtasun nabarmenak dituzten ikasleei zuzenduta daude; ez dira hor sartzen ikasteko ahalegin-faltaren ondoriozkoak. Horrela, bada, irakasle taldeak berak proposatzen die programa horietan sartzea baldintza edo betekizun jakin batzuk betetzen dituzten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko egoeran dauden ikasleei.

- **Gela egonkorrak:**

Gela egonkorrak ezohiko berariazko baliabide bat dira hezkuntza-premia berezi iraunkorrek dituzten 16 urte arteko ikasleentzat, hau da, larritasun handia badute, muga funtzional garrantzitsuak dituztenean, sostengu-premia



orokorrak dituztenentzat, eta berariazko curriculuma eta banakako arreta behar dutenentzat.

Ikasle bakoitzak Banakako Lan Plan bat izango du, eta Gela egonkorreko berariazko programazioa izango da haren erreferentzia.

- **Helduarora igarotzeko programak:**

Helduarora igarotzeko programak prestakuntza-eskaintza berezi bat dira, desgaitasun larriren baten ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten eta nahitaezko eskolatze aldia amaitu ondoren Oinarrizko Lanbide Heziketara sartzen ez diren ikasleak bizimodu aktiborako prestatzeko.

Programa hauetan, gehienez ere lau ikasturtez artatuko dituzte ikasleak, 20 urte bete arte, ohiko izaeraz, eta 21 urte bete arte, ezohiko kasuetan, aldezturik baimena lortuta, betiere ebaluazio-taldeak irizten badio, ikaslearen jarrera eta interesen arabera, autonomia handiagoa lor dezakeela.

Programa horiek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko zentroetan emango dira. Ikastetxeko Curriculum Proiektuan txertatutako programazio berezi bat izango dute, eta ikasle bakoitzak Banakako Lan Plan bat izango du, erreferentzia gisa ikasgelako berariazko programazioa hartuko duena.

Helduarora igarotzeko programak bi motatakoak izango dira:

- Zereginen Ikaskuntzarako Programak, desgaitasun intelektual ertain edo larriren bat izatearen ondorioz gaitasun profesionalik lortu ez arren, trebetasun profesional jakin batzuk lor ditzaketen ikasleentzat berariaz prestatutakoak.
- Autonomia Pertsonal eta Sozialerako Programak, desgaitasun larriren bat duten eta horregatik gaitasun edo trebetasun profesionalik lortu ezin duten ikasleentzat berariaz prestatutakoak.

- **VII. Helduen Hezkuntza (HH):**

Helduen hezkuntzaren justifikazioa da pertsona guztien oinarrizko gaitasunak lortu eta garatu behar direla, beste hezkuntza-maila akademiko eta profesional batzuetarako sarbidea erraztu behar zaiela eta bizitza sozialean eta kulturean parte hartzeko gaitasuna garatu dezaten lortu behar dela. Gainera, pertsona helduei aukera emango die Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko.

- **VIII. Hezkuntza Bereziko zentroak:**

Hezkuntza Bereziko zentroen helburu nagusia hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egokitutako hezkuntza ematea da, haien larritasunaren eta iraupenaren arabera, bai eta giza baliabideen eta baliabide tekniko espezializatuen mailan dituzten beharriaren arabera ere.

Gaur egun, EAEn, oso eskaintza mugatua dago mota honetako eskolatzeetan. Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, ez dago Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikorik. Hala ere, Tipologiei buruzko apartatuan adierazi den bezala, badira desgaitasun erantsia (2. tipologia) duten ikasleak ere, ezaugarri horiek dituen ikastetxe batean eskolatu beharra izan dezaketenak.

- **Ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arreta eta arreta terapeutiko-hezigarria**

Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretaren eta Arreta Terapeutiko-Hezigarriaren xedea honako hau da: medikuaren aginduz berez dagokien ikastetxera joan ezinik geratu diren ikasleei hezkuntza- eta terapia-laguntza ematea, bai osasun-erakunde batean ingresatuta daudenean edo etxean ospitaleratuta, edota hezkuntza-programa terapeutiko batean sartuta egotearen ondorioz. Arreta horren eginkizunak sortu zeneko Dekretuan datoz zehaztuta.

Jarduketa-esparruak:

1. Ospitaleko sostengu-eremua: Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale jakin batzuetan dauden hezkuntza-sostengurako gelak dira.
2. Etxeko sostengu-eremua: medikuaren aginduz dagokien ikastetxera joan ezinik geratu diren ikasleen etxeetan irakasleek gauzatzen duten hezkuntza-jarduketa.
3. Eremu terapeutiko-hezigarria: Osakidetzako Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Sarearen eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzan garatzen da esku-hartze honen jarduketa

- **Denbora partzialeko/partekatutako eskolatzea**

Eskolatze-sistema honetan, hezkuntza bereziko zentro batek eta ikastetxe arrunt batek partekatzen dute hezkuntza-jarduketa.

- **Urrutiko hezkuntza**

Ekainaren 19ko 93/2018 Dekretuak sortu zuen UHEI (Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua). Hor integratu dira lehengo CEBAD (Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea) eta IBD (Urrutiko Batxilergoko Institutua), eta bertan matrikulatzen diren ikasleei aukera ematen zaie Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-titulua lortzeko.

## 5.4. Garapen integralerako beharrian espezifikoak

Esku artean dugun dokumentu honetan nabarmendu dugu jada gorreria duten ikasleak eskola inklusibo batean eskolatzearen garrantzia. Horretarako, garapen integralaren ikuspegitik egindako arreta pertsonalizatuko planean, kontuan eduki behar da beharrian espezifikoak egon daitezkeela honako prozesu hauetan:

1. Komunikazio-gaikuntzarako prozesua.

2. Bitartekaritza, egokitzapena eta irisgarritasuna irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan.
3. Garapen emozionalaren jarraipen pertsonalizatua.

#### 5.4.1. Komunikazio-gaikuntzarako prozesua

Komunikazio-gaikuntzako prozesuan, era koordinatuan lan egiten dute irakasle tutoreak eta Audizio eta Hizkuntzako espezialista edo logopedak.

Horretarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Komunikaziorako hizketa-aurreko trebetasunak estimulatzea;
- Komunikazio-estrategiak eta komunikazio-kode egokia ezartzea. Erakundeen arteko koordinazioa eskatzen du (hainbat zerbitzutako profesionalak: gizarte, osasun eta hezkuntza arloetakoak), bai eta familiarekin ere;
- Entzumenaren eta ikusmenaren estimulazioa;
- Entzumen-estimulazio goiztiarra, hautemate-, diskriminazio-, ezagutze- eta ulermen-faseak betez.
- Entzumen-arretaren hobekuntza;
- Hizkuntzaren estimulazioa, hala jasotzean nola adieraztean;
- Ezpain-aurpegi irakurketan maila egokia eskuratzea;
- Komunikazio-hizkuntza gisa zeinu-hizkuntza erabiltzen bada, komunikazio-gaitasuna hobetzea hizkuntza horretan;
- Komunikazio-sistema handigarri edo alternatiboetan (KSAH) gaitzea, horretarako premia izanez gero;
- Familiei informazioa ematea entzumena galtzeak komunikazio-eta hezkuntza-prozesuan dituen ondorioen berri emateko;

- Etxekoei orientazioa ematea haurraren hurbileneko familia-eta gizarte-ingurunean aurrera eraman beharreko zeregin egokienei buruz.

#### 5.4.2. Bitartekaritza, egokitzapena eta irisgarritasuna irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan

Prozesu honetan era koordinatuan lan egiten dute ikasgelako irakasle arruntek eta gorreria duten ikasleentzako berariazko irakasleek.

Helburu hauek hartu behar dira kontuan prozesu horien plangintza egitean:

- Gorreria duten ikasleen garapen globala sustatzea, ingurunea ahalik eta murrizketa gutxienekoa izanik;
- Ikastetxean komunikaziorakoeta parte hartzeko oztopoak ezabatzea helburu duten proiektu berritzaileak garatzea, eta curriculum-diseinuetan aurrera egitea, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioak oinarri hartuta;
- Prestakuntza- eta informazio-ekintzak antolatzea ikastetxean, eskola inklusiboaren garapenean aurrera egiteko, betiere, mota guztietako dibertsitatea errespetatuz eta, zehazkiago, ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta;
- Bai zuzendaritzako kideei eta bai irakasle taldeei orientazioa ematea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, irisgarritasun unibertsalaren markoan, eta, zehatzago esanda, gorreria duten ikasleen hezkuntza-premietan;
- Irakasle tutoreekin eta arlokoekin lankidetzan aritzea dibertsitatea errespetatzen duten curriculum-proposamenak egiteko eta, hala badagokio, ikaskuntzarako eta parte hartzeko oztopoak ezabatzeari begira egin beharreko egokitzapenak egiteko.

- Behar diren hezkuntza-sostenguak ematea, bai ikasgelaren barruan bai modu espezifikoan, curriculum-informaziorako sarbidea erraztearren;
- Irakurketa-idazketan trebetasuna lortzeko lan egitea
- Ikasleekin lan egitea irakurtzen -eta ulertzen- ikasteko eta/edo hobetzeko;
- Komunikaziorako baliabide eta tresna egokiak erabilia, bitartekotza egitea curriculum-informazio arruntaren eta entzumen-desgaitasuna duten ikasleen alde aurreko ideien artean.
- Familiarekin dagozkion harremanak ezartzea, familiaren eta eskolaren arteko jarraitutasun-prozesuak garatuko dituzten lankidetzamarko sendoak sortzeko xedez.

### 5.4.3. Garapen emozionalaren jarraipen pertsonalizatua

Azken urte hauetan egindako ikerketa askotan erlazionatu izan dira ikaskuntzak, batetik, eta ikasleen trebetasun sozial eta emozional funtsezkoak, bestetik (FAN, 2000)<sup>70</sup>, are gehiago Gardnerrek (1995)<sup>71</sup>, -adimen anizkoitzei buruzko teoria garatu zuen- eta Golemanek (1996)<sup>72</sup> -honi zor zaio «adimen emozionalaren» kontzeptua- egindako lanen ondoren.

Egiaztatuta dago, dirudienez, lankidetzan aritzeko eta taldean parte hartzeko gaitasunarekin, gatazkak konpontzeko estrategiekin eta abarrekin lotura duten zenbait gizarte-

<sup>70</sup>FAN, The Child mental Health Foundations and Agencies Network (2000). «A good beginning: sending America´s children to school with the social and emotional competence they need to succeed». Chapel Hill University of North Carolina. FPC Child Development Center. Citado en Valmaseda, M. (2010): «La Alfabetización Emocional de los alumnos sordos». *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*. 3. bol. 1. zk. 147-163 or.

<sup>71</sup>Gardner, H. (1995). *Inteligencias múltiples. La teoría en la práctica*. Barcelona: Paidó.

<sup>72</sup>Goleman, D. (1996). *Inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós.

trebetasun garatzea garrantzi handikoa dela egungo eta etorkizuneko gizarte-harremanetarako eta helduaroan bizitza egoki baten oinarri izateko. Era berean, erazko autoestimua, autoezagutza emozional egokia eta estres-egoerei aurre egiteko gaitasuna, ongizate pertsonalaren sortzaile ez ezik, osasun mentalarekin lotura izan dezaketen etorkizuneko arazoan prebentzio ere badira.

Ikerketa askok (Valmaseda, 2010)<sup>73</sup> adierazten dute entzumen-desgaitasuna duten zenbait haur eta gaztek zailtasunak izan ditzaketela gizarte-gaitasun on bat garatzeko, hau da, arazoak izan ditzaketela beren bulkadak kontrolatzeko orduan, beren buruaren inguruko kontzeptu eta autoestimu egokia garatzeko, emozioak eta sentimenduak aitortu eta adierazteko, bai eta enpatia garatzeko, ekintza jakin batzuek izan ditzaketen ondorioak edo emozioak ebaluatzeko edota gertaera jakin batzuen artean kausazko egozpen-prozesuak identifikatu eta ezartzeko.

Haur eta gazte gorrei gehien egotzi izan zaizkien ezaugarriak honako hauek dira: oldarkortasun handiagoa, egozentrismoa, gizarte-heldutasunik eza eta beren buruaren kontzeptu eskasa. Badirudi gorreria duten hainbat ikaslek arazoak dituztela beren jokabidea antolatzeke eta erregulatzeke, frustrazioa toleratzeke, bulkada oldarkorrek sublimatzeke eta horiek sozialki modu onargarrian adierazteke, horretarako guztirako energia intelektuala erabiliz, hau da, pentsatuz. Era berean, portaera desegokiak izan ditzakete agian oker interpretatu dituztelako zenbait gertaeraren kausak, eta zaila gerta dakieke halabeharrezko gertaeren eta intentzio jakin bat daramaten artean bereiztea. Azkenik, entzumen-desgaitasuna duten hurrek beren buruaren kontzeptu eskasa eta autoestimu apala izan dezakete. Zailtasun horiek ez dago, inola ere, gorreria duten ikasle guztiei orokortzerik, baina esan behar da maiz egiaztatzen direla ikasgeletan.

Deskribatutako egoera baldintzatzen duten faktoreetako batzuk

<sup>73</sup>Berrikuspen sakonago bat hemen aurki daiteke: Valmaseda, M. (2010): «La Alfabetización Emocional de los alumnos sordos». *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*. 3. bol. 1. zk. 147-163 or.

ondorengo hauek dira: komunikaziorako zailtasunak, hizkuntza emozional eta mentalistaren arloko input urria, bizitako esperientzia-kopuru txikiagoaren eraginez, eta «hizkuntza-babes handiegia» (Greenberg, 2000)<sup>74</sup>.

Valmasedak adierazi bezala (2004<sup>75</sup> eta 2010<sup>76</sup>), lau jarduereremu nagusi leudeke hezkuntza emozionalari dagokionez, eta eskolak horietan guztietan parte hartzeko aukera du:

1. Norberaren ezagutza eta onarpena sustatzea. Gorreria duten ikasleengan ikuspegi positiboa -beren buruari doitu- sustatzea da lortu nahi dena, egoera zailei aurre egiteko dituzten aukeren inguruan baikortasun- eta gaitasun-sentimenduak gara ditzaten, eta, ziurgabetasuna eta presioak gorabehera, erabakiak hartzeko gai izan daitezten. Horrez gainera, norberaren nortasuna eraikitzen lagunduko duen bizitza-historia koherente eta jarraitua garatzea inplikatzeko du.
2. 2.- Ezagutza emozionala sustatzea, hala norberarengan nola besteengan. Emozioak identifikatu eta izendatu ahal izatea. Haien zergatiak ulertzea, eta maila desberdinetakoak daudela ohartzea. Sentimenduen, pentsamenduen, hitzen eta agintzen arteko loturak ulertzea.
3. 3.- Auto-erregulazio emozionala pixkanaka garatuz joatea. Frustrazioa toleratzen, bulkada oldarkorrek sozialki onar daitezkeen moduan adierazten eta, jokabidea antolatu eta planifikatzeko, pentsamendua erabiltzen ikastea. Azken batean, pentsamendu gogoetatsua eta programatzeko gaitasun kognitiboak garatzea, barne-elkarrizketaren bidez norberaren portaera kontrolatu ahal izateko.

<sup>74</sup>Greenberg, M.T. (2000). *Educational interventions: prevention and promotion of competence*. En P. Hindley.

<sup>75</sup>Valmaseda, M. (2004). «El desarrollo socio-emocional de los niños sordos. Intervención desde la escuela». In A.B. Domínguez y P. Alonso. *La educación de los alumnos sordos hoy. Perspectivas y respuestas educativas*. Málaga: Aljibe

<sup>76</sup>Jada aipatutako obra.



4. Gizarte-egoerak ulertzea eta pertenezia eta ongizate-sentimendua ahalbidetzen duten harremanak ezartzea. Enpatia garatzea, hau da, besteen sentimenduak ulertzea, haien ikuspuntuan jartzea eta dauden aldeak errespetatzea. Funtsezko gaitasuna da hori, motibazio pertsonalak, erreferentziatzeko komunikazioa eta garapen moral heldua ulertzeko ahalmenari eusten diona. Komunikazio asertiboari lotutako trebetasunak garatzea, harremanetako zailtasunak kudeatzearen bidez, jakinik konpontzen ikasi beharreko arazoak eta desadostasunak egongo direla. Pixkanaka, autonomia maila handiagoetara iristea.

Aurrez adierazitakoa kontuan hartuta, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen trebetasun emozional eta sozialei buruzko hezkuntza arloko esku-hartzea planifikatzeko, honako **alderdi hauek** hartuko ditugu kontuan:

- Gorreria duten ikasleen nortasunaren garapen harmonikoa erraztea;
- Ikasleei beren autoestimua behar bezala garatzen lagunduko dieten ezaugarriak ematea;
- Orientazioa ematea entzumen-desgaitasuna duten ikasleak ingurune 'entzulean' sozializatzeko prozesuak hobetzera bideratutako jardueren garapenean;
- Espazioak eta esperientziak sortzea, ikasle gorrek beren kokapen sozial positiboari buruzko informazioa jaso dezaten, beren izaera bereizgarritik abiatuta.

## 5.5. Tipologiak – Prozesuak – Baliabideak

Aurreko apartatuetan hauek egin dira:

- a. TIPOLOGIEN arabera egindako sailkapenak; berorietan ikasleak ezaugarri bereizgarri baten arabera taldekatzea bilatzen zen.

- b. ikasleen garapen integralaren ikuspegitik, arreta bereziz tratatu beharreko prozesuak definitu dira: Alde batetik, komunikazio-gaikuntzarako prozesua; bigarrenik, bitartekaritza-, egokitzapen- eta irisgarritasun-prozesua irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, eta, azkenik, garapen emozionalaren jarraipen pertsonalizatua.
- c. hezkuntza-erantzunean inplikaturik dauden baliabide profesionalen deskribapena.

Hiru apartatu horietan deskribatutako alderdiak kontuan hartuta, haien arteko korrelazio orokor bat egiten saiatuko gara, hori bai, aurretik funtsezko ohar batzuk egin ostean:

1. Dударik gabe, norbanako bakoitzaren hezkuntza-prozesua bat eta bakarra da, eta, ondorioz, baita hari ekiteko modua ere.
2. Pertsona bakoitzarengan aldagai edo ezaugarri bereizgarri erabakigarriak daude, analisisan kontuan hartu ez direnak.
3. Apartatu bakoitzean jasotako ezaugarrien deskribapenak oso gutxitan izaten dira guztiz «aratzak», eta, eskuarki, batzuk besteekin nahasita edo elkarri lotuta egoten dira.

Funtsezko beste alderdietako bat ikasleen eboluzio-unea zein den eta zer hezkuntza-etapa dagokion kontuan hartzea da. Beste hitz batzuekin esanda, hezkuntza-premiak aldatuz joaten dira; ez dira berdinak norbanako beraren hasierako prozesuan (Haur Hezkuntza) eta pertsona horrek gerora izango dituenetan, Lehen Hezkuntzan edo nerabezaroan (Bigarren Hezkuntza). Esan bezala, hezkuntza-premiak aldakorrak dira intentsitateari (lehen urteak, bigarren hezkuntza,...) eta modalitateari (audizioa eta hizkuntza, hezkuntza-sostengua) dagokienez, betiere norberaren banakotasuna, garapen intelektuala, kognitiboa, komunikatiboa eta soziala kontuan hartuta. Hezkuntza mailan esku hartzen duten eragileek jakin behar dute entzumen-desgaitasuna duten ikasleek zer premia dituzten, eta kontziente izan behar dute haien sostengu eta begirunearekin, pertsona gorrek gaindi ditzaketela komunikaziorako eta ikaskuntzarako oztipoak.

Aurreko guztia esanik, harreman/konexio/paralelismo bat ezartzen saiatuko gara aipatutako hiru apartatuen artean, eta horrek orientatuko gaitu pertsona bakoitzaren arreta-plan pertsonalizatua egiteko, pertsona horren garapenaren une jakin batean. Horretarako, tipologia bakoitzetik abiatuko gara.<sup>77</sup>

1. tipologia	Prozesuak	Baliabide profesional espezifikoak
Jaioberrien entzumen-baheketa Arreta goiztiarra Sostengu-produktuak  <b>Aintzat hartu beharreko alderdiak:</b> Entzumen-funtzionaltasuna Familiako hizkuntza Familia-ingurunea	Komunikazio-gaikuntza	<b>Nahitaezko hezkuntza-etapetan:</b>  Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI)
	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak	Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleak
	Garapen emozionala	<b>Nahitaezko hezkuntza osteko etapetan:</b>  Zeinu-hizkuntzako interpretea (ZHI) Esparruko irakasleak  Guztiak entzumen-desgaitasuna duten ikasleekiko prestakuntza-profila eta esperientzia dutenak

Tipologia hau honela definitu genezake: segur aski, entzumen-desgaitasunaren prototipo edo ohiko kasua islatzen duena litzateke.

<sup>77</sup>Ikus 5.1.1 apartatua: Tipologiaren deskribapena.

Ikasle hauekin funtsezkoa izango da prozesuen garapen integrala kontuan hartuta aztertzea. Haien premiak nabarmen aldatuko dira bizitzan zehar, eta, beraz, baita eskolatzeko prozesuan ere.

Segur aski, beharrezkoa izango da esku-hartze espezifikoa komunikazio-gaikuntzaren eremuan, batez ere, bilakaera-garapenaren hasierako uneetan. Horretarako profesional espezifikoak Audizio eta Hizkuntzako (AHI) irakasleak izango dira, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan. Profesional horiek ZHn eta entzumen-desgaitasunean prestatuta egon beharko dute, eta esperientzia izan beharko dute arloan.

Aldi berean, beharrezkoa izango da ikasgelako jardueretan parte-hartze osoa bermatzea, eta, agian, zeinu-hizkuntzan eman beharko da curriculum/informaziora sartzeko aukera. Horretarako, gelako irakasleek PT eta/edo AHI irakasleen laguntza izango dute, zein bere gaitasun profesionaletik jardunez.

Garapen emozionalaren esparruan, familiaren, hezkuntza-ingurunearen eta erakunde edo elkarten artean partekatu beharko da banakako prozesuak eta erantzunak behatzea. Une batzuetan, zalantzarik gabe, elkarrekin eta era partekatuan lan egin beharko da, eta, segur aski, diziiplina anitzetatik.

1. tipologiari dagozkion alderdi espezifikoekin amaitzeko, eta adibide gisa soilik –ezinbestekoa baita kasu bakoitzean banakako balorazioa egitea–, kontuan hartu beharreko zenbait baliabide espezifiko azalduko ditugu hemen:

- Curriculumera iristeko sostengu-produktuak hezkuntza-esparruan: Frekuentzia Modulatuak (FM) ekipamenduak
- Ezohiko curriculum-baliabideak: Curriculumera iristeko egokitzapenak, ahozko hizkuntzetara iristeko egokitzapenak, curriculum-egokitzapen esanguratsuak hizkuntza-arloetan (arloetako BCEak).

2. tipologia	Prozesuak	Baliabide profesional espezifikoak
<p>Gorreriari lotutako desgaitasuna</p> <p><b>Aintzat hartu beharreko alderdiak:</b></p> <p>Aldibereko hautematea edo ondorengoa</p> <p>Ikuspegi integrala</p> <p>Arreta goiztiarraren ikuspegia</p> <p>Entzumen-funtzionaltasuna</p> <p>Familiako hizkuntza</p> <p>Familia-ingurunea</p>	<p>Ikuspegi globaletik beharrezanean erantzun integrala ematea</p>	<p><b>Nahitaezko hezkuntza-etapetan</b></p> <p>-Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI)</p> <p>-Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleak</p> <p>Baloratzeko:</p> <p>HLE: hezkuntza-laguntzako espezialista.</p> <p>Fisioterapeuta</p> <p>Terapeuta okupazionala</p> <p>.....</p> <p>Baloratu: Hezkuntza Bereziko Zentroa, Ikasgela Egonkorra ikastetxe arruntean...</p>

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleen ehuneko handi batean beste desgaitasun bat dago gorreriari lotuta. Batzuetan, desgaitasun horren diagnostikoa gorreriarekin batera egiten da, beste batzuetan, berriz, ondorenean.

Dokumentu honetan zehar nabarmendu dugun bezala, funtsezkoa da haurren balorazio orokorra egitea eta arreta-plan pertsonalizatua gauzatzea ikuspegi integral batetik. Ikuspegi horretatik, beharrezkoa izango da prozesuak baloratu joatea, bai eta esku-hartzea lehenestea eta orientatzea ere, baina ez «falta denetik» edo «kaltetuta» dagoenetik abiatuta, baizik eta haien gaitasunak eta ahalmenak nabarmentzetik hasita.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu litekeena dela ikasle horien hezkuntza-ibilbidean profesional espezifikoen esku-hartzea behar izatea, hala nola hezkuntza-sostenguko espezialistena

(HSE), okupazio-terapeutena (OT), fisioterapeutena..., edo Hezkuntza Bereziko zentro batena, non lehen aipaturako profesionalak estaliko lituzketen estimulazio basalari dagozkion beharrianak, aurreko ikasle-tipologiarentzat jada aipaturakoez gainera.

2. tipologiari dagozkion alderdi espezifikoekin amaitzeko, eta adibide gisa soilik –ezinbestekoa baita kasu bakoitzean banakako balorazioa egitea–, kontuan hartu beharreko zenbait baliabide espezifiko azalduko ditugu hemen:

- Curriculumera iristeko sostengu-produktuak hezkuntza-esparruan: Frekuentzia Modulaturako (FM) ekipamenduak
- Ezohiko curriculum-baliabideak: Curriculumera iristeko egokitzapenak, ahozko hizkuntzetara iristeko egokitzapenak, curriculum-egokitzapen esanguratsuak hizkuntza-arloetan (arloetako BCEak), BCE orokorra.

3. Tipologia	Prozesuak	Baliabide profesional espezifikoak
<p>Berandu eskolaratzea Gizarte-jatorri desberdina</p> <p><b>Aintzat hartu beharreko alderdiak:</b> Entzumen-galera noiz hauteman zen Noiz sartu zen hezkuntza-sisteman Audifono, KI edo beste batzuen erabilpena Entzumen-funtzionaltasuna Harmonia-eza komunikazioaren eta curriculum-garapenaren artean</p>	<p>Ikaslearen eta bere testuinguruaren balorazio globala</p> <p>Prozesuak definituko dituzten alderdiak: Jatorria eta hezkuntza-etapa</p>	<p><b>Nahitaezko hezkuntza-etapetan:</b> -Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI) -Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleak</p> <p>Nahitaezko hezkuntza osteko etapetan: Zeinu-hizkuntzako interpretea (ZHI) Esparruko irakasleak Hizkuntza indartzeko irakasleen figura gehitzea irakaskuntzara (HII)</p>

Badira entzumen-desgaitasuna duten ikasle batzuk EAEko hezkuntza-sistemara berandu sartzen direnak. Gerta daiteke ikasle horien gizarte-jatorria tokiko erkidegoarena ez bezalakoa izatea, migrazio- edo mugikortasun-prozesuengatik edo arrazoi etnikoak direla medio, eta, beraz, entzumen-galerarekin zerikusia duten alderdiak ez ezik, hizkuntza-, kultura- eta gizarte-alderdiak ere jorratu behar izatea, modu osagarrian.

Hala, esan genezake hezkuntza-erantzuna definituko duten funtsezko alderdiak ikaslearen jatorria, familiaren maila soziokulturala eta sartzen den hezkuntza-etapa izango direla (Bigarren Hezkuntzako curriculumak urte batzuk behar dituen hizkuntza-gaitasuna eskatzen du).

Ikasleen balorazio orokorra eta beren familia- eta gizarte-testuingurua oinarri hartuta, pentsa genezake berorien erantzunerako profesional espezifikoko aldatu egingo direla, besteak beste, hezkuntza-sistemaren baliabideen antolaketa beraren ondorioz. Horrela, nahitaezko hezkuntza-etapetan, honako hauek aipa genitzake: komunikazio- eta hizkuntza-prozesuak –non AHI irakasleek esku hartzen duten–; eta curriculum-garapenarekin eta sarbidearekin lotura dutenak, PT eta hizkuntza indartzeko irakasleen (HII) sostenguarekin. Sarritan, hezkuntza-sistematik kanpoko eragileek ere esku hartzen dute: gizarte-hezitzaileak, indartze-taldeak, eta abar.

Nahitaezko hezkuntza-etapen ostekoetan, ikasleek ZH ezagutzen dutenean, zeinu-hizkuntzako interpreteak (ZHI) ere izan ditzakegu. Ikasleek zeinu-hizkuntza ezagutzen ez badute, ikasle gorrekin lan egiten espezializatutako irakasleen sostengua izan dezakete. Azken hauek lagundu ahalko diete hezkuntza-ibilbidean, haien hezkuntza-premia bereziak kontuan hartuta.

Horrelako errealitateetan oso zaila da ikasle horien beharrianak hezkuntza-sistemak dituen erantzun-aukerek uztartzea. Eta ez bakarrik sostengu horretarako profesionalen lanbide-profilari dagokionez, edo horiei eskatzen zaien intentsitatearen gorabeheran (zabala edo orokorra), baizik eta, batzuetan, gure gizarte- eta hezkuntza-errealitatearekin zerikusirik ez duten komunikazio- eta curriculum-gaitasunak dituzten ikasleak aurkitzen ditugulako.

Zenbait kasutan, erantzuteko modu posible bakarra egundoko malgutasuna erakustea izango da.

3. tipologiari dagozkion alderdi espezifikoekin amaitzeko, eta adibide gisa soilik –ezinbestekoa baita kasu bakoitzean banakako balorazioa egitea–, kontuan hartu beharreko zenbait baliabide espezifiko azalduko ditugu hemen:

- Curriculumera iristeko sostengu-produktuak hezkuntza-esparruan: Frekuentzia Modulatuak (FM) ekipamenduak
- Ezohiko curriculum-baliabideak: Curriculumera iristeko egokitzapenak, ahozko hizkuntzetara iristeko egokitzapenak, curriculum-egokitzapen esanguratsuak hizkuntza-arloetan (arloetako BCEak).

4. tipologia	Prozesuak	Baliabide profesional espezifikoak
<p>Lokuzio osteko galera edo lokuzio osteko eskakizuna</p> <p><b>Aintzat hartu beharreko alderdiak:</b>                      Pertsonaren edo testuinguruaren balorazio integrala                      Bigarren kokleako inplantea</p>	<p>Komunikazio-gaikuntza</p>	<p><b>Nahitaezko hezkuntza-etapetan:</b></p> <p>Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI)                      Komunikazio-gaikuntza</p> <p>Nahitaezko hezkuntza-etapetan</p> <p>Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI)</p> <p>Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleak</p>

Talde honetan sartzen ditugu lokuzio osteko galera izan duten ikasleak. Logikoa denez, funtsezkoa da galera noiz gertatu zen; hala, komunikazio-gaikuntzan lan egiteaz gainera, entzumen-memoriari eta galeraren aurretik eskuratutako gaitasunei eusteko ahalegina egin beharko da. Kasu batzuetan, entzumen-galera



progresiboaren susmoa balego, prebentzioari ekin beharko litzaioke, komunikazioaren zutabeak ahalik eta gehien finkatzen eta sendotzen saiatuz, bai dauden entzumen-hondarrak baliaturik, bai eta komunikaziorako eta informaziorako sarbidea errazten duten era guztietako sostengu bisualak erabiltzearen bidez.

Bestalde, binauralitate planteamenduen ondorioz -estimulazio binaurala-, ohikoa da bigarren kokleako inplantea (lokuzio ostekoa) egin zaien 6 urtetik gorako ikasleak aurkitzea. Bigarren inplante horren ezarketak berrindartze esku-hartze bat eskatuko du AHI irakasleen edo gorreria duten ikasleentzako logopeda espezifikoen baliabide profesionalak erabilia.

4. tipologiari dagozkion alderdi espezifikoekin amaitzeko, eta adibide gisa soilik -ezinbestekoa baita kasu bakoitzean banakako balorazioa egitea-, kontuan hartu beharreko zenbait baliabide espezifiko azalduko ditugu hemen:

- Curriculumera iristeko sostengu-produktuak hezkuntza-esparruan: Frekuentzia Modulatuko (FM) ekipamenduak
- Ezohiko curriculum-baliabideak: Curriculumera sartzeko egokitzapenak eta ahozko hizkuntzetara sartzeko egokitzapenak.

5. tipologia	Prozesuak	Baliabide profesional espezifikoak
<p>Alde bakarreko galera</p> <p><b>Aintzat hartu beharreko alderdiak:</b> Pixkanaka entzumena galduz -eta/edo beste aldekoa- joateko aukera baloratzea</p> <p>Sostengu-produktuen erabilpena eta berorien funtzionaltasuna</p>	<p>Irakaskuntza- ikaskuntza prozesuak</p>	<p>rientazioa eta jarraipena.</p> <p>Irakasle espezifikoen balizko arreta</p> <p>Nahitaezko hezkuntza-etapetan: Audizio eta Hizkuntza irakasleak (AHI) Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleak</p>

Ez ditugu, nolahi ere, alde bakarreko entzumen-galera duten ikasleak alde batera utzi behar, nahiz eta, batzuetan, profesional espezifiko baten zuzeneko esku-hartzerik behar izan ez.

Ikasle horien hezkuntza-prozesuan funtsezkoa da belarri sanoak ematen duen entzumena ahalik eta gehien baliatzea eta haren kontrola eta jarraipena egitea.

Hezkuntzaren esparruan, entzumen-galerak eragindako zailtasunak ezabatzen laguntzeko, zenbait jarraibide eta orientazio eman behar dira gelako kokapenaren, ezpain-irakurketarako balizko laguntzaren, soinu-iturria identifikatzeko estrategien, edota entzumen-seinalearen distortsio-faktoreen inguruan.

Batzuetan, komenigarria da prebentzio-estrategiak lantzea, hala komunikazioaren esparruan nola curriculumerako sarbidean.

5. tipologiari dagozkion alderdi espezifikoekin amaitzeko, eta adibide gisa soilik -ezinbestekoa baita kasu bakoitzean banakako balorazioa egitea-, kontuan hartu beharreko zenbait baliabide espezifiko azalduko ditugu hemen:

- Curriculumera iristeko sostengu-produktuak hezkuntza-esparruan: Frekuentzia Modulatuak (FM) ekipamenduak, baldin eta sostengu-produktua erabiltzen badu, audifonoak, gehienetan.
- Ezohiko curriculum-baliabideak: Curriculumera sartzeko egokitzapenak eta ahozko hizkuntzetara sartzeko egokitzapenak.

6. tipologia	Prozesuak	Baliabide profesional espezifikoak
<p>Nahitaezko etaparen ostean sartzea</p> <p><b>Aintzat hartu beharreko alderdiak:</b></p> <p>Aldez aurreko hezkuntza-ibilbidea</p>	<p>Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetarako sarbidea</p>	<p>Zeinu-hizkuntzako interpretea (ZHI).</p> <p>-Esparruko irakasleak</p>

Faktore sozial eta hezitzaile ugari direla eta, ohikoa da derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapan hezkuntza-sistemara itzultzen diren ikasleekin topo egitea (helduentzako hezkuntza, heziketa-zikloak, goi-mailako ikasketak egiteko ikastaroak). Kasu askotan, baliabide profesional espezifikoak behar dira curriculuma eskuratzeko, hala nola zeinu-hizkuntzako interpreteak (ILS), eta, batzuetan, informazioa eskuratzeko curriculum-neurriak eta hitz egiten diren hizkuntzen tratamendu indibidualizatua.

6. tipologiaren alderdi espezifikoekin amaitzeko, eta adibide gisa soilik, kasu bakoitzean banakako balorazioa egitea ezinbestekoa baita, honako baliabide espezifiko hauek azalduko dira:

- Curriculumean sartzeko laguntza-produktuak Hezitzailea: maiztasun modulatuak (FM).
- Curriculum-baliabide bereziak: sartzeko egokitzapenak Curriculumean, ahozko hizkuntzetan sartzeko egokitzapenak.



## 6. Entzumen–desgaitasunarekin lotura duten terminoak<sup>78</sup>

### Ahozko hizkuntza


Toki jakin bateko pertsona ‘entzuleek’ erabiltzen duten hizkuntza. Bi modalitate ditu: mintzatua eta idatzia.

---

<sup>78</sup>Irudiak: <http://www.mihijosordo.org/diccionario.php>.

## Alfabeto daktilologikoa

Alfabetoko letrak eskuz antzeztuta. Zeinu-hizkuntzari dagokio. Komunikazio-baliabide ona izan daiteke zenbait hitz letraz letra adierazteko.



## Arreta banatua

Aldi berean eta ikus-eremu zabal batean estimulu bisual esanguratsu bi edo gehiago agertzen diren egoeretan gertatzen da. Adibideak:

1. Entzumen-desgaitasuna duen pertsonak arreta eskaini behar dio zeinu-hizkuntzan ari zaion irakasleari, eta, aldi berean, oharrak hartu behar ditu
2. Arbelean azaltzen den ikus-informazioa (grafikoa, eskema...) ulertzea eta, denbora berean, zeinu-hizkuntzan adierazten zaionaz jabetzea.

### Arreta goiztiarra

0-6 urteko hurrei, beren familiei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa. Esku-hartzeen helburua da garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren beharrian iragankor edo iraunkorreki aurrea hartzea eta ahalik eta azkarren eta modu integralenean erantzutea.

### Audifonoak

Erabiltzailearen entzumen-hondarren arabera, entzumen-seinalea handiagotzen duten sostengu-produktuak.

Hainbat mota eta tamainatakoak daude, beharrianen eta entzumen-galeraren arabera.

### Audiometria

Pertsona baten entzuteko ahalmena neurtzeko edo ebaluatzeko proba. Emaitzak grafiko batean jasotzen dira: *audiograma*.

### Audioprotésista

Entzumen-ebaluazioa egiteaz eta entzumen-protésiak hautatzeaz eta egokitzeaz arduratzen den profesionala.

### Audizio eta hizkuntzako irakaslea (AHI)

Haur gorren komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunaren garapena sustatzeaz eta lantzeaz arduratzen den profesionala. Batez ere, ahozko hizkuntzaren garapena lantzen du, eta horretarako, zeinu-hizkuntza erabil dezake, baldin eta haurrak komunikatzeko hura erabiltzen badu. Batzuetan, komunikazio-sistema handigarriak erabiltzen dituzte osagarri modura, hala nola komunikazio bimodala eta hitz osatua.

## Begizta magnetikoa

Begizta magnetiko edo indukziokoa audio seinalea –denok entzun dezakeguna– eremu magnetiko bihurtzen duen soinu-sistema da. Hala, «T» posizioa duten audifonoek edo indukzio-bobina aktibatuta duten prozesadoreek eremu magnetiko hori jaso dezakete.

Audifonoek bobina bat daramate eremu magnetikoa erabiltzailearen belarriaren barruan berriro soinu bihurtzen duena, soinu-dardaretatik eta giroko zaratatik bakartuta. Eraitza da erabiltzaileak soinu garbia, zehatza, ulergarria eta bolumen egokian jasotzen duela.

## Desgaitasuna

Egokitzapen falta ezaugarri diagnostiko jakin batzuk dituen pertsonaren eta bere ingurunearen artean. Termino erlatiboa da, norbanakoa eta ingurunearen irisgarritasuna eta moldagarritasuna hartzen ditu kontuan. Ingurunea pertsonaren beharrianetara zenbat eta gehiago egokitu, orduan eta ondorio sozial eta pertsonal arinagoak jasango ditu norbanakoak. Eta, alderantziz, ingurunea bere beharretara egokitzen ez bada, ondorioak are handiagoak izango dira

## Dezibel (dB)

Soinuaren intentsitatea neurtzen duen unitatea (entzumen-galera, audifonoaren onura...).

## Entzumenaren estimulazioa

Gorreria duen pertsonari jasotzen dituen soinuak identifikatzen eta ezagutzen erraztera edo laguntzera bideratutako egintzak. Jolasen, eguneroko bizimoduko jardueren, eta abarren bidez gauza daiteke.



### Entzumen-screeninga

«Jaioberrien entzumen-baheketa» ere esaten zaio. Jaioberriei entzumen-galerarik ez dutela ziurtatzeko egiten zaizkien probak dira.

### Entzumen-protesia

Entzumena hobetzeko balio duen aparatu edo gailua. Soinua handitzen du entzumen-galera duen pertsonaren beharrianen arabera. Bi motatakoak daude: txerta daitezkeenak (kokleako implanteak, hezurrean integratutako implanteak, garun-enborrekoak,...) eta ezin txerta daitezkeenak (audifonoak).

### Ezpainetako edo ezpain-aurpegi irakurketa (EAI)

Hitzak eta hitz egitean emandako mezua ezagutzea ahoaren mugimenduak eta aurpegiko adierazpenak behatuz.

Baditu bere mugak, batzuk ekoizpen-baldintzetatik eratorriak (argiztapen-baldintzak, hiztunaren aurpegiarekiko distantzia eta kokapena, hizkeraren berezitasuna, artikulatzeko erritmoa eta modua...), besteak hizkuntzaren ezaugarrietatik eratorriak (irudi berbera duten fonemak /p/-/b/; /t/-/d/; /k/-/g/...).

### Familien elkarte (gurasoena)

Seme edo alaba gorak dituzten familia-elkarteak; beren eskubideak eta seme-alabenak aldeztu dituzte. Horietako askotan zerbitzu profesionalak emateaz gainera (logopedia, familien aholkularitza, etab.), hainbat jarduera egiten dira (sentsibilizazioa, kanpamentuak, tailerrak, ipuin kontaketak, etab.).

### Fonologia

Hizkuntzalaritzaren atala, komunikazioan funtzio bat duten soinuak soilik aztertzen dituena; hau da, hizkuntzaren

ikuspegitik ezaugarri bereizleak dituztenak. Hizkuntza horrek dituen fonemen inbentarioa, horiek segida zuzenak osatzeko elkartzeko moduak, fonema bakoitzak ondoan dituenen arabera izaten dituen egokitzapenak eta doinuari, metrikari eta azentuari buruzko arauak biltzen ditu.

Haur gorren kasuan, egiaztatuta dago osagai fonologikoak isuri bisuala eta zinetesikoa duela; horregatik, askotan modu nahasgarrian izaten bada ere, erabiltzen den estrategietako bat ezpain-aurpegi irakurketa da. Beste estrategia osagarri batzuk hauek dira: daktilologiaren erabilera, hitz osatua, eta abar.

### Frekuentzia Modulatu (FM) irratia

Curriculumera sarbidea izateko sostengu-produktu bat da. Bi osagai nagusi ditu: mikrofono transmisore bat soinu-iturritik hurbil (irakaslea edo talde teknikoa: arbel digitala, eramangarria...) eta audifonora edo kokleako inplantera konektatzen den hargailua. Entzumen-seinalea hurbildu, giroko zarata leundu eta distantziak eragindako distortsioa edo ikasgelako soinu-dardara saihesten ditu. Ez du inolako instalaziorik eskatzen.

### Gor-mutu

Termino okerra; desatsegina gertatzen da. Estigma horrekin definitu izan du gizarteak, tradizioaren arabera, pertsona gorren kolektiboa; «itxuraz» komunikatzeko duten ezintasunaren ideari erantzuten dio. Pertsona gorrek iritsi daitezke, hainbat faktoreren arabera, gaitasun handiagoa edo txikiagoa izatera hala ahozko hizkuntzan nola zeinu-hizkuntzan.

### Gorren erkidegoa

Pertsona gorren identitatearen inguruan eraikitako hizkuntza- eta kultura-balioak partekatzen dituzten pertsona gor eta 'entzuleen' taldea. Zeinu-hizkuntza komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea balioesten dute, bai eta pertsona gorren ezaugarri espezifikoak ere; ezaugarri

## 6. Términos relacionados con la discapacidad auditiva

horien artean, batzuetan, munduaren ikuskera bisuala integratzen da.

Erkidegoak, izaki sozial gisa, aldakorrak dira eta bizi diren inguruneari dagozkion kontzepzioak integratzen dituzte.

### Gorreria (duen pertsona)

Ikuspegi soziokulturaletik, entzumen-galera -handiagoa edo txikiagoa- duen pertsonari egiten dio erreferentzia. Eguneroko bizitzan komunikazio-oztopoak ditu ingurune iritsi-gaitzarekin dituen harremanetan.

### Gorreria hautematea

Prozesu horren bidez aurkitzen eta ebaluatzen da entzumen-galera. Diagnostikoa eta ebaluazioa egiteko, beharrezkoa da zenbait proba audiologiko egitea, gorreriaren ezaugarriei buruzko informazioa eman diezaguten eta haurren garapena sustatzeko zer neurri beharko diren diseinatu ahal izateko..

### Hezkuntza elebidun intermodala

Hezkuntza-proiektu honetan, komunikaziorako eta ikaskuntzetara iristeko tresna nagusi gisa bai zeinu-hizkuntza eta bai ahozko hizkuntza/k erabiltzen diren ingurune batean gauzatzen da irakaskuntza-ikaskuntza prozesua. Planteamendu horrek aldaketa metodologiko eta kontzeptual garrantzitsuak eskatzen ditu.

### Hipoakusia

Batez ere osasungintza-medikuntza esparruan erabiltzen den termino edo hitza da; entzumen-galerari egiten dio erreferentzia. Dokumentuan, gorreria erabiltzen da hitz horren sinonimo gisa.

Hainbat motatako hipoakusiak edo gorreriak daude, kontuan hartzen dugun faktorearen arabera: lesioaren kokapena, zergatia, entzumen-galeraren maila...

## Hitz Osatua

Komunikaziorako sistema osagarria, ezpain-aurpegi irakurketaren sostengu gisa erabiltzen dena. Ahozko hizkuntzako fonemak irudikatzen dira: eskuaren hiru posizio bokalak adierazteko, eta zortzi esku-irudi edo -forma kontsonanteak adierazteko.

## Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU)

Ikasleen sarbide, ikaskuntza eta parte-hartzeari begira, oztopo fisikoak, zentzumen arlokoak, afektiboak eta kognitiboak ezabatzen laguntzeko sostengu-sistema.

Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala hiru printzipio hauetan oinarritzen da:

- Hainbat irudikapen-bitarteko eskaintzea (ikaskuntzaren «zer» alderdia). Ikasleek ez dute modu bakar eta berean jasotzen eta ulertzen aurkezten zaien informazioa. Horrenbestez, hainbat aukera eman behar zaizkie, edukiak pertzepzio-bide desberdinetatik iritsi ahal izateko (entzumena, ikusmena, motrizitatea); gainera, ikasleek erraz doitzeko moduko formatu batean eskaini behar zaie informazioa.
- Ekintzarako eta adierazpenerako hainbat bide eskaintzea (ikaskuntzaren «nola» alderdia). Ikasle guztiek ez dute ikaskuntzan «nabigatzeko» eta dakitena adierazteko modu berbera. Horregatik, beharrezkoa da askotariko aukerak eskaintzea bai ekintzarako (ikasle guztiak interakzioan aritzeko moduko materialak erabiltzearen bitartez), bai adierazpen- eta jariakortasun-aukerak errazteko (programa eta baliabide materialen erabilpenerako erraztaileen bidez) eta bai egikaritze-funtzioetarako (ahalegina eta helburu bat lortzeko motibazioa estimulatzearen bidez).
- Konpromisorako hainbat bitarteko eskaintzea (ikaskuntzaren «zergatia»). Ikasle guztiek ez dituzte

## 6. Términos relacionados con la discapacidad auditiva

ikasteko inplikazio eta motibazio berdinak sentitzen. Horrela, bada, ikasleen interesak, eginkizun berriei aurre egiteko estrategiak, auto-ebaluatzeak aukerak eta itxaropenei buruzko hausnarketa islatuko dituzten aukerak eskaini behar zaizkie (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 2012).

### **Ikasleen ikaskuntzarako eta parte hartzeko oztopoak**

Presentziarako, ikaskuntzarako, parte hartzeko eta lorpenerako oztopoen kontzeptua ikasleek presentzia izateko, parte hartzeko, ikasteko eta ahalik eta lorpen akademiko handienak erdiesteko dituzten oztopoak identifikatzeko erabiltzen da.

Desgaitasunaren gizarte-ereduaren arabera, oztopoak ikasleen eta haien testuinguruen arteko interakzioan agertzen dira; hau da, haien bizitzan eragina duten pertsona, politika, instituzio, kultura eta gizarte- zein ekonomia-egoerekiko elkar eraginetan.

Oztopoak sistemaren alderdi eta egitura guztietan aurki daitezke: ikastetxearen barruan, komunitatean, tokian tokiko politketan zein nazio mailakoetan.

### **Ikusmen-komunikaziorako estrategiak**

Haur (edo heldu) gor batekin komunikatzeko behar diren jarraibideak edo egokitzapenak, ikusmenean oinarritzen direnak.

### **Intentsitatea**

Soinuaren bolumena. Dezibeleetan (dB) neurtzen da.

### **Irabazi protesikoa**

Audifono bat maiztasun batean edo bestean emateko gai den anplifikazio maila da, pertsonaren profil audiometrikoaren arabera.

## **Kokleako inplantea**

Entzumenerako produktu lagungarria da, eta soinuen kalitatea eta kantitatea hobetzea du xede. Horretarako, seinale akustikoak elektriko bihurtzen ditu, eta horiek entzumen-nerbioa estimulaturik, seinaleak igortzen ditu garunera. Koklearen funtzioa ordeztzea bilatzen du.

## **Kokleako inplantearen programazioa**

Prozesu horren bidez hartzailearen ezaugarrietara egokitzen da kokleako inplantea. Programa informatiko baten bidez entzumen-mugak aztertzen dira: soinuak entzuteko modukoak noiz diren eta noiz hasten diren gogaikarriak izaten. Muga horiek baliteke denborarekin aldatzea; beraz, berrikuspenak egin beharko dira gerora, entzumenaren errendimendu onena lortzeari begira.

## **Komunikazio bimodala**

Ahozko hizkuntza eta zeinu-hizkuntza batera erabiltzea. Esaldia markatzen duen egitura ahozko hizkuntzarena da, baina hitzen ordez zeinu-hizkuntzatik hartutako zeinuak erabiltzen dira.

Batzuetan, «gaztelania edo espainiera zeinatua» izenez ere ezagutzen da

## **Komunikazio oztopoak**

Pertsona gorren kasuan, informazioa eskuratzea mugatzen edo zailtzen duten trabak edo eragozpenak dira; eta, era berean, sentitzen dutena adieraztea eta komunikatzea eragozten dietenak.

## **Komunikazio sistema alternatibo eta handigarriak (KSAH)**

Komunikazio Sistema Alternatibo eta Handigarriak (KSAH) hizkuntza mintzatutik bestelako adierazpideak dira, eta desgaitasuna duten pertsona askoren komunikazio- eta

## 6. Términos relacionados con la discapacidad auditiva

hizkuntza-gaitasunak handitzea (handigarriak) eta/edo konpentsatzea (alternatiboak) izaten dute helburu.

Komunikazioa eta hizkuntza funtsezkoak dira gizaki ororentzat, besteekin harremanetan jartzeko, ikasteko, gozatzeko eta gizartean parte hartzeko, eta gaur egun, sistema horiei esker, ez dute zertan atzera geratu aho-hizkuntzan zailtasunak dituztelako. Horregatik, edozein arazoirengatik behar bezala komunikatzeko behar besteko hizkuntza maila ez duten -edo galdu duten- pertsona guztiek KSAH sistema bat erabili beharrean gertatzen dira.

Komunikazio Handigarri eta Alternatiboa (KHA) ez da bateraezina -osagarria baizik- hizketa naturalaren (bir) gaikuntzarekin; gainera, haren arrakastarako lagungarria izan daiteke hura posible denean. Beraz, ez da dudan jarri behar txikitatik erabiltzea, ahozko hizkuntza garatzeko zailtasunak ikusten diren bezain laster. Ez dago frogatuta KHA erabiltzeak hizketaren garapena edo berreskurapena inhibitzen edo oztopatzen duenik.

### Maiztasuna

Soinuaren nolakotasuna; soinuak lodiak (maiztasun apalekoak, adib., gizonaren ahotsa edo kamioien zarata) edo zoliak (maiztasun handikoak, adib., emakumearen edo haurren ahotsa) izatea eragiten duena. Hertzetan (Hz) neurtzen da.

### Minusbaliotasuna

«pertsona jakin batek urritasun baten ondorioz izaten duen desabantailazko egoera, pertsona horrek, bere adina, sexua eta beste zenbait faktore sozial eta kultural kontuan hartuz, normala den funtzio bat betetzea mugatu edo eragozten duena». Ez entzutearen nahasmendu organikoaren aurrean, pertsona desabantaila sozialean dagoela irizten zaio, eta adostutako ehuneko jakin batekin zehazten da. Urritasunari lotutako termino *absolutu* bat da.

## Otoemisia akustikoak

Koklearen funtzionamendua neurtzen edo ebaluatzen duen proba audiologikoa. Otoemisiaak kokleako zelula ziliatuek igorritako dardara akustikoak dira. Berez edo probokatuta sor daitezke.

Proba honen bidez, entzumen-arazoa koklean dagoen edo ez ikusten da.

## Otorrinolaringologoa (ORL)

Entzumen-organoko nahasmenduetan espezializatutako mediku profesionala. Honako hauez arduratzen da: diagnostikoaz eta orientazio medikoaz, entzumen-balorazioaz, tratamendu mediko edo kirurgikoaz eta entzumen-protesiak eta/edo kokleako inplantea agintzeaz.

## Pertsona gorren elkarte

Gorren elkarte horien bidez, kolektibo gisa dituzten eskubideak aldezteaz gainera, izan ditzaketen eskaerak bideratzen dituzte. Elkarte gehienetan hainbat zerbitzu aurki daitezke (zeinu-hizkuntzako interpreteak, familiarako eta lanerako orientazio-zerbitzuak, zeinu-hizkuntzako ikastaroak, eta abar); bai eta aisialdiko jarduerak ere (tailerrak, txangoak, kirol-jarduerak, eta abar).

## Potentzial ebokatuak

Entzumena baloratzeko erabiltzen da proba hau, belarria soinu batekin estimulatu ostean garunaren jarduera elektrikoa erregistratzeko aukera ematen baitu. Soinuak kokleatik garunera egiten duen ibilbideko zein puntutan dagoen arazoa ebaluatzen du.

## Protesi-egokitzapena

Prozesu honen bitartez haur bakoitzari egokiena zaion entzumen-protesia esleitzen zaio. Hor sartzen dira, beraz,



## 6. Términos relacionados con la discapacidad auditiva

hasierako ebaluazioa (hainbat proba audiometrikoren bidez), protesien gomendioa, bai eta aldizkako berrikuspenak ere, esandako protesiak ongi doitzeko.

### Urritasuna

Egitura edo funtzio psikologiko, fisiologiko edo anatomiko baten galera edo anomalia oro.

### Zeinu-hizkuntza

Pertsona gorren kolektiboak eta haien inguruneak erabiltzen duten hizkuntza, bisuala, espaziala, keinuzkoa eta eskuzkoa.

Nabarmentzekoa da 27/2007 Legea, urriaren 23koa, Espainiako zeinu-hizkuntzak aitortzen dituen eta gorren, entzumen-desgaitasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikaziorako sostengu-bitartekoak arautzen dituen, ingurunearekin komunikatzea ahalbidetzen dieten baliabideak askatasunez hauta ditzaten. Lege horrek Espainiako zeinu-hizkuntza aitortzen eta arautzen du, eta honako hau ere xedatzen du: «zeinu-hizkuntzek hizkuntza natural baten baldintza guztiak betetzen dituzte, eta beren ezaugarri gramatikal, sintaktiko eta lexiko propioak dituzte».



## 7. Bibliografia

- 13/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzkoa.
- 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.
- 118/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- ACOSTA, V. (2006): *La sordera desde la diversidad cultural y lingüística. Construyendo centros inclusivos en la educación del alumnado con sordera*. Bartzelona. Masson Elsevier.

- ALBA PASTOR C.(2016). *Diseño Universal para el aprendizaje. Educación para todos y prácticas de enseñanza inclusivas*. Morata argt.
- ALONSO, P.; DOMÍNGUEZ, A.B. (2004): *La educación de los alumnos sordos hoy. Perspectivas y respuestas educativas*. Malaga. Aljibe.
- ANGULO, A. eta beste batzuk (2017): *Audiología. Teoría y práctica*. Madril. Egea argitalpenak.
- ANTIA, S.D.; KRIEMEYER (2003): «Peer Interactions of Deaf and Hard of Hearing Children», en MARSCHARK,M.; P.E.:(2003):*Oxford Handbook of Deaf Studies, Language and Education*. New York. Oxford University Press.
- BORREGÓN SANZ, S. (2016): *Hipoacusia y sordera. Manual. del conocimiento de la sordera y de la persona sorda a la intervención educativa*. Madril.CEPE.
- BOOTH, T. eta AINSCOW, M. (2005) *Guía para la evaluación y mejora de la educación inclusiva*. Eusko Jaurlaritza
- BOOTH, T. eta AINSCOW, M. (2015) *Guía para la educación. Desarrollando el aprendizaje y la participación en los centros escolares*. OEI
- C.BÁEZ MONTERO, I.; OTERO DOVAL, H.(2015): *Buscando respuestas en lengua de signos*. Lugo. AXAC argitaletxea.
- CALVO, J. C. (1999): *La sordera. Un enfoque socio-familiar*. Salamanca. Amarú. (*Psicología*, 46).
- CAÑETE, O. (2006): «Desorden del procesamiento auditivo central (DPAC)». *Rev. Otorrinolaringología*. Cabeza Cuello 2006; 66: 263-273.
- CECILIA TEJEDOR, A. (2011): *Mil palabras con las manos... del léxico signado español*. Madril.CEPE.

## 7. Bibliografía

- CEDILLO VICENTE, P. (2010): *Mira lo que te digo*. Barcelona. Editorial octaedro.
- CEDILLO VICENTE, P. (2018): *Tu memoria en mis manos*. Barcelona. Amazon.
- CLAUSTRE, M., GOMAR, C., PALMÉS, C. & SADURNI, N. (2010): *Alumnado con pérdida auditiva*. Barcelona. Graó argitaletxea.
- CLAUSTRE CARDONA, M. eta beste batzuk (2010): *Alumnado Con pérdida auditiva. Escuela inclusiva: Alumnos distintos pero no diferentes*. Barcelona. GRAO.
- CNSE (2006) Plan de normativización y normalización de la lengua de signos española 2006-2010.
- CONRAD, R. (1979). *The Deaf School child*. Londres: Harper and Row.
- CREENA (2006): *Alumnado con grave discapacidad auditiva en Educación Infantil y Primaria. Orientaciones para la respuesta educativa*. Iruñea. Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fonda.
- DOMÍNGUEZ, A. B.; PÉREZ, I; SORIANO, J. (2007): «Repercusión del implante coclear en el aprendizaje de la lectura en los niños sordos: Resultados preliminares». *Enseñanza*, 25, 2007, 93-110.
- DOMÍNGUEZ, A. B.; VELASCO, C. (2013): «Estrategias, recursos y apoyos para la inclusión del alumnado sordo». En *Discapacidad e inclusión: manual de docencia*. Koord.: Verdugo, M. A. eta Schalock, R. Amarú Ediciones. Salamanca.
- DOMÍNGUEZ, A. B. y VELASCO, C. (1999): *Lenguaje escrito y sordera. Enfoques teóricos y derivaciones prácticas*. Salamanca. Salamancako Unibertsitate Pontifikala.
- E.CRISTIANI, H. (2018): *Temas de Psicoacústica para audiólogos*. Argentina. AKADIA editorial. Eta *Inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeke gidaliburua. Guía para diseñar y organizar eventos culturales accesibles e inclusivos*. Donostia, 2016 Kulturaren Europako Hiriburua.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO ( 2013): *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Haur eta Lehen Hezkuntza.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO ( 2013): *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO: *Heziberri 2020 Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO: *Eskola inklusibo bat garatzeko Esparru Plana 2019-2022.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO (2006): *Galderak eta erantzunak gorreria duen hauraren eskolatzeaz. Eusko Jaurlaritza.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO CEI-IDC [1999]: *Zeinu-hizkuntzako eskuliburua. Haur Hezkuntza.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO CEI-IDC [1999]: *Zeinu-hizkuntzako eskuliburua. Lehen Hezkuntza. Lehen zikloa.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO:

AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren banakako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura..

FANELLI, K. (2019): *Programación de Implantes Cocleares: Manejo audiológico de los recursos tecnológicos para optimizar el desempeño auditivo.* Editorial Academia Española.

## 7. Bibliografía

- FERNÁNDEZ VIADER, M.P.; PERTUSA, E. (2004): *El valor de la mirada: sordera y educación*. Bartzelona. Publicaciones y ediciones de la Universidad de Barcelona.
- FIAPAS (Jáudenes et all) (2004): *Manual básico de formación especializada sobre discapacidad auditiva*. Madril. FIAPAS.
- GONZÁLEZ SANTAMARÍA, V.; DOMÍNGUEZ GUTIÉRREZ, A.B.: «Influencia de las habilidades lingüísticas en las estrategias lectoras de estudiantes sordos». *Rev. investig. Logop.* 8(1)2018:1-19
- GOROSPE, J.; MUÑOZ, C. (2016): *El Implante Coclear en el contexto de la atención a la deficiencia auditiva*. Bilbo. AELFAren Kongresuko akta-liburua.
- GOROSPE J., MUÑOZ NAVARRO, C.: «El implante coclear en el contexto de la atención a la deficiencia auditiva», *Osasun-zientzien seriea, Claves de la Logopedia en el Siglo XXI*, Madril, 2016ko uztaila.
- HERRERO BLANCO, A.(2009): *Gramática didáctica de la lengua de signos española (LSE)*. Madril. SM ediciones.
- JUÁREZ, A.; MONFORT, M. (2001): *Algo que decir. Hacia la adquisición del lenguaje. Manual de orientación para padres*. Madril. Entha.
- KAZEZ, R.; MELLONI, G.; David MALDAVSKY, D. (2014): «Estudio del discurso de madres oyentes de hijos sordos. Detección de diferentes momentos luego de haber sido informadas acerca del diagnóstico». *Subjetividad y Procesos Cognitivos*, 18. bol., 1. zk., 2014 157-175 or.
- LUTERMAN, D. M. (2009): *El niño sordo*. Madril. CLAVE. Caring for hearing impairment.
- LLEDÖ CARRERES, A. (2008): *La discapacidad auditiva. Un modelo de educación inclusiva*. Bartzelona. Edebé.

- MANRIQUE, M y HUARTE, A. (2002): *Implantes Cocleares*. Bartzelona. Masson argitaletxea.
- MARCHESI, A. (ED.) (1987): *El desarrollo cognitivo y lingüístico de los niños sordos*. Madril. Alianza.
- MINGUET, (coord.) (2001). *Rasgos Sociológicos y culturales de las personas Sordas*. Valentzia: FESORD C.V.
- MONFORT, M.; JUÁREZ, A.; MONFORT JUÁREZ, I. (2006): *La práctica de la comunicación Bimodal. De los signos a la palabra*. Madrid: Entha Argitalpenak.
- MONFORT, M.; JUÁREZ, A. (2001): *Algo Que Decir. Hacia la adquisición del lenguaje: Manual para los padres de niños con sordera de 0 a 5 años*. Madril: Entha Argitalpenak.
- MONFORT, M.; JUÁREZ, A. (2001): *Estimulación del lenguaje oral: Un modelo interactivo para niños con necesidades educativas especiales*. Madril: Entha Argitalpenak.
- MONFORT, M.; JUÁREZ, A. (2017): *Algo Que Decir quince años después: Hacia la adquisición del lenguaje: manual de orientación para las familias de niños y niñas con sordera de 0 a 4 años*. Madril: Entha Argitalpenak.
- MONFORT, M.; ROJO, A.; JUÁREZ, A. (2010): *Programa elemental de comunicación Bimodal*. Madril. CEPE argitaletxea.
- MORENO, A. (2000). *La Comunidad Sorda: Aspectos Psicológicos y Sociológicos*. Madril: CNSE.
- MUSIEK, E. (2009). «The human auditory cortex: Interesting anatomical and clinical perspectives». *Audiology Today*, 21(4), 26-37.



## 7. Bibliografía

- OLLETA LASCARRO, I. y otros (2018): *Atención temprana del niño con déficit auditivo de 0 a 6 años: cómo asesorar e informar a la familia en todo su desarrollo*. Santa Cruz Tenerifekoa. AEDA.
- PÉREZ, I. y DOMÍNGUEZ, A.B. (2006). «Habilidades lectoras de los alumnos sordos con y sin implante coclear a lo largo de la escolaridad obligatoria. Integración». *Revista de la Asociación de Implantados Cocleares*, 40, 7-11.
- PÉREZ, M.E.; CHHABRA, G. (2019): «Modelos teóricos de discapacidad: un seguimiento del desarrollo histórico del concepto de discapacidad en las últimas cinco décadas 18036». *Revista Española de Discapacidad*, 7 (I): 7-27. Recuperado de: <https://doi.org/10.5569/2340-5104.07.01.01>
- PEREZ MARTIN, M., ET ALLS (2013). «Desarrollo del vocabulario temprano en niños con implante coclear escolarizados en centros con bilingüismo oral-signado». *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología* (2013). Hemendik berreskuratua: <http://dx.doi.org/10.1016/j.rlfa.2013.07.008>.
- SACKS O. (1991): «*Veo una voz*». *Viaje al mundo de los sordos*. Madril. Argitaletxea: Anaya & Mario Muchnick.
- SERVICIO DE CONVIVENCIA Y DISCAPACIDAD (2015): *Migraciones y rigor terminológico. Consideraciones para un mejor uso de los conceptos que se utilizan en torno a las migraciones*. Vitoria-Gasteiz. Edita Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Hemendik hartua: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/41/42/64142.pdf>.
- SILVESTRE, N. Y OTROS (2003): *Sordera. Comunicación y aprendizaje*. Bartzelona. Masson.
- SUÁREZ RODRÍGUEZ, M. (2000): *Crece con sordos. Programa para la Educación en la Competencia Social del Niño Sordo*. Santa Cruz Tenerifekoa. EArg. Resma.

- TOMASELLO, M. (2006). «Acquiring linguistic constructions». In D. Kuhn y R. Siegler (Eds.), *Handbook of Child Psychology*. New York: Wiley.
- TORES, S. y otros (1995): *Deficiencia auditiva. Aspectos psicoevolutivos y educativos*. Málaga. Aljibe. ((Aniztasunean hezi).
- TRINIDAD-RAMOS, G.; ALZINA DE AGUILAR, V.; JAÚDENES-CAUSABÓ, M.C.; NÚÑEZ-BATALLA, SEQUÍ, F. (2010). Recomendaciones de la Comisión para la Detección Precoz de la Hipoacusia (CODEPEH) para 2010. *Acta Otorrinolaringológica Española*, 61 (1): 69-77.
- VALMASEDA, M. (2009): «La Alfabetización Emocional de los Alumnos sordos». *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*. RINACE. 3. bol., 1, zk..
- VALMASEDA, M. (2016): Variabilidad en el desarrollo de la lengua oral de los alumnos con implante coclear. Algunas reflexiones para el ámbito educativo. Bilbao. AELFAren Kongresuko aktaliburua.
- VALMASEDA, M. y otros (1991): Comunicación y lenguaje. El lenguaje de los alumnos sordos. Madril. Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa-MEC.
- VARELA NIETO, I.; LASSALETTA ATIENZA L. (2012): *La sordera*. Espainia.CSIC.
- HAINBAT EGILE (1988): Eskola muinbakarra eta integratzailea. Hezkuntza Bereziko Batzordearen Txostena. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- HAINBAT EGILE (2012): Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza.

## 7. Bibliografía

- VELASCO, C.; PÉREZ, I.(2009): «Sistemas y recursos de apoyo a la comunicación y al lenguaje de los alumnos sordos. *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*. 3. bol. 1. zk. 77-93 or.
- VELASCO MARTÍNEZ, M.; SALAS,P. (2015): *Logogenia para niños sordos*. Argentina. Brujas argitaletxea.
- WILSON, B.S. (2008): «Cochlear implants: Current designs and future possibilities». *The Journal of Rehabilitation Research and Development*, 45(5), 695-730.Hemendik berreskuratua: <http://doi.org/10.1682/JRRD.2007.10.0173>.

